Hitzaurrea:
Paul Beitia Arizmabarreta

Itzulpena:
Josu Zabaleta Kortaberria

Beppe Fenoglio

KONTU PRIBATU BAT

katakrak liburuak

Katakrak argitaletxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Beppe Fenoglio

KONTU PRIBATU BAT

Beppe Fenoglio

KONTU PRIBATU BAT

Itzultzailea: Josu Zabaleta Kortaberria
Hitzaurrea: Paul Beitia Ariznabarreta

katakrak

Jatorrizko izenburua (1963): *Una questione privata*
Lehenengo edizioa: *Kontu pribatu bat*
Egilea: Beppe Fenoglio
Jatorrizkoaren lizentzia: © Beppe Fenoglio
Argitalpen honen lizentzia: CC BY-SA 4.0
Barruko argazkiaren egilea: Argazkilari aleman ezezaguna
Barruko argazkiaren lizentzia: CC BY-SA 4.0
Hitzaurrea: Paul Beitia Ariznabarreta
Itzulpena: Josu Zabaleta Kortaberria
Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo
Lehenengo edizioa: 2020ko urria
Edizioa eta maketazioa: **Katakrak Liburuak**
Kale Nagusia 54-56
31001 Iruñea
argitaletxea@katakrak.net
www.katakrak.net
@katakrak54

Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-53-2
Lege gordailua: 1631-2020
Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA.....11
HITZAURREA (Paul Beitia Ariznabarreta).....21

1.....27
2.....37
3.....51
4.....63
5.....73
6.....87
7.....99
8.....115
9.....131
10.....155
11.....163
12.....187
13.....193

SONO
OP

QUESTI I LIBERATORI
D'ITALIA
ORE SONO I BANDITI?

ARGITALETXEAREN OHARRA
MALDEN TEORIA

Geure bizitzak antzinako lege aldaezinen arabera garatzen dira, kadentzia propio, uniforme eta antzinako baten arabera. Ametsak ez dira inoiz errealitate bihurtzen, eta hautsita ikusten ditugunean, ulertzen dugu bat-batean geure bizitzetako poz handienak errealitatetik kanpo daudela. Geure zoria esperantzaren eta nostalgiaren txandakatze horretan pasatzen da.

Natalia Ginzburg

Italo Calvinok 1947an argitaratutako lehenengo eleberria, *Armiarmen habietarainoko bidea*, partisanoei buruzkoa izan zen. Handik hamazazpi urtera, idazle famatua zenean eta beste hamabi liburu berri idatzi ostean, hitzaurrea idatzi zion *Armiarmen*i. Hitzaurre hartan onartzen zuen lehenengo eleberria zela «garai bateko giro orokorretik, tentsio moral batetik» jaio zen lan bat, Europa ia osoa markatuko zuen Bigarren Mundu Gerraren amaierako giroan idatzitakoa.

Calvinok nabarmentzen zuen ordukoan sentitzen zutena ez zela «optimismo erraz bat» ezta «doako euforia bat» ere. Gainera, Italian gerra hark gerra zibil moldea hartu zuen eta idazleak eta irakurleak begiz begi zeuden: biek zuten kontatzeko asko, norberak bazituen bere mina eta bere egia, bere abenturak eta bere miseriak. Dena zegoen istorioz josia. Baduelako gerra irabazteak galtzearekin alde bat: kontatzeko zilegitasuna daukazu. Eta hala ikusi zuen ere Calvinok gerra ostean: trenetan, kantinetan, ilaretan, postetxean, jendeak ez zuen besterik nahi: kontatu, kontatu eta kontatu.

Hori izan zen orduan idatzi zutenen erronka handietako bat: zein ezberdintasun ekarriko zuten idazleek (izan fikziozkoak ala kronikakoak) ahoz kontatzen ziren pasadizoen aldamenean. Horregatik, Calvinoren aburuz, «neorrealismoa» kutsatze bat izan zen, literarioak ez ziren gaiek baldintzatu zuten literatura, eta haiek pentsatu zuten afera poetikan zegoela: «mundu hura nola bihurtu literatur lan, mundu hura mundua bazen». Horregatik «neorrealismoa» ez zen izan abangoardia bat eta ez zen izan eskola bat, izan zen «ahotsen batuketa bat, neurri handi batean periferikoa, Italia desberdinen topaketa anizkun bat». Nahiz eta, ebidenteki, «neorrealismoa» izan zen, «neoespresionismo» bat, ala, nahi bada, hamarkada batzuk lehenago Italiako literaturak eta arteak galdu zuen bide baten abiatzea.

ren literatura

Faxismotik libratu eta bi hilabetera liburu dendetako erakusleihoetan zegoen Elio Vittoriniren *Uomini e no*. Hala, Milango gappistek (Italiako Alderdi Komunistako Brigati Garibaldiren baitako GAP taldeetako

kideek) bazuten beren eleberria. Baina, Calvinok idatzi zuenez, «mendiko gerrillariek ere beren nobela nahi zuten, erritmo diferentekoa, beren joan-etorri diferenteekin..».[1]

Calvinok kontatzen duenez, ren literatura hark izan zituen hiru iturri nagusi izan zituen Erresistentziaren literatura hark: Hemingwayren *Norentzat jotzen dute kanpaiek*, Babelen *Zalditeria gorria* eta Fadeieven *Porrota*. Leherketa handi bat izan zen literatura partisanoa, hamarkada aldaketan ia isildu zena. Pavese hil egin zen, Vittorini isilik geratu, Moravia naturalismora joan zen. Eta gainontzekoak toki erosoagoetara joan ziren, salbu eta, Calvinoren ustez, Beppe Fenoglio. Fenogliok idatzi zuen *Kontu pribatu bat*, eta argitaratzear zenean hil egin zen, 1963an. 1964an, *Armiarmen habietarainoko bidearen* berrargitalpenak ziklo partisanoa itxi zuen. Eta zera aitortu zuen Calvinok:

Kontu pribatu bat dago eraikia maitasun zoramenezko nobela baten tentsio geometrikoarekin eta *Orlando furioso* bezalako zaldunen pertsekuzioekin, eta aldi berean dago zehazki izan zen bezala, barrutik eta kanpotik, egiazkoa inoiz idatzi ez den bezala, balio moral guztiekin eta memoria fidelean hainbeste urtez gordea, zenbat eta inplizituagoa orduan eta indartsuagoa da, eta zirraragarria, eta amorru bizikoa. Eta paisaien liburu bat da, eta figura azkarren eta oso bizien liburu bat da, eta hitz zehatzen eta egiazkoen liburu bat da. Eta liburu absurdo bat da, misteriotsua, non pertsegitzen dena pertsegitzen den beste gauza bat pertsegitzeko, eta beste gauza hori beste bat pertsegitzeko, eta ez da benetako arrazoira iristen.[2]

1 Italo Calvino, *El sendero de los nidos de araña,* Siruela: 2020 Madril. 15. or.
2 *Ibid*. 25. or.

Calvinok jarri zion *Kontu pribatu bat*i liburu bati jartzen ahal zitzaion xingolarik distiratsuena: «Eta guztien artean bakartienak lortu zuen guztiok idaztea amesten genuen eleberria, –inork ere espero ez zuenean–, Beppe Fenogliok».[3]

Partisanoen azkena

Gabrielle Pedullà-k, egun *Una questione privatak* duen argitalpenaren hitzaurrean azaltzen du Fenoglio ren literaturan sartzea gaur egungo irakurketa bat dela. Ala, nahi bada, Fenoglio hil ostean egindako irakurketa bat dela. Antza, Fenogliok «material partisanoarekin» eleberri hau landu nahi zuen, eta ari zen ere *Il partigiano Johnny* anbiziotsuarekin ere, baina bazuen 1954tik bere hiriari buruz (Alba) bake garaian idazteko asmoa, adibidez. Pietro

Bianchi-ri eman elkarrizketa batean (1960ko urtarrilaren 19an *Il Giornon*) adierazi zuen *Primavera di bellezza* eta gero ari zela beste eleberri bat lantzen [*Kontu pribatu bat*] «baina horren ostean aski da partisanoekin».

Belaunaldi oso bat idazten hasi zen Erresistentzian egon ostean (Calvino, Venturi, Fortini), ala aurrez hasi ziren baina nabarmen markatuta geratuko ziren (Rigoni Stern, Levi).[4] Eta, ordea, autobiografia kartzela bat bezala bizi izan zuen Fenogliok, idatzi, fikzioan zukutu eta atzean uzteko zerbait zen bizitakoa. Bestela esateko, Fenogliok hemen autobiografia bat kontatuko du, baina ez berea. Eta bi polotatik alde eginda idatziko du *Kontua*: ez du liburu memorialistiko nobelatu bat egin nahi eta ez du Erresistentzia (estetika soilak egin-

3 *Ibid.*

4 Gabriele Pedullà, *Alla ricerca del romanzo in Una questione privata*, Einaudi: 2006 Torino. V. or.

go lukeen bezala) paisaia ala atzeko plano gisa erabili nahi. Ordura arteko bere partisanoen literatura atzean utzi nahi du, «fikziozko memorialistika»tik aldentzea da lan handiena Pedullàk nabarmentzen duenez.[5] Zeren afera ez zen soilik nor bere anekdota bildumatik urruntzea, afera zen guztiek zituztela hamaika liburu irakurriak berrogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkadetan autobiografiekin.

Kontuaren kontaketako erronketako bat ordena kronologikoa aldatzea zen, hori zelako Liberazioaren inguruko lekukotasunen ohiko kontaera. Eta ahalegin horretan egin zuen kontra Fenogliok anti-eleberri ziren memoria liburuen eta, aldi berean, boladan jartzen ari zen *nouveau romanaren* kontra. Askatasunaren alde borrokatzen ari da eleberriko protagonista, baina idazleak ez dio utziko, izango du dena itxita, dena lotuta, maldan behera.

Eztabaida ez da itxi, oraindik ez dakigu eleberri honen izenburua Fenogliok berak jarri ote zuen, baina Pedullàk aitortu bezala «partikularki zehatza da baita ikuspegi narratologikotik ere». Afera hemen ez delako pertsonaia nagusiaren «kontu pribatua» afera sentimental bat dela, baizik eta eleberria gidatzen duen barne bilaketa obsesiboa dela egitura guztian agintzen duena. Hainbesteraino da hala, Italiako Gerra Zibilak sartu-irtenak egiten dituela maitasun eleberrian.

Gurean ez bezala, 36ko porrotak ezinezko egin zuelako, Italian memorialistika oso genero zabala izan zen, gerra bukatu eta segidan hasi ziren argitaratzen, 1945ean bertan argitara emango zituzten berenak Roberto Battagliak, Pietro Chiodik eta Giorgio Boccak. Baina lan horiek gehienek arrasto arina utziko zuten. Pedullàren aburuz, urteei soilik hiru lanek eutsi diete: Vittoriniren

5 *Ibid.* XII. or.

Uomini e nok, lehenago aipatu dugun Italo Calvinorenak eta Renata Viganòren *L'agnese va a morirek*.

Eleberrien etena etorriko zen Gerra Hotzaren 1950eko hamarkadarekin, ez ordea ipuinena (Giorgio Caproni, Ada Gobetti, Renata Viganò, Marcello, Venturi, Andrea Zanzotto eta, noski, Beppe Fenoglio bera). PCIren kultur politikaren baitan errealismoa hobetsiko zen eta, beraz, ohikotasuna, objektibitatea, osotasuna eta «heroi proletarioaren» paper baikorra nabarmendu. Eta garaiko hegemonia kultural horretan ekingo zion Fenogliok bere bideari: hegemonia horri ile kontra idatziko zuen, gerora, partisanoen unibertsoari buruzko eleberri kuttunenetakoak bilakatuko ziren bi, *Johnny* eta *Kontua*. Ez anekdotario, ez nobela historiko, ez filigrana estetiko, egia historikoa «itzaletik».

Alegia, nobela honen lana ez da pertsonaia mordo bat agertzea ahalik eta panorama zabalena erakusteko, ezta pertsonaia ezagun baten aldaera bat ekartzea, ez da (halakoetan ohi denez) pertsonaia baten bidez Historia azaltzea, baizik eta kontrakoa: «polifoniaren ukazioa da, dispertsioari kontra egin dio, bilatzen du egitura zurrun eta laztasunezko bat *Johnny*n egin zuenaren erabat kontra».[6]

Egiturari dagokionez, Pedullàk nabarmentzen du «ikerketa»ren forma duela eleberriak: X pertsonaiak q, z eta w ekintzak egingo ditu Yri buruzko egia ezagutzeko. Bide ilun horretan pertsonaiaren «motibazio psikologikoak» ezagutuko ditugu. Bistan dena da narratiba partisanoan pertsonaia nagusiei dagokien lekukotasun eredugarririk ez dela hemen, diziplinaren huts nabarmenen kate bat delako kontakizunaren garapena. Besterik da, ordea, eleberri honen irakurle batzuek proposatu dutenez, ea ba ote den eleberri hau

6 *Ibid*. XXV. or.

eraikitzerik rik gabe, gerrarik gabe. Ez soilik partisanoak eta Gerra Zibila pertsonaien haragia ukitzeraino iristen den paisaia delako. Horrez gain, pertsonen arteko tentsio sozial ia guztiak (maitasuna salbu) eta gizartearen antolaketa bera gerra testuinguru batekoa da; beraz nekez garatuko litzateke antzera. Zeren hau guztia gerra zibil batean gertatzen baita, «norberak, txandaka har dezake fusilatuaren ala fusilatzailearen» tokia.[7]

Italiako fikzioa gurean

Mundu anglosaxoia da gurean gaur egun nabarmen itzultzen den literatura. Aritmetika horrek apenas duen mundu anglosaxoiaren gailentasun narratiboarekin eta pentsamendurako gaitasunekin loturarik; artelan baten zabalkundean berezko arrazoi artistikoak ia beti daude ekonomiari, politikari, demografiari eta armagintzari lotuta. Ingelesezko itzulpenen ostean laukote bat dator: frantsesa, alemana, errusiera eta, oso toki duinean, italiera.

Klasiko batzuk ekarri dira eta XX. mendekoak asko. Lan horretan toki nabarmena izan dute Koldo Bigurik (Leonardo Sciascia, Cesare Pavese, Italo Calvino, Alberto Morabia, Claudio Magris, Giuseppe Tomasi de Lampedusa, Benedetto Croce, Carlo Levi, Giovanni Guareschi, Alessandro Baricco, Vasco Patrolini, Norberto Bobbio, Paolo Giordano eta Giorgio Bassani), Fernando Reyk (Natalia Ginzburg, Gianni Celati, Antonio Tabuchiren hiru lan, Milena Angusen bi, Andrea Camilleri, Lorentza Mazzetti, Elena Ferranteren hiru, Fleur Jaeggy, Nanni Balestrini, Susanna Tamaro, Paolo Giordano), Josu Zabaletak (Luigi Pirandello, Andrej Longo, Andrea Camilleri, Dino Buzzatti, Gesualdo Bu-

7 *Ibid.* XXXI. or.

falino) edota Pello Lizarraldek (Natalia Ginzburgen bi, Gianni Celatiren bi).

Eta ekidinezina da XX. mendean gurera italieratik ekarritakoa begiratu eta kointzidentzia nabarmen batez jabetzea: literaturan aritu zirenek izan zuten parte hartze politiko nabarmen bat. Hara: Leonardo Sciascia Palermoko zinegotzi komunista izan zen 1975ean, Alderdi Erradikaleko eurodiputatua 1979an; Italiako Alderdi Sozialistakoa izan zen hirurogeiko hamarkadan Alderdi Errepublikar antiklerikalera gerturatu zen arte; Norberto Bobbio sozialdemokraziako alderdien inguruan ibili zen; Vasco Pratolini Flaminio-Ponte Milvioko PCIren arduraduna izan zen berrogeiko hamarkadan; Giovannino Guareschi monarkikoa, katolikoa eta antikomunista izan zen; Carlo Levi hogeita hamarreko hamarkadan antifaxista eta Bigarren Mundu gerran Ekintzaren Alderdiko kidea zena hirurogeiko hamarkadan PCIn sartu eta bi alditan izango zen senatari; Benedetto Croce diputatu eta senataria izan zen Partito Liberale Italiano-rekin; Claudio Magris independente gisa izan zen eskuineko koalizio batean senatari 1994-1996 tartean; Alberto Moravia ateoa PCIko eurodiputatua izan zen 1984-1989 legegintzaldian; Italo Calvino kosmopolita anarkista Bigarren Mundu Gerraren ostean PCIko militantea eta koadroa izan zen; Cesare Pavese, hogeita hamarreko hamarkadatik antifaxista eta gerra ostean PCIko kidea; Natalia Ginzburg 1983an PCIko legebiltzarkide izan zenerako Lotta Continua-ko eta Potere Operaio-ko kideekiko jazarpenaren kontrako posizioak zituen; Curzio Malaparteren joanetorri politikoekin soilik eleberri bat idazteko materiala legoke; Nanni Balestrini Potere Operaioko kide eta Lotta Continuaren babeslea izan zen; Pier Paolo Pasolini

PCIn arduradun ibili zen, egotzi zuten gero, Autonomia Operaiatik gertu ariko zen, lunpena eta PCIa eskura.

Panorama horrekin bat egiten du Ingeborg Bachmannek elkarrizketa batean konfesatu zuen maitasunak ere:

> Gaur egun aski ongi ezagutzen ditut Italiako arazoak, eta afera ez da identifikaziozkoa, baizik eta uste dudala eta banabilela nirekin hitz egiten duten pertsonekin, espontaneoki eta zintzotasun osoz haientzat klase borroka deitzen den zerbait existitzen da oraindik. Zeren hemengo langileak inteligenteak baitira beren izaeran. Badakite nortzuk diren, badakite zer egin behar duten, kontzientzia izugarri sendo bat daukate izan daitekeenari eta ezin izan daitekeenari buruz. Eta nik maite dut jende hori, zeren ulertu baitut zergatik eta zertarako borrokatzen duen herri honek.[8]

Aurrera, Fenogliorekin utziko zaitugu, «lehenengo pertsonaren gehiegikerien eta dokumentuaren tentazioaren kontrako terapiarekin».[9] Maitasunak eraikitako eleberri partisano honekin. Baina lehenago, Paul Beitiaren hitzaurrea daukazu, Alpeetan eta Urola Kostan balio duen iparrorratzarekin.

Iruñea
2020ko iraila

8 Ingeborg Bachmann, *Ingeborg Bachmann in ihrem erstgeborenen Land*, Österreichischer Rundfunk, 1973 Viena.

9 Gabriele Pedullà, ibid.

HITZAURREA

I

Gerrari eta maitasunari buruzko istorio bat da esku artean daukazun *Kontu pribatu bat* hau. Alegia: guztiari buruzko istorio bat. Milton esaten dioten partisano baten istorioa da, berandu jaio zen pertsonaia osoki erromantiko horrena, eta harenarekin batera munduko partisano guztien istorioa, eta inoiz izan diren askatasunaren aldeko borrokalari guztiena. Fulvia delako neska bati buruzkoa ere bada istorioa, eta Giorgiori buruzkoa, Miltonen maitea eta adiskide mina hurrenez hurren, eta, beraz, maitasunaz jarduten du eta laguntasunaz, zeina ez baita maitasunari deitzeko beste hitz bat besterik. Finean, guztiari buruzko istorio bat daukazu esku artean. Baina hori ez da kontua.

Kontua da Beppe Fenoglio bera ere partisanoa izan zela, Italiako Gerra Zibilean parte hartu zuela aurreko mendeko berrogeiko hamarkadan, Italiako faxisten eta Alemaniako nazien kontra. Partisanoa izan zen eta partisanoei buruz idatzi zuen gero. Anekdota ezaguna da Isaak Babel eta Maxim Gorki idazle

sobietarren artekoa: idatzi nahi bazuen, bizitzarako esperientzia har zezala gomendatu zion Gorkik bere mireslea zen Babeli, munduan zehar ibil zedila eta gero idatz zezala. Gomendioari segituz, Babelek izena eman zuen Armada Gorriko korrespontsal gisa sobietarren eta poloniarren arteko 1920ko gerran. Esperientzia hartatik jaio zen *Zalditeria gorria* ipuin-bilduma miragarri hura.

Fenogliok ez zuen, nik dakidala, inoren gomendiorik jarraitu, baina halaxe egin zuen: bizi eta gero idatzi. Agian horrexegatik da *Kontu pribatu bat* hain egiazkoa, bizitza bera bezain lazgarria eta ederra. Baina kontua ez da hori. Kontua da ez dagoela bizitza bezain lazgarria eta ederra izan daitekeenik ezer. Eta Fenogliorenak irakurri ahala, galdera etortzen zaigu ezinbestean guri, gaurko garaiotan idazten dugunoi: zer bizi izan ote dugu guk?

II

Bada Babelen *Zalditeria gorria*n ipuin bat, bildumako besteak bezain gogoangarria dena. Gedali izeneko agure batekin soldadu sobietar batek izandako enkontrua kontatzen du. Antigoaleko gauzen denda baten jabea da Gedali, goibeltasunak biltzen duen gizon bat, eta kexu zaio soldaduari. Adierazten dio berak «bai» esaten diola iraultzari, baina ez duela batere gustuko iraultzaile batek gramofonoa konfiskatzea iraultzaren izenean. Gedaliren ustez, «Iraultza jende onaren egintza ona da. Baina jende onak ez du hiltzen. Hortaz, jende gaiztoak egiten du iraultza».

Kontua, ordea, zera da: jende onak ere hiltzen duela. Hala ere, gerra beti da lazgarria eta jende ona ere harrapatzen du parean.

Gedali zaharrak iraultza nahi zuen, baina ez zuen ulertzen gramofonoa kentzea haren izenean, zeukan adinarekin beste leku batetik begiratzen ziolako gerraren gertakizunari. *Kontu pribatu bat* nobelan ere, Milton sarritan topatzen da atso-agureekin, soldadueginbeharretan dabilela. Langile eta nekazari jendea da, Gedali zaharra bezala gerra beren lurraldean izatea tokatu zaiena. Elkarrizketa eskaintzen diote partisano gazteari, eta duten jateko apurra, zopa bat edo urdaiazpiko pixka bat, eta lastategia uzten diote lotarako. Galdetzen diote: «Eta orain? Noiz bukatuko da hau?». Eta maiatzean izango dela entzutean, esaten dute: «Gu, emakume zaharrok, arrotz armatu batekin topo egiteko beldurrik gabe irten ahal izango gara larrainera».

Fenoglioren narrazioak salto egiten du denboran, gerra aurrekoak eta bitartekoak kontatzen ditu. Alabaina, atso-agureekin izaten diren enkontruek ere antzeko efektua sortzen dute. Beste garai batekoak dituzte gogoan eta garai haien berri ematen diete partisanoei. Hala ere, nolabait sumatzen dute guztien askatasunagatik ari direla gazte horiek borrokan, «zuek guztiak gure seme-alabak zarete», esaten dute, eta haien alde lerratzen dira. Galdetzen dute: «Egia al da azkenean zuek gailenduko zaretela?».

Jende ona, finean, indar zapaltzaileen kontra eta guztien askatasunarengatik borrokan ari direnen aldean lerratzen dena da. Horregatik ez dute gerrarik nahi, baina parean tokatzen zaienean aurre egiten diote ezinbestean. Faxismoak kontrara egiten du: gerra estetizatzen du, gerra nahi du.

III

Ezaguna da «bizitzeak lerratzea esan nahi du» dioen Gramsciren esaldi hura, zeina jatorrizko italie-

ran «*vivere vuol dire essere partigiani*» baita, «partisano» izatea alegia. Horixe izan liteke partisano hitzaren esanahirik behinena. Zentzu horretan, Fenoglioren hau ez da soilik partisanoei buruzko nobela bat, nobela partisano bat da bere horretan. Errelatoen eta elkarbizitza inposatuaren garai petral hauetan, Fenogliok partisanoen bandotik, faxisten kontrako bandotik, kontatzen du istorioa. Maisuki lortzen du, hala ere, manikeismo baldarrean erori gabe egitea, pertsonaiengan sakontzea eta egunerokotasuneko gauza txikiagoetan arreta ipintzea; izan ere, fikzioa gauza txikiagoen eremua baita. Baina kontua, zehazki, ez da hori.

Kontua da bizitzan, agian literaturan ez bezala, gauza handiagoek hartzen dietela gain azkenean txikiei. Eskuin muturraren, faxismo berritu baten mehatxua parez pare daukagu berriro, esaterako. Klase dominantearen autoritatea kolokan egon daitekeenean agertzen da faxismoa eta halaxe gertatu da oraingoan ere, krisi kapitalistak sortzen duen ezinegon orokortuaren erdian, klase ertain agonikoan sustraituta. Europako gizartea azken hamarkadan pairatzen ari den proletarizazio prozesuaren eta Ongizate Estatuen desintegrazio progresiboaren aurrean, klase ertainak entzungor egin nahi lioke errealitateari, krisi aurreko egoera akomodatura itzuli, besteren lanetik bizitzen jarrai dezan. Horregatik jo dezake desesperatuki faxismora, kolpe gogor batez nahi duena itzuliko diotelakoan haren diskurtso irmoak eta politika protekzionistak. Zerumuga hori, ordea, lausotzen doa gero eta azkarrago eta faxismoari ez zaio xenofobia, hitzontzikeria eta pobreen arteko gerra sustatzea baino gelditzen.

Faxismoarekin ez da eztabaidatzen, Fenogliok arrazoi emango liguke horretan; aurre egin behar zaio,

suntsitu egin behar da. Iraultzaileok aurreko mendetik atera genuen irakaspena da, ordea, faxismoa suntsitzeko kapitalismoa suntsitu behar dela.

IV

Guk, gaurko garaiotako biztanleok, zer bizi izan ote dugun galdetu dut hasieran. Honezkero erantzunda behar luke galderak. Krisiaren seme-alaba izendatu izan ditugu geure buruak, hain zuzen krisi kapitalistaren garaietan hezi gaituztelako, burgesiaren oldarraldi betean bizitzea egokitu zaigulako, faxismoaren mehatxuaren aurrean, etorkizun lauso bati adi. Hori guztia eta gehiago bizi izan dugu, baina aurreko mendeko lehen hamarkadekin alderatuta desberdintasun funtsezko batekin: ez dago egoera krudel horri alternatiba integralik kontrajarri diezaiokeen indar politiko antolaturik.

Ez dago bizitza bezain ederra eta lazgarria denik ezer, eta topatu beharko ditugu moduak geure garaian partisano izateko, indar zapaltzailearen kontra eta guztien askatasunaren alde lerratzeko.

Horretarako baliotsu eta indargarri izan dakiguke Fenogliok nobela honetan eskaintzen digun lekukotza. Walter Benjaminek esana da proletalgo iraultzaileak, «esklabo hartutako arbasoen iruditik» elikatuta, «ordura arte zapaldutako belaunaldien izenean askatasunaren bideari amaieraraino» ekingo diola. Hain zuzen, zapaldutako belaunaldi horien lekukotza bat da *Kontu pribatu bat* hau eta egungo garaiaren aurka borrokatzeko grina daukagunok akuilatu gaitzake, Milton gaztea ipintzen baitigu aurrean, eta istorioko atso-agureak, eta, haiekin, inoiz izan diren partisano guztiak, den-denak Fenoglioren ahotsean, guri etorkizunaz galdezka: «Egia al da azkenean zuek gailenduko zaretela?». Eta guk, agian, ez dugu jakingo zer erantzun,

baina hori ez da kontua, Miltonen istorioa irakurri eta gero, gutxi bada ere, desberdin begiratuko baitiogu inguratzen gaituenari, eta hori da, segur aski, liburu bati eskatu dakiokeen gauzarik handienetakoa.

Guztiari buruzko istorio bat da hau, finean. Fenogliok lekukotza bat eskaintzen digu, eder eta lazgarri kontatua. Gure garai hauetan nola irakurtzen dugun eta zertarako balio digun, horixe da kontua.

Paul Beitia Ariznabarreta
Zarautz, 2020ko iraila

1

Ahoa erdi itxirik, besoak alboetan erortzen utzirik, Milton Alba hirira jaisten zen muinoaren gainean bakar-bakarrik zegoen Fulviaren txaletari begira zegoen.

Bihotzak ez zion taupadarik egiten; areago, gorputz barruan ihes egina zirudien.

Han zeuden ozta-ozta itxita zegoen itxituraren beste aldean bidetxoa zuintzen zuten lau gerezindoak, han zeuden teilatu ilun, distiratsua askogatik gainditzen zuten bi pagoak. Hormak zuri-zuri zeuden oraindik, orbanik eta kedarrik gabe, azken egunetako euri bortitzak kolorea kendu gabe. Leiho guztiak itxita zeuden, katetxoz, aspalditik, bistan zenez.

«Noiz ikusiko ote dut berriro? Gerra bukatu baino lehen ezin. Ezta nahi ere. Baina gerra amaitzen den egun berean, banoa korrika Turinera, haren bila. Gure garaipenerako distantzia, huraxe doi-doi harenganainokoa».

—Kidea hurbiltzen ari zitzaion, lokatz berritan irristatuz.

— Zergatik desbideratu haiz? –galdetu zion Ibanek–. Zergatik gelditu haiz orain? Zeri begira hago? Etxe hari? Zergatik interesatzen zaik etxe hura?

— Gerra hasieraz gero ikusi gabe neukaan, eta bukatu baino lehen ez diat ikusiko berriro. Pazientzia pixka bat, bost minutu.

— Ez duk pazientzia kontua, larrua zaintzea baizik. Hemen goian arriskua zagok. Patruilak.

—Honaino ez dituk ausartzen. Trenbideraino iristen dituk, gehienez ere.

—Egidak kasu niri, Milton, goazemak hemendik. Asfaltoa ez zaidak gustatzen.

—Hemen ez gaudek errepidean –erantzun zion Miltonek, berriro etxetxoari begira.

—Hementxe azpian igarotzen duk –eta Ibanek asfaltoa han eta hemen zulatuta eta alde guztietan zartatuta zuen eta tontorretik behera ondo-ondoan igarotzen zen errepidetxoaren zati bat seinalatu zuen.

—Asfaltoa ez zaidak gustatzen –errepikatu zuen Ibanek–. Landa arteko bideetan nahi dituan erokeria guztiak egin hitzake, baina asfaltoa ez zaidak gustatzen.

—Egon bost minutu –erantzun zion Miltonek bare eta txaleterantz egin zuen, besteak putz eginez orpoen gainean kukubilko jarri eta Sten metrailadorea izterrean pausaturik errepidea eta maldako bidetxoak zaintzen zituen bitartean. Kideari azkeneko begiratu bat egin zion–. Hori ibilera, ordea! Hilabete hauetan guztietan inoiz ez dut ikusi horrela ibiltzen, arrautzak zapaltzen balebil bezala.

Milton itsusia zen: handia, iharra, konkortua. Azala trinkoa eta zurbil-zurbila zuen, baina argiaren edo umorearen aldaketarik txikienarekin ilundu zekiokeen. Hogeita bi urterekin, dagoeneko bi zimur sakon zituen ahoaren alde banatan, eta bekokia zimur sako-

nez betea, ia denbora guztian bekozko iluna edukitzeko ohituragatik. Ilea gaztaina kolorekoa zuen, baina hilabete askotako euriak eta hautsak horitasun mailarik apaleneraino jaitsia zioten. Begiak, tristeak eta ironikoak, gogorrak eta irrikatsuak, jaierarik gutxieneko neskak ohargarritzat joko zituzkeenak, hori baizik ez zuen bere alde. Hanka luze meheak zituen, zaldi-hankak, pauso luze, bizkor, dotorea egiteko balio ziotenak.

Itxitura igaro zuen; ez zuen kirrinka egin, eta hirugarren gereziondoaren pareraino joan zen bidezidorrean aurrera. Bai gerezi ederrak berrogeita biko udaberrikoak. Fulvia bientzat biltzeko igo zen arbolara. Fulviak ezin agortuzko hornidura zuela zirudien egiazko Suitzako txokolate haren ondoren jateko. Mari-mutiko baten moduan igo zen, esaten zuenez ikusgarrienak omen zeudenak biltzeko; oso-oso sendoa ez zirudien albo-adar batetik aurrera ere igo zen. Saskia betea zuen dagoeneko, baina ez zen jaisten, enborrera ere ez zen gerturatzen. Burutik pasatu ere egin zitzaion Fulvia nahita ez ari ote zen luzatzen, bera azpiraxeago etorri eta azpitik begiratu bat egin ziezaion. Horren ordez, ordea, pauso batzuk atzeratu zen, ilepuntak izozturik eta ezpainak ikaraz zituela.

—Jaitsi. Nahikoa da, jaitsi. Oraintxe bertan jaisten ez bazara, ez dut bat bera ere jango. Jaitsi edo itxitura atzean botako dut saski osoa. Jaitsi. Beldurrak airean naukazu.

Fulviak algara egin zuen, nabarmen samar, eta txori bat hegan abiatu zen azkeneko gereziondoaren goreneko adarretatik.

Pauso arin-arinez jarraitu zuen etxe alderantz, baina berehalaxe gelditu eta gereziondoetarantz itzuli zen. «Nola ahaztu dut baina?», pentsatu zuen oso asaldatuta. Hantxe, azkeneko gereziondoaren parean

gertatu baitzen. Fulviak bidexka gurutzatu eta gereziondoez haraindiko belardian sartu zen. Eta etzan egin zen, zuriz jantzita egon arren eta belarra dagoneko epel ez bazegoen ere. Garondoa eta txirikordak ahurretan bildu eta eguzkiari begiratzen zion. Baina berak belardian sartzeko keinua egin zuenez, ez sartzeko oihu egin zion.

—Egon hortxe. Etzan gereziondoaren enborraren kontra. Honela. –Eta gero, eguzkiari begiratuz, esan zion–: Itsusia zara.

Miltonek begiez baietz egin zion eta Fulviak jarraitu zuen:

—Begi zoragarriak dituzu, ahoa ederra, eskuak polit-politak baina, dena batera hartuta, itsusia zara. –Burua ozta-ozta mutilarengana biratu, eta esan zuen–: Baina hain itsusia ere ez zara. Nola esan dezakete itsusia zarela? Esaten dute… esateagatik.

Baina geroago esan zuen, ahots beheran, baina mutilak seguru entzun ziezaion:

—*Hieme et aestate, prope et procul, usque, dum vivam*… Ai, Jaungoiko maite handia, erakuts iezadazu, unetxo batez besterik ez bada ere, hodeitxo haren zurietan, hori esango diodan gizonaren soslaia. –Eta, burua Miltonengana biraturik, esan zion:

—Nola hasiko duzu hurrengo eskutitza? Fulvia, nire zigorra?

Miltonek burua astindu eta gereziondoaren azalaren kontra igurtzi zuen ilea. Fulvia kezkatu egin zen.

—Hurrengo gutunik ez dela izango esan nahi duzu?

—Ez dudala hasiko Fulvia, nire zigorra esanez, besterik ez. Gutunengatik ez izan beldurrik. Konturatzen naiz. Gutunik gabe ezin dugu. Nik idatzi gabe eta zuk jaso gabe.

Fulviak behartu zuen gutunak idaztera, txaletera gonbidatu zuen lehenengo aldiaren bukaeran. Deep Purple-n bertsoak itzultzeko deitu zion[1]. «Arrats beherako eguzki-sarrerari buruz da, nik uste» esan zion. Disko oso-osoa itzuli zion, xehetasun txikieneraino. Fulviak zigarroak eta suitzar txokolatezko tableta haietako bat eman zizkion. Itxituraraino lagundu zion.

—Ikusiko zaitut bihar goizean, Albara jaisten zarenean? –galdetu zion Miltonek.

—Ez, ezta pentsatu ere.

—Baina goizero joaten zara-eta –azaldu zion–, eta kafetegi guztietatik igarotzen zara.

—Ezta pentsatu ere. Zu eta ni hirian ez gaude gure saltsan.

—Eta hona etor naiteke berriro?

—Etorri beharko duzu.

—Noiz?

—Astebete barru, zehatz-zehatz.

Milton izatekoari zalantza sartu zitzaion epe haren neurrigabetasunaren, mugagabetasunaren aurrean. Nola zitekeen, ordea, Fulviak hain arinki erabakitzea?

—Astebete barrurako, beraz, hitzordua, zehatz-zehatz. Baina, bien bitartean, zuk idatzi.

—Gutun bat?

—Bai, gutuna. Idatz iezadazu gauez.

—Bai, baina nolako gutuna?

—Gutun bat.

Eta halaxe egin zuen Miltonek, eta bigarren topaketan Fulviak esan zion oso ongi idazten zuela.

---

1 [Ohar guztiak itzultzailearenak dira] Bistan da ezin daitekeela izen bereko rock taldearen aipamena izan. 1930 ondoko urteetan zabaldu eta idazlearen emazteari ere asko gustatzen zitzaion Nino Tempo eta April Stevens-ek Peter DeRose-ren musikarekin idatzitako abesti baten aipamena da.

—Hainbestean…

—Zoragarri, neuk esaten dizut. Badakizu zer egingo dudan Turinera noan hurrengoan? Kutxatxo bat erosiko dut zure gutunak gordetzeko. Denak gordeko ditut, eta inork ez ditu inoiz ikusiko. Nire bilobek beharbada, nire adina dutenean.

Eta Miltonek ezin izan zuen ezer esan, Fulviaren bilobak bereak ere ez izateko zegoen aukera izugarriaren itzalak estuturik.

—Nola hasiko duzu hurrengo gutuna? –jarraitu zuen Fulviak–. Hau «Fulvia miraria» esanez hasten zen. Mirarizkoa naiz benetan?

—Ez, ez zara mirarizkoa.

—A, ez naiz, hortaz?

—Miraria bera zara zu.

—Zuk, zuk, zuk –hasi zen Fulvia– baduzu hitzak aukeratzeko modu bat… Oraintxe bertan, esate baterako, mirari hitza lehenengo aldiz entzungo banu bezala izan da.

—Ez da harritzekoa. Zu izan arte ez zen miraririk.

—Gezurti! –xuxurlatu zuen Fulviak handik une batera–. Begira zein eguzki zoragarria! –Eta bat-batean jaikirik, bidexkaren ertzera joan zen korrika, eguzkiaren aurrez aurre.

Orain, Miltonen begirada beheratuak Fulviaren aspaldiko ibili hura gogoratzen zuen, baina mugara iritsi baino lehen abiagunera itzuli zen berriro, azkeneko gereziondora. Zein itsustuta eta zahartuta zegoen. Ikaratan zegoen, eta lotsarik gabe tanta-jarioan, zeru zurixkaren kontra.

Gero bere onera itzuli eta astun samar sarrerako ataritxo aurreko zabaldiraino iritsi zen. Legarra nahastuta zegoen hosto beratuekin, Fulviaz urrunduta igarotako bi udazkenetako hostoekin. Hantxe

egoten zen hura ia beti irakurtzen, arku nagusiaren babesean, kuxin gorriekiko zumezko besaulki handian bildu-bildurik. *Kapela berdea, Elsa andereñoa, Albertine desagertua*… irakurtzen zituen. Liburu haiek bihotzean zizta egiten zioten, Fulviaren eskuetan ikusita. Gorroto zien, madarikatu egiten zituen Proust, Schnitzler, Michael Arlen. Geroago, ordea, liburu haiek baztertzen ikasi zuen Fulviak; aski zituen, itxuraz, Miltonek etengabe itzultzen zizkion olerkiak eta kondairak.

Lehenengoan *Evelyn Hope*-ren itzulpena eraman zion.

—Niretzat? –galdetu zion Fulviak.

—Zuretzat, bakar-bakarrik.

—Zergatik niretzat?

—Zeren… zer pena gauza hauen zalea ez bazara.

—Niregatik pena?

—Ez, niregatik pena.

—Eta zer da hau?

—*Beautiful Evelyn Hope is dead / Sit and watch by her side an hour*.

Bukatzerako begietan distira zuen, baina nahiago izan zuen itzultzailea miresten hastea.

—Zeuk itzuli duzu benetan? Sekulakoa zara, hortaz. Eta gauza alairik ez duzu inoiz itzultzen?

—Inoiz ez.

—Zergatik?

—Ikusi ere ez ditut inoiz egiten. Gauza alaiek ihes egiten didate, nik uste.

Hurrengoan Poeren kontakizun bat eraman zion.

—Zertaz da?

—*Of my love, of my lost love, of my lost love Morella*.

—Gaur gauean irakurriko dut.

—Bi gauetan itzuli dut.

—Berandutxo ez zera ibiltzen gauetan?

—Behartuta nago, nolanahi ere –erantzun zion Miltonek–. Gaurik ez da alarmaren bat ez denik, eta UNPAn[2] nago.

Fulviak algara bat bota zuen.

—UNPAn! UNPAn zaudela? Hori ez zenidan esan behar. Barregarriegia da. Boluntario UNPAn, besoko zapi hori-urdinarekin!

—Besoko zapiarekin bai, baina boluntario, hori bai ezetz! Federazioan sarrarazi gaituzte, eta alarma batean huts egiten baduzu, hurrengo egunean etxean dituzu guardiak. Giorgio ere UNPAn dago.

Baina Giorgiorengatik Fulviak ez zuen barre egin, bere barregura guztiak Miltonen gain isuriak zituelako beharbada.

Giorgio Clericik eman zion, izan ere, Fulviaren ezaguera gimnasioan, saskibaloi-partida baten ondoren. Aldageletatik ateratzen ari ziren, eta hantxe topatu zuen, algen artean ezkutatutako perla baten gisan, sakabanatzen ari ziren ikusleen artean.

—Hona Fulvia. Hamasei urte. Turindik hegazkinen bonbardaketen beldurrez ebakuatua, egia esateko bonbardaketak jostagarriak iruditzen zitzaizkion arren. Orain hemen bizi da, mendi aldean, notarioarena zen txaletean… eta abar eta abar. Fulviak Ameriketako disko pila bat dauka. Fulvia, hau kristorena da ingelesez.

---

2 Unione Nazionale Protezione Antiaerea, Hegazkinen Kontrako Babeserako Batasun Nazionala. Italiako gazte guztiak behartuta zeuden txandaka erakunde horretan zerbitzatzera. Horiek zuten, etxaldeko buruekin batera («etxaldeko buruak», nork ordaintzen zien zehazki inork ez zekien –Barne Arazoetako Ministerioaren Funts Ilunek, inondik ere–, baina faxisten garaian, izatez, herritarrak zelatatzeko eta kontrolatzeko ardura zutenak izaten ziren; salatari-sistema, labur esanda), herritarrei lehenengo laguntza eskaintzeko eta, Aliatuen aldetik bonbardaketaren bat izanez gero, suteak itzaltzeko ardura (garai bereko beste aipamen literario bat nahi izanez gero, ikus Italo Calvinoren Le notti dell'Unpa).

Bukaeran baizik ez zituen jaso Fulviak begiak Miltonengana, eta haren begiek garbi erakusten zuten kristorena ez beste edozer izan zitekeela Milton.

Miltonek eskuak aurpegiaren kontra estutu zituen, eta iluntasun hartan Fulviaren begiak berriro ikusten ahalegindu zen. Azkenean eskuak jaitsi eta hasperen egin zuen, ahaleginak eta haiek ez gogoratzeko beldurrak akiturik. Hurraren kolorekoak ziren, beroak, urrezko hariekin.

Burua mendi gailurrerantz biratu zuen, eta Ibanen zati bat ikusi zuen, kokoriko eta malda luze, katramilatsuari begira.

Ataritxoraino iritsi zen.

—Fulvia, Fulvia, maitea. –Haren ate aurrean, hainbeste hilabeteren buruan lehenengo aldiz iruditzen zitzaion ez zela haizeari hitz egiten ari–. Lehengo berbera naiz, Fulvia. Hainbeste gauza egin ditut, hainbeste ibili naiz… Esetsi eta esesle. Inoiz baino biziago sentitu naiz, eta hilik ikusi dut nire burua. Barre egin dut, eta baita negar ere. Gizon bat hil dut, bero-beroan. Asko ikusi ditut hiltzen, hotzean. Baina lehengo berbera naiz.

Txaletaren inguruko espaloiaren alde batetik pauso batzuk entzun zituen hurbiltzen. Miltonek fusil amerikarra bizkarrera jaso zuen; baina, astunak baziren ere, emakumeren baten pausoak ziren.

2

Etxezainak kantoitik zelatatu zuen.

—Partisano bat! Zer nahi duzu? Noren bila zabiltza? Baina zu…

—Bai, ni naiz –esan zuen Miltonek, irribarrerik egin gabe, etxezaina hain zahartuta ikusirik txunditueg i. Gorputza potoloagoa zuen, aurpegia zurbilagoa, eta ile guztia zuria.

—Andereñoaren laguna –esan zuen emakumeak, kantoiko babesetik irtenda–. Lagunetako bat. Fulvia ez dago, Turinera itzuli zen.

—Badakit.

—Urtebete baino gehiago da alde egin zuela, zuek, mutilek, zuen gerra hau abiarazi zenutenean.

—Badakit. Geroztik haren berririk izan duzu?

—Fulviarenik? –burua astindu zuen–. Idatziko zidala agindu zidan, baina ez dit inoiz idatzi. Baina zain nago, hala ere, eta egun batean edo bestean jasoko dut.

«Emakume honek –pentsatzen zuen Miltonek hari begira, durduzaz–, atso honek, ezer ez den ema-

kume honek, Fulviaren gutun bat jasoko du. Haren berriekin, agurrarekin eta sinadurarekin.

Honela sinatzen zuen: Full Vila berari idazten zionean behintzat.

—Baliteke dagoeneko idatzi eta gutuna bidean galdu izana – begiak beheratu eta jarraitu zuen–: Fulvia oso jatorra zen. Odolberoa, apetatsua beharbada, baina oso jatorra.

—Bai horixe.

—Eta ederra, oso ederra.

Miltonek ez zion erantzun, beheko ezpaina luzatu, hori besterik ez. Mina jaso eta hari eusteko modu bat zuen hori; Fulviaren edertasunak min egiten zion beti, beste ezer baino gehiago.

Etxezainak zehar begiratu bat egin zion eta esan zuen:

—Eta oraindik hemezortzi urte ez dituela pentsatzea ere. Orduan hamasei, ozta-ozta.

—Mesede bat eskatu behar dizut. Etxea berriro ikusten utzi –ahotsa lakarra ateratzen zitzaion, nahi gabe, kirri-karra egingo balio bezala ia–. Ezin duzu pentsatu ere egin… zenbat lagunduko lidakeen.

—Bai horixe –erantzun zion emakumeak, eskuak bihurrituz.

—Utz iezadazu gure gela ikusten bakarrik. –Ahotsa eztitzen saiatu zen, baina ez zuen lortu–. Bi minutu baino gehiago ez dizut kenduko.

—Bai horixe.

Barrutik zabalduko ziola; horretarako txaleta inguratu behar zuen; izateko pazientzia.

—Eta nekazariaren semeari esango diot ateratzeko larrainera eta zelatatzeko pixka batean.

—Beste alde hartatik, mesedez. Alde honetatik bada nire lagun bat zaintzen.

—Bakarrik zeundela uste nuen –berriro kezkatzen hasita.

—Bakarrik banengo bezala.

Etxezaina etxe-kantoian ezkutatu zen eta Milton zabaldira atera zen.

Txalo batzuk egin zituen Ibanen alderantz eta eskua zabalik erakutsi zion. Bost minutu, itxaroteko bost minutu. Ondoren zerura begiratu zuen zeharka, egun zoragarri hartatik gogoratzeko beste gai bat edukitzeko. Itsaso gris haren gainean hodei beltzaxkazko ontzidi bat herrestatzen zen mendebalderantz, hodei zuri bakan batzuei brankaz eraso eta mila puskatan deseginez. Haize-bafada batek zuhaitzak astindu zituen eta tanten errepikak dilinka egiten zuen legarretan.

Bihotza taupaka hasi zitzaion eta kolpetik lehortu zitzaizkion ezpainak. Atetik *Over the Rainbow* musika iragazten zela entzuten zuen. Disko huraxe zen Fulviari egin zion lehenengo oparia. Hura erosi ondoren hiru egun egin zituen tabakorik erre gabe. Bere ama alargunak egunean lira bat ematen zion, eta berak zigarrotan gastatzen zuen dena. Diskoa eraman zion egunean, hogeita zortzi aldiz jarri zuten.

—Gustatzen zaizu? –galdetu zion, kuzkurtuta, kezkaz herabetuta, zeren galdera egokiak beste era batekoa izan beharko baitzukeen–: Maite duzu?

—Ikusten duzu berriro jartzen dudala –erantzun zion Fulviak. Eta ondoren–: Erotzeraino gustatzen zait. Bukatzen denean, egiaz zerbait bukatu dela sentitzen duzu.

Eta handik aste batzuetara:

—Fulvia, baduzu gogokoen duzun abestiren bat?

—Ez da erraza asmatzen. Baditut hiru edo lau.

—Ez da…?

—Litekeena, baina ez!, oso-oso polita da, ikaragarri gustatzen zait, baina baditut beste hiru edo lau.

Bazetorren etxezaina, haren oinpean oholtzak kirrinka berezi bat egiten zuen, zirtakatze gorrotozko, gaizto batez. Esnatu zutelako haserre balego bezala, imajinatu zuen Miltonek. Atarian oinetako lokaztuak bata bestearen ondoren eskailera mailaren ertzean garbitzen presakatu zen. Emakumea argiaren etengailua zapaldu eta sarrailari eragiten ari zela entzun zuen. Bera oinetakoak garbitzen ari zen oraindik.

Atea erdi zabaldu zen.

—Sartu, sartu horrelaxe, sartu bizkor.

—Zorua…

—Ba! zorua –esan zuen emakumeak, halako gozotasun etsi gisako batez. Baina bukatzen utzi zion, marmarka zioela–: Euri asko egin du eta, nekazariak dioenez, gehiago egin behar omen du oraindik. Nire bizitza guztian ez dut ikusi honen azaro euritsurik. Zuek, partisanoak, beti kanpoan zabiltzatela, nola moldatzen zarete lehortzeko?

—Jantziak soinean ditugula –erantzun zion Miltonek, barrura begiratzen oraindik ere ausartu gabe.

—Nahikoa da, sartu, sartu horrelaxe.

Emakumeak sabaiko lanparako argi bat baizik ez zuen piztu. Argia distirarik eragin gabe erortzen zen marketeriazko mahai gainera eta inguruko itzaletan argi ilaun bat zabaltzen zuten besaulkien eta sofaren azal zuriek.

—Ez zaizu iruditzen hilobi batean sartzea bezala dela?

Miltonek barretxo ergel bat egin zuen, oso gogoeta serio bat mozorrotu behar duenak egin ohi duen bezala. Ezin zion esan, jakina, munduko leku-

rik argitsuena zela hura beretzat, bizitza edo bizitzara itzultzea zegoela han beretzat.

—Beldurra dut… –hasi zen soseguz emakumea.

Ez zion axola, entzun ere ez zion egin, beharbada; berriro ikusten zuen Fulvia, bere besaulkiko txoko gogokoenean, burua makur samar, txirikordetako bat, distiraz, astun, zintzilik zuela. Eta bere burua ere ikusten zuen, beste aldeko txokoan eserita, hanka mehe luzeak zabal-zabal luzatuta, ordutan eta ordutan hitz egiten, eta Fulvia hain adi non arnasa ere ozta-ozta hartzen baitzuen, begirada ia beti Miltonengandik urruti zuela. Segituan betetzen zitzaizkion begiak malkoz. Eta ia eutsi ezin zienean, orduan burua alde batera makurtzen zuen, bere baitaratzen zen, senetik ateratzen zen.

—Aski da. Ez esan gehiago. Negar eragiten didazu. Zure hitz eder horiek negar eragiteko besterik ez dute balio, ez dute besterik lortzen. Gaiztoa zara. Negarrez ikusteko hitz egiten didazu horrela, horretarako bilatzen eta planteatzen dituzu arrazoibide horiek. Ez, ez zara gaiztoa. Baina tristea zara. Tristea baino okerrago, goibela zara. Zuk ere negar egingo bazenu behintzat. Tristea eta itsusia zara. Eta ez dut triste bihurtu nahi, zu bezala. Ni polita eta alaia naiz. Nintzen.

—Beldur naiz –esaten zuen etxezainak– gerra bukatzen denean Fulvia ez dela gehiago etorriko.

—Etorriko da.

—Poztuko nintzateke, baina beldur naiz ez dela etorriko. Gerra bukatu bezain laster aitak txaleta salduko du. Fulviarentzat erosi zuen soil-soilik, zegoen lekutik urruntzeko. Gaur egun inguruotan erostunik balitz saldua zukeen dagoeneko. Egia esateko, badut susmoa Fulvia ez dugula gehiago ikusiko mendialde honetan. Itsasora joango da, gerra aurretik udan ohi

zuen bezala. Izan ere, itsasoak txoratu egiten du, eta askotan entzun izan diot Alassio aipatzen. Zu izan zara inoiz Alassion?

Inoiz izan gabea zen, eta ez zen fidatzen leku hartaz; une batez gorrotoa ere izan zion; itxaropena ere izan zuen Fulviak hara joateko modurik edo gogorik izango ez zuen egoera batean utziko ote zuen gerrak.

—Fulviaren gurasoek etxea dute Alassion. Malenkoniak hartuta edo aspertuta zegoenean itsasoaz eta Alassioz hitz egiten zuen beti.

—Etorriko da berriro, zaude ziur.

Tximiniaren ondoan, barreneko hormari atxikita zegoen mahaira joan zen. Zertxobait makurtu eta behatzaz Fulviaren fonografoaren irudia marraztu zuen. *Over the Rainbow, Deep Purple, Covering the Waterfront,* Charlie Khuntz-en pianorako sonatak eta *Over the Rainbow, Over the Rainbow, Over the Rainbow*.

—Zenbat lan gramofono horrek –esan zuen emakumeak, eskua astinduz.

—Bai.

—Hemen asko dantzatzen zen, gehiegi. Eta dantza oso debekatuta zegoelarik, baita etxean ere. Gogoratzen zara zenbat aldiz esan behar izan nizuen ez egiteko zaratarik, kanpotik, maldan gora ere, entzuten zela-eta?

—Gogoratzen naiz, bai.

—Zuk, ordea, ez zenuen dantzan egiten. Ala oker nago?

Ez, ez zuen dantzarik egiten. Ez zen inoiz saiatu, ezta ikasteko ere. Besteei, Fulviari eta haren dantzalagunari begira egoten zen, diskoak aldatzen zituen eta korda ematen zion. Teknikari-lanak egiten zituen, labur esateko. Fulviak emana zen definizio hori.

«Esnatu, teknikaria! Gora teknikaria!»

Ez zuen ahots-tinbre atsegin-atsegin horietakoa, baina Milton prest zegoen harengatik gizadiaren eta izadiaren ahots guztiei entzungor egiteko. Fulviak oso-oso maiz egiten zuen dantzan Giorgio Clericirekin, baita bost edo sei disko segidan ere, tarteetan baizik askatu gabe. Giorgio Albako mutilik ederrena zen, eta baita aberatsena ere, eta dotoreena, horrenbestez. Alban ez zegoen Giorgio Clericiren lagun izateko egokitzen zen neskarik. Turindik Fulvia iritsi zen, eta bikote perfektua osatu zen. Giorgio ilehori ezti-kolorekoa zen, Fulvia ilebeltz kaoba-kolorekoa. Fulvia Giorgioren zale amorratua zen, dantzarako.

—*He dances divinely* –esaten zuen, eta Giorgiok hari buruz:

—Ezin esanezkoa da –eta Miltoni hitz eginez gehitzen zuen:

—Zeuk ere, hitzak asmatzen apartekoa zaren horrek, ez zenuke asmatuko…

Miltonek irribarre egiten zion, isilik, soseguz, seguru, ia errukiz.

Inoiz ez zuten hitz egiten, dantzan ari ziren bitartean. Giorgiok Fulviarekin dantza egiten bazuen ere, egin behar eta egin ahal zuen apurtxo hura egiten bazuen ere. Behin baizik ez zen haserretu, Fulviari *Over the Rainbow* dantzarako musiken sailetik kentzea ahaztu zitzaion batean. Etenaldi batean ohartarazi zion, eta Fulviak segituan begiak beheratu eta xuxurlaka esan zuen:

—Arrazoia duzu.

Baina behin, bakarrik zeudela, Fulviak fonografoa bere eskuz kargatu eta *Over the Rainbow* jarri zuen.

—Ea, egin ezazu dantza nirekin.

Miltonek ezetz esan zion, oihuka beharbada.

—Ikasi egin behar duzu, nahita ez. Nirekin, niregatik. Animo.

—Ez dut ikasi nahi… zurekin.

Baina helduta zeukan ordurako, libre zegoen lekura zeraman, eta eraman bitartean dantza egiten zuen.

—Ez! –ihardetsi zion Miltonek, baina hain zegoen nahastuta non ez baitzuen asmatzen ere nola askatu harengandik–. Eta abesti horrekin are gutxiago!

Baina Fulviak ez zuen askatzen, eta Miltonek kontuz ibili behar izan zuen estropezu egin eta gainera ez erortzeko.

—Ikasi egin behar duzu –esan zion Fulviak–. Nik nahi dut. Zurekin dantza egin nahi dut, ulertzen? Aspertuta nago ezer esaten ez didaten mutilekin dantzatzez. Ezin dut zurekin inoiz dantza egin gabe geratu.

Ondoren, bat-batean, Milton amore ematen ari zen une-unean, utzi egin zuen, besoez haren gorputza indar handiz bultzatuz.

—Zoaz Libiara han hiltzera –esan zion berriro sofara itzulirik–. Hipopotamo bat zara, hipopotamo argal bat.

Baina handik une batera Fulviaren eskua bizkarra ukitzen sentitu zuen, eta haren hatsa garondoan.

—Benetan, Milton, gehixeago saiatu beharko zenuke bizkarra zuzen edukitzen. Makurtuegi zabiltza, makurtuegi. Zuzendu bizkarra, benetan. Gogoratu gehiagotan, bai? Eta orain goazen berriro esertzera, eta hitz egin iezadazu.

Liburuen altzarirantz joan zen, beiren distira motelak erakarririk. Lehendik ere ikusia zuen ia hutsik zegoela, hamarren bat liburu ahaztu, baztertu, gehienera ere. Apaletarantz makurtu zen, baina segituan zutitu zen berriro, sabelean ukabilkada bat hartu eta kontrako efektuaz bezala. Zurbilduta zegoen eta arnasa falta zitzaion. Bertan behera utzitako liburu haien

artean *d´Urbervilletarreneko Tess* ikusi zuen, berak hamabost egunez sosik gabe geratuta Fulviari oparitutakoa.

—Nork aukeratu zuen zein liburu eraman eta zein utzi? Fulviak?

—Fulviak, bai.

—Fulviak berak?

—Bai –esan zuen etxezainak–. Liburuak Fulviari baizik ez zitzaizkion interesatzen. Berak hartu eta paketatu zituen. Baina gramofonoaz eta diskoez arduratu zen batez ere. Liburuak, batzuk utzi zituen, ikusten duzunez, baina diskorik batere ez.

Atean Ibanen burua agertu zen. Biribila, zurbila eta bereizia, ilargi bat bailitzan.

—Zer gertatzen da? –galdetu zuen Miltonek–. Igotzen ari dira?

—Ez, baina goazen hemendik. Bada ordua.

—Beste bi minutu.

Ibanek imintzio bat eginez eta hasperen batez ezkutatu zuen burua.

—Barka iezadazu zuk ere beste minutu pare bat. Ez dizut berriro traba egingo, gerra bukatu arte ez naiz berriro azalduko.

Emakumeak besoak luzatu zituen.

—Besterik behar zen. Arriskurik ez bada, behintzat. Oso ongi gogoratzen zintudan. Ikusi duzu segituan nola ezagutu zaitudan? Eta esango dizut… pozik hartzen zintudan, andereñoa ikustera etortzen zinenean. Zu pozikago gainerako lagunak baino. Zu gusturago Clerici bera baino, egia esango badizut. Eta hortaz ari garenez, Clerici ez dut gehiago ikusi. Partisano dabil hura ere?

—Bai, elkarrekin gaude. Elkarrekin egon gara denbora guztian, baina azken aldi honetan beste bri-

gada batera aldatu naute. Baina zergatik diozu Giorgio baino ni nahiago ninduzula? Bisitari gisa, alegia.

Etxezainak zalantza egin zuen, lehen esandakoa ezabatzeko edo, gutxienez, arintzeko-edo.

—Esan, esan –esan zion Miltonek, gorputzean kirio guztiak tinkatzen zitzaizkiola.

—Ez diozu kontatuko Clericiri ikusten duzunean?

—Zuk uste duzu?

—Clerici mutil horrek –esan zuen orduan– urduri jartzen ninduen, haserretu egiten ninduen. Zuri esaten dizut zuri estimua dizudalako, hain aurpegi serioa duzu, barka iezadazu esaten badizut inoiz ez dudala horren aurpegi serioko mutilik ikusi. Ulertzen didazu. Nik ez nuen axolarik, txaletaren etxezaina baizik ez nintzen, baina Fulviaren amak, hona lagundu zionean, eskatu zidan, erregutu zidan…

—Zaintzeko pixka bat –iradoki zion Miltonek.

—Horra, hitza gogortxoa ez bada. Beraz, adi samar egon behar nuen ea zer gertatzen zen neskaren inguruan. Ulertzen didazu. Zurekin lasai egoten nintzen, oso lasai. Hizketan egoten zineten beti, ordutan. Edo, hobeto esanda, zuk hitz egin eta Fulviak entzun. Ez al da egia?

—Egia da. Egia zen.

—Giorgio Clericirekin, berriz…

—Bai –esan zuen Miltonek ahoa lehorrik.

—Azken aldian, azkeneko udan alegia, 43ko udan, zu soldaduskan zeunden, uste dut.

—Bai.

—Azken aldian maizegi etortzen zen, gauez ia beti. Niri ordu horiek ez zitzaizkidan batere gustatzen, egia esateko. Lineako autoan etortzen zen beti. Gogoratzen zara beti udaletxearen aurrean gelditzen zen

hartaz? Auto beltz eder hura, gasogeno-instalazio barregarri harekin?

—Bai.

Emakumeak burua batera eta bestera mugitu zuen.

—Haiei inoiz ez nien hitz egiten entzun. Ezkutuka entzuten nien, ez naiz lotsatzen esanez, obligazioz entzuten nien. Baina isiltasuna izaten zen beti, ez baleude bezala ia. Eta ni ez nintzen batere lasai egoten. Baina, mesedez, ez iezazkiozu gauza hauek zure lagunari kontatu. Berandutzen hasi ziren, geroz eta beranduago. Beti hemen kanpoan geratu izan balira behintzat, gerezien pean, ez nintzatekeen hainbeste kezkatuko. Baina paseatzera joaten hasi ziren. Muinoaren gailurrerantz jotzen zuten.

—Norantz? Norantz ateratzen ziren?

—Ba, behin hemendik, hurrena handik, baina errekarantz jotzen zuten maizenik. Mendixka honek erreka markatzen duen lekua, badakizu.

—Ongi.

—Ni zain geratzen nintzen, noski, baina geroz eta beranduago etxeratzen ziren.

—Zein ordutan izaten zen?

—Gauerdian ere bai. Fulviari zerbait esan beharko niokeen.

Miltonek astindu bortitz bat egin zuen buruaz.

—Esan beharko niokeen –esan zuen emakumeak– baina ez nintzen ausartu. Lotsa ematen zidan, adinez genuen aldeagatik nire alaba ere izan zitekeen arren. Harik eta arrats batean, gau batean hobeto esanda, bakarrik itzuli zen arte. Inoiz ez dut jakin Giorgiok zergatik ez zion lagundu. Oso berandu zen, gauerdia pasa. Muino osoan kilker bat ez zen entzuten, gogoan dut.

—Milton –egin zuen ziztu Ivanek kanpotik.

Biratu ere ez zen egin, masailen gorenean uzkurtze bat izan zuen, besterik ez.

—Eta gero?

—Zer gero? –galdetu zion etxezainak.

—Fulvia eta… hura?

—Giorgio ez zen inoiz azaltzen txaletean. Baina Fulvia ateratzen zen. Hitzordua jartzen zuten. Giorgiok hemendik berrogeita hamar metrora itxaroten zion, landare-hesiaren kontra, ezkutatzeko. Baina ni adi egoten nintzen eta ikusi egiten nuen; ile horiak salatzen zuen. Gau haietan berebiziko distira zuen ilargiak.

—Eta noiz arte hori?

—A, azkeneko irailaren hasiera arte. Gero armistizioaren eta alemanen desastrea etorri zen. Gero Fulviak aitarekin alde egin zuen. Eta ni, nahitasuna hartu banion ere, poztu egin nintzen. Urduriegi nengoen. Ez dut esaten ezer txarrik egin zutenik…

Hantxe zegoen, ikara batean bere uniforme kakiaz, fusilak bizkarrean dardara egiten ziola, aurpegia gris, ahoa erdi zabalik, eta mingaina lodi eta lehor. Eztulaldi baten itxura egin zuen, ahotsa oneratzeko astia izateko.

—Esadazu, noiz alde egin zuen Fulviak zehazki?

—Irailaren 12an, hain juxtu. Aita ohartuta zegoen dagoeneko landa aldea arriskutsuagoa bilakatuko zela hiri handia baino.

—Irailaren 12an –errepikatu zuen Miltonek.

Eta bera, non zegoen bera 1943ko irailaren hamabian?

Berebiziko ahalegina eginez gogoratu zuen. Livornon, geltokiko komunetan babes hartuta, hiru egunetan jan gabe, limosnaz hartutako jantziz estalia. Gosearen gosez eta komuneko aire gaiztoagatik ia ko-

nortea galtzeko zorian, korridorera agertu eta brageta ixten ari zen makinista harekin topo egin zuen.

—Nondik hator, soldadua –xuxurlatu zion.

—Erromatik.

—Eta non duk etxea?

—Piamonten.

—Turinen?

—Inguruan.

—Ongi, nik Genoaraino eraman hazaket. Ordu erdi barru abiatuko gaituk, baina oraintxe bertan ezkutatuko haut ikaztokian. Inporta zait gero tximiniagarbitzailearen itxura izatea?

—Milton! –deitu zion berriro Ivanek, baina lehen baino larritasun gutxiagoz, baina etxezainak beste beldur-zarrastada bat izan zuen.

—Hobe duzu alde egitea, badakizu? Beldurtzen hasia naiz neu ere.

Milton pentsatu ere gabe biratu eta atera ondoratu zen. Emakume hura behar bezala agurtu beharrak eginkizun lehergarri bat bailitzan zanpatzen zuen. Begiak itxi eta esan zuen:

—Oso adeitsua izan zara. Areago, ausarta ere bai. Mila esker denagatik.

—Ez da ezer. Poza eman dit zu berriro ikusteak, aldean arma horiek denak badituzu ere.

Miltonek azken begiratu bat egin zion Fulviaren gelari; inspirazio eta indar bila etorri eta biluzik eta lur jota ateratzen zen.

—Mila esker berriro. Denagatik. Eta itxi atea bizkor-bizkor.

—Arrisku handitan zabiltzate, ezta? –galdetu zion berriro emakumeak.

—Ez, ez arrisku handitan –erantzun zion Miltonek, fusila bizkarrean ongi pausatuz–. Orain arte suertea izan dugu, suerte handia.

—Ea bukaeraraino irauten dizuen… Eta… egia al da azkenean zuek gailenduko zaretela?

—Bai, egia da –erantzun zion zurbil, eta lasterka abiatu zen gereziondoen arteko bidetik, eta ziztu batean igaro zen Ivanen ondotik.

3

Seiak inguruan itzuli ziren Treisora. Errepidea oinpean ezabatzen zitzaien eta azkeneko argi-uneek baziruditen euriak maldetan finkarazita zeuzkan elur grisezko mulko batzuetan kontzentratzen zirela.

Hala ere urrutitik ezagutu zituen zentinelak eta beren izenez deituz irristatu zen haiengana kontrol-postuko langapetik. Hamabost urte ozta-ozta zituen mutikoa zen; Gilera zuen izena, lodia eta sendoa zen, bere mosketoia baino ez askoz garaiagoa.

Iristen ari ziren. Kanpandorrean seiak jo zuten, besteetan ez bezalako doinu batez Miltonentzat. Iristen ari ziren.

Erabateko hezetasun hartan herriko ukuiluetatik inoiz ez bezalako kiratsa zerion, behien simaurra arrasto horixkatan barreiatzen zen. Iristen ari ziren. Milton Ivan baino hogeita hamarren pauso aurrerago zihoan, eta tente eta bizkor zebilen oraindik; besteaberriz, nekearen nekez zabuka.

—Milton –esan zion Gilerak–, zer ikusi duzue interesgarririk Alban?

Erantzun gabe igaro zitzaion ondotik eta bizkor abiatu zen eskolarantz, herriaren erdian, han baitzegoen Leo, brigadako komandantea.

—Gilera –esan zuen Ivanek arnasestuka–, badakizu zer dugun afarirako?

—Bai, galdetu dut. Haragia eta eskutada bat hur. Ogia atzokoa da.

Ivanek errepidea gurutzatu zuen eta herriko baskularen etxola jotzen zegoen enborraren gainean eseri zen. Burua hormaren kontra pausatu eta kulunkatzen hasi zen. Igeltsua ezkatatan hausten zen eta zahiz estaltzen zion burua.

—Zer duzu, Ivan, horren arnasestuka ibiltzeko?

—Miltonen erruz –erantzun zion Ivanek–. Milton errepideetako hiltzaile bat da. Ehunean itzuli gara.

Mutikoa urduri jarri zen.

—Atzetik zenituzten?

—Baita zera ere. Atzetik izan bagenitu, ez ginateke hainbeste estutuko, egon seguru.

—Hortaz, zer?

—Hortaz, utz nazazu bakean –esan zion Ivanek, zakar.

Itzulera hura ezin zuen kontatu Miltonen jokaera guztiz bitxi, zentzugabea aipatu gabe. Gilerari kontatzen bazion, brigada osoan zabalduko zen, eta Miltonek ere jakingo zuen, zalantzarik gabe, eta ahakartu egingo zen berekin, Ivanekin. Ivanek, egia esan, oso ikasle gutxiri zion begiramena eta beldurra, baina Milton gutxi horien artean zegoen.

—Zer esan duzu? –galdetu zuen Gilerak, sinesgogor.

—Uzteko bakean.

Gilera haserre itzuli zen kontrol-postura eta Ivanek zigarro ingeles bat piztu zuen. Iraulka egitera

behartuko zuen eztulaldi bat espero zuen, baina ederki sartu zitzaion xurgada.

«Jaungoiko faxista! –madarikatu zuen bere baitarako–. Zer arraio gertatu ote zaio horri? Tximistaren moduan atera da etxe hartatik eta tximistaren moduan egin du bide guztia. Eta ni atzetik, barea lehertu beharrean, ezer ulertu ezinda eta bere zorira uzteko gauza ez nintzela. Utzi nezakeen, eta barea lehertu gabe itzuli».

Hesian bermaturik, Gilerak zeharka begiratzen zion, hanka batez lurrari ostikoka.

Ivanek beste alde batera biratu zuen burua. «Zer arraio gertatu zaio baina? Erotu egin da edo gutxi falta. Neurritsua izan da beti, neurritsua ere baino gehiago, hotza. Neu naiz lekuko. Leok berak ere burua galtzen zuenean ikusi izan dut bereari eusten. Oso mutil neurritsua. Baina ikaslea bera ere, eta ikasleak burutik nahastu samarrak daude denak. Plebeiook askoz ere zentratuagoak izaten gara beti».

Airean bibrazio bat izan zen eta tanta lodi bakanak erori ziren.

—Badator euria berriro –esan zuen ozen Ivanek.

Gilerak ez zion erantzun.

—Perretxiko bat sentitzen naiz –jarraitu zuen Ivanek–. Benetan, lizuna hazten zaidala sentitzen dut.

Gilerak soinak jaso eta aldapara begiratzen hasi zen. Une hartantxe zaparrada atertu zuen.

Ivan pentsatzen hasi zen berriro, zigarroa bizkor errez, behatzen artean usteldu baino lehen bukatzeko. «Ez dakit zer gertatu zaion, zer ikusi edo zer entzun duen aberats-etxe hartan. Auskalo zer esan dion atsoak?» Zigarrokina bota eta gogotik, amorruz hazka egin zuen buruan, belarrien gainean. «Atso zahar hori! Zer esan ote dio? Utzi zezakeen beste baterako, zein egoeratan gauden ikusita. Auskalo zer esan dion.

Neskaren bat badela esango nuke, hasteko –baina bien bitartean barre egiten zuen bere golkorako, sinesgogortasunez eta mespretxuz–. Bai, oraintxe une egokia neska batengatik burua galtzeko. Milton bezalako partisano serio batek. Neskak! Gaur! Barregura ematen dute. Nazka eta pena ematen dute. Nolanahi ere, seguru nago lehengo bizimoduari dagokion zerbait zela, eta gauza horietara itzultzeak kalte gehiago egiten du on baino. Oraingo bizimodu eta lan honekin, aise sartzen zaizu krisia. Lehengo gauzak gerorako, gerorako!»

—Haizea –adierazi zuen Gilerak, lasai, haserrea joanda.

—Bai –esan zuen Ivanek ahotsean halako esker on moduko bat zuela, eta enbor gainean makurtu zen, besoak gurutzatuta eta eskuak sorbaldan zituela.

Alba aldetik jotzen zuen, zabal, behe, trinko.

Gainera beste egintza larriago hura ere bazegoen, pentsatzen zuen Ivanek, San Rocco-ko zubi minatua. Okerragoa, Miltonek ez al zuen bada ia-ia igaro, zegoen bezain asaldatuta egonda? Eta minak zeudela landareek eta harriek ere bazekiten. Herrian sartu baino pixka bat lehenago Milton ehunen bat metro aldendu zen, eta bistatik galdu zuen zeharkako ezponda batek ezkutatzen ziolako.

Zubiaren beldurra ustekabean sartu zitzaion, eta orduan, bareko minak azala zulatzen bazion ere, Ivan aldapan gora bizkortu zen eta doi-doi iritsi zen gailurrera eta ikusi zuen Milton automata baten pauso gupidagabe eta itsuaz zihoala zubirantz. Kareletik hogei pausora zegoen. «Milton!» egin zion oihu, baina hura biratu ere ez. Garrasi batean ekin zion eta oraingoan, larritasunaren indarrari eta eskuak ahoaren inguruan turuta moduan jarrita egiten zuen anplifikazioari esker, aurreko muinotik ere entzun zuten.

Milton kolpetik gelditu zen, bala batek bizkarrean jo balu bezala. Geldiro biratu zen. Ezpondan zutik, Ivanek zubitxoa adierazi zion bizpahiru aldiz behatzaz, eta ondoren bekoki aurrean eskua astindu zuen. Zubia minatuta, erotuta zegoen? Miltonek buruaz baietz egin zuen azkenean, zubitik beherako aldapa jaitsi eta harri-ilara batetik igaro zuen erreka. Eta itxaron zion eskertzeko? Errekaren beste aldera igarota, segituan abiatu zen berriro bere ibilera bizkor hura, eta Sten-a hartu eta tiro-jasa bat botatzeko gogoa etorri zitzaion Ivani.

Ivan jarlekutik jaiki eta, eskuak ipurdian jarrita, galtza-barrenak higatuta baino areago xehatuta zeuzkala ohartu zen. Belarria herri erdirantz zolitu eta esan zuen:

—Zer da hileta hau? Gilera, beste guztiak?

—Ia denak errekan –erantzun zion mutilak berriro haserre-ahotsez–. Ikustekoa omen da nola hazi den.

—Esajerazioak –esan zuen Ivanek–. Miltonek eta biok orain bi ordu ikusi dugu Alban. Hazita dator, baina ez bereziki hazita.

—Inguruotan erreka estuagoa delako izango da, eta horregatik dirudi haziagoa.

—Ea ulertzen didazun –esan zuen Ivanek–. Nik ez dut nahi erreka ez hazterik. Nahiago nuke gainezka egingo balu ere. Horrela alde horretatik behintzat lasai egongo ginateke.

Pauso bortitz batzuk entzun ziren eta segituan geldialditxo bat eta Milton agertu zen ezpondaren gainean. Haize-bolada batek bete-betean jo zuen, mela-mela eginda zekarren uniformea mugitu gabe. Leoren bila zetorren; ez zuen aurkitu agintaritza-gunean.

—Hortxe egin du arratsalde osoa –erantzun zion Gilerak–. Zer nahi duzu nik jakitea? Medikuarenera joana izango da Londres Irratia entzutera. Bai, zoaz medikuarenera.

Bidean, irratsaioaren ordua eta iraupena kalkulatuz, Leo dagoeneko sendagilearenetik irtena izango zela kalkulatu zuen Miltonek eta agintaritza-gunera jo zuen zuzenean.

Leo iritsi berria zen, hain zuzen, karburo-lanpara piztu eta mokoa egokitzen ari zen.

Zutik zegoen katedraren atzean; huraxe zen, hain zuzen, bere lekuan zegoen altzari bakarra, gainerako aulki guztiak zokoetan pilatuta.

Miltonek atea igaro eta argigunearen ertzean geratu zen.

—Leo, baimena eman behar didak biharko. Egun erdiko baimena.

—Nora joan behar duk?

—Mangoraino bakarrik.

Leok bizkor-bizkor argitasuna handitu zuen.

Orain beren itzalek sabaia jotzen zuten gerriaz.

—Zer, hire lehengo brigada ez duk faltan emango bada? Ez nauk mutiko tropa honekin bakarrik utziko, ezta?

—Hago lasai, Leo. Esan nian gerra hirekin batera bukatzeko sinatuko nuela. Emandako hitza beteko diat. Joan-etorri bat Mangora, batekin hitz egiteko.

—Ezagutzen diat?

—Giorgio. –Giorgio Clerici.

—A, Giorgio eta hi oso lagunak zarete.

—Elkarrekin hazi gintuan –esan zuen Miltonek hortz artean–. Joan naitekek, hortaz? Eguerdirako hemen nauk.

—Etorri gauerako, nahi baduk. Bihar aspertzen utziko gaitiztek. Puska baterako aspertzen utziko gaitiztek, nik uste. Erasotzekotan, gorriei erasoko zietek. Aldiko bati. Azkeneko jipoia guretzat izan huen.

—Eguerdirako hemen nauk –esan zuen Miltonek, burugogor, eta alde egitera egin zuen.

—Egon. Eta Albaz zer esaten didak? Ezer ez?

—Ez diat ia ezer ikusi –erantzun zion Miltonek, berriro hurbildu gabe–. Erronda bat baizik ez diat ikusi ingurabidean.

—Zein lekutan zehazki?

—Gotzainaren lorategiaren parean.

—A –Leoren begiek distira zuri bat zuten azetilenoaren garretan–. A, eta nora zihoazean? Plaza berrirantz ala indarretxerantz?

—Indarretxerantz.

—A –egin zuen Leok berriro garrazki–. Ez duk zorrozkeria, Milton, masokismo hutsa baizik. Hain zuzen, erotzeraino maiteminduta nagok Albaz. Hura nire brigadaren gune nagusia izan daitekeela pentsatze hutsak… bai, barkatzen badidak, erabat maiteminduta nagok hire hiriaz eta jakiteko beharra sentitzen diat ea nola izorratzen didaten… Baina zer gertatzen zaik? Neuralgiaren bat?

—Zer neuralgia eta zer arraio! –lehertu zen Milton, oraindik ere asaldaturik, oinaze-keinua oraindik ere aurpegian marraztua zuela.

—Aurpegi bat jarri duk! Gutako askok izaten diate haginetako mina. Hezetasun ikaragarri honena izango duk. Zer gehiago ikusi duk? Porta Cherascako bunker berriari begiraturik egin diok?

«Ezin dut gehiago –pentsatzen zuen Miltonek–. Galdera gehiago egiten badit, nik… nik…! Eta Leo izan. Leo! Pentsa besteak balira. Ez baitzait beste ezer inpor-

ta. Beste ezer ez, kolpetik. Ez gerra, ez askatasuna, ez kideak, ez etsaiak. Fulviari buruzko egia besterik ez».

—Bunkerra, Milton.

—Ikusi diat –esan zuen hasperen eginez.

—Kontatu, bada.

—Ongi egina iruditu zaidak. Errepidea ez ezik erreka alderako soro guztiak ere mendean hartzen ditik. Gogoan duk?, zerrategira eta tenis-zelai aldera.

Fulviak Giorgiorekin jokatzen zuen, banaka beti.

Aingeruak bezain zuri nabarmentzen ziren haien partida bakoitza baino lehen Giorgiok arreta bereziz zapaldu eta ureztarazten zuen atzealde gorriaren gainean. Milton aulkian esertzen zen, Fulviak agindu bezala puntuaketa jasotzeko, baina une oro ahaztuz edo nahastuz. Deseroso esertzen zen, bere hanka luzeak etengabe mugituz, ukabilak patrika barrenean estuturik, galtzak tinkatzeko eta izterren argaltasuna ezkutatzeko, edariren bat ordaintzeko eta hura dastatuz harrotzeko dirurik gabe, zigarro bat bakarrarekin, sufritzeraino dirua aurreztuz, eta patrikaren barren-barrenean orritxo batean Yeats-en olerki baten itzulpena zuela: «*When you are old and gray and full of sleep*…»

—Ez hago ondo? –ari zitzaion esaten bere deitorezko egonarriaz–. Tenisean inoiz jokatu al duan galdetzen diat.

—Ez, ez –erantzun zion zalapartan–. Garestiegia. Nire jokoa hura zela sentitzen nian, baina garestiegia. Erraketaren prezioak bakarrik kontzientziako hozkada eragiten zidaan. Horregatik saskibaloian jokatzen hasi ninduan,

—Kirol bikaina –esan zuen Leok–. Anglosaxoniarra oso. Milton, ez al zaik inoiz burutik pasatu saskibaloian jokatzen zuena ezin zela faxista izan?

—Bai. Orain gogora ekartzen didaanez.

—Eta saskiratzaile ona hintzen?

—Hala-holakoa…

Oraingo honetan pozik geratu zen Leo. Milton aterantz erretiratu zen, eguerdirako itzuliko zela berriro esanda.

—Etorri gauerako, nahi baduk –esan zion Leok–. A, gaur hogeita hamar urte betetzen ditiat, zer iruditzen?

—Errekorra duk.

—Bihar bertan akabatuko banintz, lotsagarriro zaharturik hilko nintzatekeela nahi duk esan?

—Egiazko errekorra duk. Horregatik ez diat urte askoan esaten, zoriondu bakarrik.

Kanpoan haizea hari bat bihurtua zen. Zuhaitzek ez zuten burrunbarik egiten, ez tantaka jariatzen ere, hostoak ozta-ozta mugitzen ziren haizetan, musika-doinu ezin tristeago batez…

«Somewhere over the rainbow
skies are blue,
And the dreams that you dare
to dream really do come true».

Herri-bazter batean zakur batek zaunka egin zuen, labur eta izututa.

Bizkor ari zen iluntzen, baina mendi-gailurretan zilar-koloreko argi-zerrenda bat geratzen zen, ez zeruaren ertza bailitzan, mendien beraien isuri bat bailitzan baizik.

Milton Treiso eta Mango arteko muinoetarantz biratu zen, hurrengo egunean egin beharreko biderantz, hain zuzen. Burua okertuta eta dagoeneko bizkor-bizkor herdoiltzen ari zen zilar-koloreko zerrenda hartan inprimatuta bezala zuen zuhaitz erraldoi bakarti batek erakarri zion begia. «Egia baldin bada, zuhaitz horren bakartasuna hutsaren hurrengoa izango da nirearekin alderatuta».

Ondoren, huts egiten zion senaz, iparmendebalderantz, Turin alderantz begiratuz, entzuteko moduan esan zuen: «Begira iezadazu, Fulvia, eta ikusi zein gaizki nagoen. Jakinaraz iezadazu ez dela egia. Hainbesteraino behar dut ez izatea egia».

Biharamunean jakingo zuen, kosta ahala kosta. Leok baimena eman izan ez balio ere, berak hartu egingo zukeen, alde egingo zukeen, bidean topatzen zituen zentinela guztiei itzuri eta irain eginez. Hurrengo eguna arte eutsi behar. Bere bizitzako gaurik luzeena igaro behar. Baina biharamunean jakingo zuen. Ezin zuen bizirik jarraitu jakin gabe eta, batez ere, ezin zuen hil jakin gabe, bera bezalako gazteentzat bizitzeko baino hiltzeko dei gehiago zegoen garai batean. Den-denari uko egingo ziokeen egia haren truke; egia haren eta sorkari guztiak ulertzearen artean aukeratu behar izanez gero, egia hura aukeratuko zukeen.

«Egia bada…» Hain gauza izugarria zen, non eskuak begietara eraman baitzituen, baina ez amorruz, itsutu nahiko balu bezala. Gero behatzak bereizi eta haien artetik gau ilunaren belztasuna ikusi zuen.

Bere kideak errekatik itzuliak ziren. Gau hartan ohi baino lasaiago zeuden, beraietako bat elizako zoruan, noiz ehortziko, luze balego bezala. Beren ostatalekuetatik ez zen ateratzen herritarren etxeetatik ateratzen zen zarata baino handiagoa. Sukaldaria zen ahotsa jasotzen zuen bakarra.

Kideak, berak bezalako aukera eginak, hitzordu berera etorriak, barre ala negar egiteko arrazoi berberak zituztenak… Burua makurtu zuen. Gaur, bat-batean, eskuraezina bilakatu zen haientzat, egun erdiz, edo astebetez, edo hilabetez, egia jakin arte. Gero bazitekeen bere lagunen alde, faxisten kontra, askatasunaren alde zerbait egiteko gai izatea berriro.

Hurrengo eguna arte eustea zen zailena. Gau horretan ez zuen afalduko. Segituan loak hartzen ahaleginduko zen, lo egitera behartuz agian. Lortzen ez bazuen, herrian batera eta bestera emango zuen gau guztia, zentinela batengandik bestearengana, etengabe, erasoren bat izango ote zen susmoa eragin eta galdera amorragarriz inguratu zezaketen arren. Nolanahi ere, lozorroan egon zein beila sukar batean egon, Mangoko bidean harrapatuko zuen argi urratzeak.

«Egia. Egia-partida bat bion artean. Esan egin beharko dit, hilurrenak hilurrenari».

Bihar, Leo gaixoa eraso batean bakarrik utzi beharko balu ere, beltzen brigada oso baten erditik igaro beharko balu ere.

4

Seiak jo berriak ziren Mangoko kanpandorrean.

Milton taberna aurreko harrizko aulkian eserita zegoen, burua eskuen artean zuela. Barruan emakume bat entzuten zuen batera eta bestera jardunean, inoiz aharrausi egiten entzutea ere iruditu zitzaion, luze eta zarata handiz, gizonezkoek bezala. Herritarrak jaikita zeuden dagoeneko denak, ate-leihoak artean itxita bazeuden ere, eta Miltonek hatsanka egin zuen, usain itxi haiek gogoratzearen nazkaz.

Ordubete behar izan zuen Treisotik igotzeko; artaldeak balira bezala errepidea igarotzen zuten belaunerainoko laino-gune pila bat topatu zuen bidean. Euriak ukuiluaren sabai puskatua danborraren gisan joko zuelako segurtasunarekin esnatu zen, baina ez zuen euririk ari. Lainoa itsu-itsu zegoen, ordea, arroilak itxiz eta muino-malda hezeetan maindire uhintsutan hedaturik. Muinoak inoiz ez zitzaizkion iruditu hain nazkagarriak, inoiz ez zituen ikusi orain bezain goibel eta lokaztsu, laino-piltzarren artean. Bere maitasunaren berezko gertalekutzat begitandu izan zitzaizkion

beti muino haiek: Fulviarekin harako bidezidor hartan, harekin harako gailurrean, zera haren atzean bihurgune jakin hartan hainbesteko misterioz esango zion zera hura… eta burutik pasa zekiokeen azkeneko gauza egokitu zitzaion egin beharra, gerra. Atzo arte gai izan zen onez eramateko, baina…

Pausoak entzun zituen galtzadarrietan, zuzenean bereganantz, baina ez zuen burua jaso. Handik pixka batera Mororen ahotsaren durundia entzun zuen.

—Milton haiz-eta! Abangoardia madarikatu horretaz aspertu haiz? Guregana hator berriro?

—Ez. Giorgiorekin hitz egitera etorri nauk bakarrik.

—Kanpoan duk.

—Bazakiat. Zentinelak esan zidak. Norekin zagok?

Morok behatzez zenbatu zizkion.

—Sceriffo, Cobra, Meo eta Jack. Bart Pascalek Manerako bidegurutzera bidali zitian guardia egitera. Pascalen alde hartatik espero zitian Albako faxistak. Baina ez huen ezer gertatu eta bost horiek bidegurutzetik jaitsi eta errepidean izango dituk dagoeneko. Baina gaixo hago? Fantasmaren kolorekoa duk aurpegia.

—Eta zer koloretakoa uste duk hik duala?

—Bazakiat –esan zion barrez Morok–. Hemen hetikoak bilakatzen ari gaituk denak. Goazemak tabernara. Itxaron iezaiok han Giorgiori.

—Hotzak mesede egiten zidak. Burua sutan diat.

—Barkatu, baina ni babestu egingo nauk –eta Moro sartu egin zen, eta handik unetxo batera Miltonek neskamearekin berriketan entzun zion, ahots marrantatu eta limurtzailez.

Ikara bat izan zuen eta berriro hartu zuen burua eskuen artean.

42ko urriaren hirua zen. Fulvia Turinera itzultzen zen, astebeterako edo gutxiagorako beharbada, baina bazihoan.

—Ez joan, Fulvia.

—Joan egin behar dut.

—Zergatik?

—Aita eta ama ditudalako. Ala ez ditudala uste zenuen?

—Jakina.

—Zer diozu?

—Bakarrik baizik ezin zaitudala ikusi edo irudikatu, horixe diot.

—Ba, baditut –esan zuen Fulviak ufaka–, eta Turinen nahi naute. Baina unetxo baterako bakarrik. Eta bi anaia ere baditut, interesatzen bazaizu.

—Ez zait interesatzen.

—Bi anaia handi –jarraitu zuen–. Militarrak biak, ofizialak. Bat Erroman dago, eta bestea Errusian. Gauero otoitz egiten dut haien alde. Italo Erroman dago, eta otoitz-itxura egiten dut harengatik, Italok gerra-itxura egiten duelako. Baina Valerio Errusian dago, eta harengatik benetan egiten dut otoitz, ahal dudan ondoen.

Begi-bazterraz begiratu zion Miltoni; burumakur zegoen, bestera begira, urrutiko errekara begira, ur grisa ertz zurituen artean.

—Ez noa ozeanoaren beste aldera –xuxurlatu zion.

Baina beste aldera zihoan, Miltonek itsasoko kaio guztien mokoak bihotzean hondoratzen sentitzen baitzituen.

Giorgio Clericik eta biek lagundu zioten tren geltokira.

Gerra hasiz geroztik inoiz baino garbiagoa, txukunduagoa zirudien geltokiak egun hartan. Zerua gris

gardena zen, urdinik ederrena baino ederragoa, bere zabaltasun osoan berdin-berdina. Gauez, gau goibel eta lainotsu batean jaitsiko zen Fulvia Turinen. Baina non bizi zen zehazki Turinen? Ez zion galdetuko ez Fulviari eta Giorgiori, honek inondik ere helbidea seguru jakingo zuen arren. Fulviaren Turineko bizimoduaz ez zuen ezer jakin nahi. Beren arteko historia Albako muinoko txalet hartan gauzatzen zen bakar-bakarrik.

Giorgiok autarkia baino lehenagoko eskoziar zamarra bat zeraman. Miltonek bere aitaren jaka konpondu bat eta korapiloari eusten ez zion gorbata bat. Fulvia trenera igoa zen eta leihotik begira zegoen. Irribarre arin bat egiten zion Giorgiori, eta etengabe astintzen zituen txirikordak. Gero keinu bat egin zion korridorean ondotik igarotzean estutu egin zuen bidaiari gizen bati. Eta berriro Giorgiori irribarre egin zion.

Andenean, geltoki-burua lokomotorerantz presakatu zen, eta banderatxoa zabaldu zuen. Zeruaren grisa higatu samarra zegoen dagoeneko.

—Ingelesek ez dute nire trena bonbardatuko, ezta? –esan zuen Fulviak.

Giorgiok irribarre egin zuen.

—Ingelesek gauez baizik ez dute hegan egiten.

Ondoren Fulviak leihotxoaren ondora joateko eskatu zion. Ez zegoen irribarrez, eta Miltonek ahotsaren ozentasunagatik baino areago ezpainen mugimenduagatik ulertu zituen hitz batzuk esan zituen.

—Txaletera itzultzen naizenean, zure gutun bat aurkitu nahi dut.

—Bai –erantzun zion, eta ahotsak ikara egin zion monosilabo hartan.

—Aurkitu egin behar dut, ulertu?

Trena abiatu zen eta Miltonek bihurguneraino jarraitu zion begiez. Zubia igarota berriro harrapatu eta ke-mototsa errekaz beste aldeko makaldi amaigabeen gainetik igarotzen ikusi nahi zuen, baina Giorgiok burdina-hesira bultzatu zuen.

—Goazemak billarrean jokatzera.

Geltokitik kanpora ateratzen utzi bai, baina billarrera joateko ezetz esan zion, segituan etxeratu behar zuen. Astebete doi-doi zuen, edo gutxiago, Fulviari maite zuela idazteko.

Horma haztatu zuen, han pausatu zuen fusila aurkitzeko eta neke handiz altxatu zen eserlekutik. Ezin zuen okerrago egon. Hotzikarak zituen gorputz guztian eta burua sutan zeukan, aldatzen ez zen gar bizi, ia burrunbatsu batez.

Jim txikitxoa albo-kalexka batetik azaldu zen. Ondoratu ere gabe esan zion Pascal orduantxe sartua zela agintaritza-gunean, Pascalekin hitz egin nahi baldin bazuen.

—Ez. Giorgiorekin hitz egin nahi dut, beste inorekin ez.

—Zeinekin? Giorgio guapoarekin?

—Bai.

—Kanpoan da oraindik.

—Badakit. Bide zati batean topo egitera joango natzaio.

—Ez urrundu asko herritik –ohartarazi zion Jimek–. Laino honekin erraz galtzen da.

Kale nagusitik igaro zuen herria, alboko kale bakoitzean begiratuz, lainoa sorotan zenbateraino sartuta zegoen ikusteko. Herri bazterrean landatutako zuhaitzak fantasmak ziren dagoeneko.

Azkeneko etxe-kantoian seko gelditu zen. Aldapa harritsuan dozena erdi bat gizonen pausoak entzun zituen. Hiriko mutil partisanoen pauso luze, bizkor, nahasezina zen hura. Mutu zetozen aldapan gora, bistan zegoen eztarrietan eta biriketan itsatsita zeramatela lainoa.

Berebiziko asaldura txar batek hartu zuen, estropezu egin zuen eta etxe-kantoiari heldu behar izan zion. Baina ez zen Giorgioren eskuadroia. Haietako batek, inork galdetu gabe, igarotzean esan zion hilerripetik zetozela, ehorzlearenean igaro zutela gaua.

Artean asaldaturik, landa aldera atera zen. Giorgiori leku zabalean itxarotea erabakia zuen, Andre Maria Martxokoaren kaperatxoaren ondoan. Une batez beste laurengandik bereizi eta…

Bidea lainoak hartuta zeukan, baina oraindik baziren zirimolak eta uhinak. Alde bietarako arroilak goraino beteta zeuden kotoi estutu, geldi batez. Lainoa maldetan gora ere igoa zen, eta gailurretan baizik ez ziren azaltzen pinu batzuk; itotzeko zorian zegoen norbaitek besoak ziruditen.

Kontuz zihoan maldan behera kaperatxoaren fantasmarantz.

Isilik zegoen dena, beren habietan lainoak zanpaturik zeuden txoritxoen txioketa txunditua eta lainopeko arroiletako errekastoen marmarioa salbu.

Mangoko kanpandorreak zazpiak jo zituen, oihartzunik gabe.

Kaperako hormaren kontra bermatu zen eta irrikaz begiratu zuen Torrettako igarobiderantz. Ia buxatuta zeukan beheko ordekatik, hura aseta zegoelako, igotzen ari zen lainoak. Argiune bat geratzen zen oraindik, baina Giorgioren eskuadroiak hamar segun-

dotan agertu behar zuen han. Ez zen agertu eta hara, kito, lainoaren sendogarri baten igarobidea itxi zuen.

Zigarro bat piztu zuen. Noizdanik ez zion pizten zigarrorik Fulviari? Bai, merezi zuen gerraren ozeano beldurgarria igerian igarotzea itsasertzeraino iritsi eta Fulviari zigarroa piztu besterik ez egiteko.

Lehenengo xurgadarekin birikak lehertu behar zitzaizkiola iruditu zitzaion, bigarrenean bitan tolestu behar izan zuen gorputz-dardaragatik, hirugarrena hobeto eraman zuen eta azkeneraino erre ahal izan zuen, beste inarrosaldiren bat edo besterekin.

Errepide zati hartan ere erabat itsutu zen lainoa, baina lurretik metro bete ingurura geratzen zen zintzilik.

Tarte hartantxe ikusi zituen azkenean kakiz jantzitako hanka batzuk herrenka. Gorputzak eta buruak lainoak ezkutatzen zituen. Errepide erdira jauzi egin eta makurtu egin zen, Giorgioren hankak, haren ibilera hobeto bereizteko. Emozio handi bat sentitzen zuen guztietan bezala, bihotzak taupadaka egiten zion gorputzean.

Gorputzak eta buruak lainotatik atereaz zihoazen. Sceriffo, Meo, Cobra, Jack…

—Eta Giorgio non da? Zuekin ez zen?

Sceriffo gogotxarrez gelditu zen.

—Bai. Atzerago zetorrek.

—Atzerago, non? –galdetu zion Miltonek, lainoa zulatuz.

—Minutu batzuk atzerago.

—Zergatik utzi duzue atzean?

—Bera atzeratu duk –esan zuen eztulka Meok.

—Ezin zenioten itxaron?

—Kozkortua ere baduk –esan zuen Cobrak– eta guk bezain ongi ezagutzen dik errepidea.

Eta Meok:

—Utz iezaguk jarraitzen, Milton. Goseak akabatzen nagok. Lainoa urdaia balitz…

—Egon. Minutu batzuk esan duzue, baina oraindik ez diat ikusten.

Sceriffok erantzun zion:

—Errepideko etxeren batean geldituko huen gosaltzera. Badakik nolakoa den Giorgio. Ez zaiok gustatzen konpainian jatea.

—Utz iezaguk jarraitzen –errepikatu zuen Meok–, eta hitz egin nahi baduk, ibilian hitz egingo diagu.

—Esadak egia, Sceriffo –esan zuen Miltonek, alboratu gabe–. Miltonekin liskartu egin zarete?

—Bai zera –esan zuen ordu arte tartean sartu ez zen Jackek.

—Bai zera –esan zuen Sceriffok–; nahiz eta Giorgio ez den gure gustukoa. Aberaskume bat duk, gudaroste zerri hartan ikusten ziren haiek bezalakoa.

—Eta hemen denok berdinak –esan zuen, batbatean sutan jarriz–. Hemen aberaskumeek ez ditek funtzionatzen. Zeren hemen ere gudarostean bezala funtzionatuko balute…

—Baina goseak akabatzen nagok –esan zuen Meok, eta burua makurtuz Miltoni aurrea hartu zion.

—Hator gurekin herrira –esan zion Sceriffok, bera ere abiatuz–. Han goian ere itxaron hiezaioke.

—Nahiago diat hemen itxaron.

—Nahi duan bezala. Hamar minutuan, asko jota, hemen duk, ikusiko duk.

Luzaroago atxiki zuen.

—Nolakoa huen lainoa inguru hartan?

—Izugarria. Gogoa diat, hain zuzen, herrira iritsi eta agureren bati galdetzeko ea bere bizitzan horrelakorik ikusi duen. Izugarria. Une batzuetan, makurtuta ere ez nian ikusten errepidea, ezta errepidean neuzkan

oinak ere. Baina ez duk arriskurik, errepide bazterrean amildegirik ez zagok-eta. Baina gauza bat esango diat, Milton, hire lagunak deitu izan baligu, nik itxaron egingo niokean, eta hauei itxaronarazi. Baina ez dik deitu, eta iruditu zaidak bere burutazioetan ibili nahi zuela. Badakik nolakoa den Giorgio.

Laurak lainotan desagertuak ziren berriro.

Kapera ondora igo zen berriro. Beste zigarro bat piztu, eta zigarroa errez, errepidearen eta laino geruzaren artean zirauen tarteari begiratzen zion. Ordu erdi igaro ondoren berriro errepidera jaitsi zen eta astiro hasi zen oinez Torrettako pasabiderantz.

Sceriffok arrazoia zuen Giorgiok bakarrik geratzeko lainoa nahita aprobetxatu zuela uste zuenean. Hain zuzen ere, horrexegatik, bere ausentziengatik, lagunartekotasunaren ukoarengatik zuen estimu eskasa. Ez zuen aukera bat galtzen, areago, aukerak sortzen zituen etengabe, bakarrik egoteko, besteekin ezer ez partekatzeko, ezta bere gorputzaren berotasuna ere. Bakarrik lo egin, bakarrik jan, tabako-urrialdietan ezkutuan erre, talko hautsa erabili… Miltonek beheko ezpaina aurreratu eta hozka egin zion. Herenegun Giorgioz irribarre eragiten zionak, nahigabetu egiten zuen orain. Bazirudien Giorgiok Milton baizik ez zuela onez eramaten, Miltonekin baizik ez zuela elkarbizitzarik. Zenbat aldiz, ukuiluan lotan zirela, ez ziren etzan elkarren ondoan, elkarren kontra estuturik, beti ere Giorgiok ezarrarazten zuen intimitate batean. Miltonek kiribilduta lo egiten zuenez, Giorgio ongi kokatu arte itxaron, eta harengana egokitzen eta estutzen zen, hamaka horizontal batean bezala. Eta zenbat aldiz, hura baino lehenago esnatuta, ez zuen Miltonek munduko denbora guztia izan Giorgioren gorputza, azala, ilea… erreparatzeko.

Sufrikarioak pausoa bizkorrarazi zion, une horretan lainoaren gunerik trinko eta itsuenean mugitzen ari bazen ere.

Lainoak loditasun trinkoa eratzen zuen, egiazko lurrun-horma bat, eta, pauso bakoitzean, talka egin eta min hartzen zuela iruditzen zitzaion Miltoni. Igarobidetik oso hurbil zegoen inondik ere, baina errepidearen trazaduratik eta maldatik baizik ezin ondoriozta zezakeen zein lekutan zegoen.

Sceriffok esan bezala, makurtuz baizik ez zituen ikusten bide-zorua eta oinak, lauso, erauzi balizkiote bezala. Aurreranzko ikusgarritasunari dagokionez, Giorgio bi metrora azaldu izan balitzaio, ez zukeen ikusiko seguru asko.

Pauso batzuk goraxeago igo zen, eta seguru zegoen gailurrera iritsi zela. Laino masa handi, trinko batek zanpatzen zuen azpiko zabaldi osoa.

Listua irentsi eta gero Giorgioren izenaz dei egin zuen, ahotsa une hartan azken aldapan gora zihoanak entzuteko moduan neurtuz. Gero askoz ozenago deitu zion, Giorgiok lautada zeharkatu eta aldapari ekiten ari bazen ere. Erantzunik ez. Orduan, eskuak ahoaren inguruan inbutu baten gisan jarri eta luze oihukatu zuen Giorgioren izena. Txakur batek zaunka egin zuen, beheraxeago. Eta besterik ez.

Kontuz-kontuz, orain ikusezina zen herriaren norabidean hutsik ez egiteko, Miltonek biratu eta pausoz pauso jaitsi zen berriro Mangorantz.

5

Jangelan topatu zuen Sceriffo. Gosea kendu eta ukalondoak mahai gainean zabalduta zegoen erdilotan. Haren hatsaldi zurrungatsuen pean urmaelak bailiran kizkurtzen ziren isuritako ardo-orbanak.

Miltonek astindu bat eman zion.

—Ez duk azaldu.

—Ez zakiat, bada, zer esan –erantzun zion Sceriffok ahots lodiz, baina gorputz-enborra zutitu zuen, gaiari aurre egiteko prest zegoela adierazteko–. Zer ordu da? –galdetu zion, begiak igurtziz.

—Bederatziak jota. Seguru hago ez zela faxistarik inguruan?

—Laino harekin? Ez pentsatu hemengo lainoa zenik. Bidegurutzean esne-itsaso bat huen, hago seguru.

—Badaitekek lainoak bidean harrapatu izana –ohartarazi zion Miltonek–. Albatik abiatu direnean han behean ez huen horrelako lainorik, hori seguru.

Sceriffok burua astindu zuen.

—Laino honekin… –errepikatu zuen.

Milton haserretu egin zen.

—Lainoaz baliatzen haiz han egon zitezkeenik baztertzeko. Eta ikusi ez zenituztela zuritzeko bakarrik baliatuko bahintz?

Burua astinduz jarraitzen zuen, soseguz beti ere.

—Entzungo niean. Albatik batailoi oso bat ateratzen duk beti, gutxienez. Batailoi bat ez duk sagutxo bat, eta entzungo geniean. Soldadu batek eztula egitea aski.

—Baina Pascalek espero zitian. Inguru hartatik espero zituelako, horrexegatik bidali zintuen han guardia egitera.

—Pascal –egin zuen Sceriffok arnasoska–. Pascali kasu egin beharko bagenio. Baina nork izendatu du brigadako komandante? Ez diat kritikatu nahi, bakarrik esan nahi diat hilabete mordo batean behin ere ez dudala ikusi bat bera ere ondo asmatzen. Jakin nahi baduk, atzo egun osoan eta bart gau osoan, ez gaituk gelditu ere egin Pascal madarikatzeaz. Hark eraso bat amesten duela, eta guk larrutik ordaindu behar. Horrelaxe larrutu diagu Pascal ordutan eta ordutan. Baita hire Giorgio horrek ere.

Miltonek mahai-bira egin eta zangalatrau eseri zen Scerifforen aurreko jarlekuan.

—Sceriffo, Giorgiorekin liskarren bat izan duzue?

Besteak imintzio pare bat egin eta baietz egin zuen.

—Jackekin muturka aritu duk.

—A.

—Baina horrek ez dik zerikusirik bereiztearekin. Ez diagu horregatik galdu laino artean. Bera urrundu duk, bere gogoz, bere aberaskume-berekoikeriak egiteko.

—Beste hirurok Jacken alde jarri zarete, jakina.

—Nahi duan bezala esan. Jackek arrazoi osoa zian.

Egia esateko, bostak zeuden sutan, azaldu zuen Sceriffok. Milton Albara egindako bisitatik Treisora

itzuli eta berehalaxe irten ziren Mangotik. Artean Torrettako igarobidera iritsi gabe zirela, gau iluna zen dagoeneko, gau beltza. Tontorretik zebiltzan, dagoeneko neguko hotza zekarren haize gogor, gaizto batek bularrean jotzen ziela. Bera fusilatuta ere bertan geratuko ez litzatekeen goimendietako hilerri haietako hilobi zabalduren batetik, nondik bestela, sortzen zen haizea zen hura, Meok esan zuenez. Basamortu hutsa zen, mendi-hegiko zakur guztiak zaunka ari zitzaizkien, gorantz zihoazen ahala usaina harturik. Cobrak, zakurrak onez eraman ezin dituenez, birao bat botatzen zuen zaunka bakoitzean. Burua bere mantaz estalia zuen, eta biraoka zihoan moja baten itxura zuen horrela. Eta nekazariek bestela ikusi ere ezingo liratekeen etxeak zeudela eta non zeuden adierazten zuten txakurrei botatzen zizkieten biraoak kontuan hartuta, aise atera zitekeen ondorioz biraoa besterik ez zela mundu guztia. Beste laurak, hain zuzen, hortz-karraska eginez zihoazelarik, pentsamenduz biraoka baitzihoazen haiek ere. Sinetsita zeuden Pascalek amets egin zuela edo arreta erakarri nahi zuela, eta gero beraiek ordaindu behar beren larrutik. Amorratuena Giorgio zen, noski, eskuadroi hura ez zuelako bere gustukoa eta Sceriffori eman ziotelako agintea. «Lau gizagaixo hauen artean –pentsatzen zuen zalantza gabe– agintea hartzeko duintzat ez banaukate, pentsa zer nolako itxura, zer nolako karrera egin behar dudan nik partisanoen artean».

Gero Meorekin haserretu behar izan zuten, hark, izan ere, Mangotik baraurik atera zirenez, bakarrik zegoen eta behin bera eta Rafe gizajoa oso ondo tratatu zituzten baserri batean afaltzea iradoki zuen. Ogia labetik atera berria, zopa zukutsua, geza samarra, eta hirugiharrik onena nahi adina, elurra bezain zuria,

erdian bere biribil arrosa-kolorekoarekin. Denak ados zeuden hara joateko, nahiz eta lekua zaila izan bertara iristeko, malda nagusiaren oinetan baitzegoen. Lepoa bertan uzteko moduko bidezidor batetik jaitsi ziren; gaua galipota baino beltzago zegoen, baina bizia balu bezala, etengabe zurrunbiloak eratzen zirelako ilusio optikoa eragiten zuen. Gero, beheraino jaitsita, Meok ez zuen aurkitzen etxea non zegoen, eta lau aldetara banatu behar izan zuten aurkitzeko. Haren hormak hain zeuden afruntuek belztuak, non espirituek berezkoa ohi duten distira hori ere ez baitzuten ematen. Cobrak aurkitu zuen azkenik, galtzak larraina inguratzen zuen hesi-alanbrean kateatu zitzaizkiolarik. Birao handi batez gidatu zituen Cobrak bereganantz. Eskerrak ez zegoen zain-txakurrik, bestela gainera oldartuko baitzitzaiokeen eta Cobrak bertan seko utziko baitzukeen bere Sten-az eta orduan, berriz, Sceriffo erotuko zatekeen eta lokatzetan Cobrarekin borrokan hasiko, Sceriffo erotu egiten baitzen txakurrak akabatzen ikusiz gero.

Politena izan zen formalidade pila bat egin behar izan zutela han sartzeko. Meok jo zuen atea, eta jabeak ateaz beste aldetik erantzun zion.

—Nor zarete?

—Partisanoak –erantzun zion Meok.

—Esan dialektoz –eskatu zion agureak. Eta Meok dialektoz errepikatu zuen.

—Zein arrazatakoak? Badogliotar urdinak ala Izar Gorrikoak?

—Badogliotarrak.

—Eta zein komandotakoak zarete, badogliotarrak bazarete?

—Mangoko komandokoak –erantzun zion Meok egonarriz–. Pascalen taldekoak gara. –Baina agureak

ez zuen ate-tranka kentzen, eta Sceriffok Cobra kontrolatzeaz arduratu behar zuen, lurrean ostikoka ari baitzen, eta lau gauza esan nahi zizkion oholen beste aldetik nekazari hari, mugitu eta atea zabalarazteko.

—Eta zer nahi duzue? –jarraitu zuen agureak.

—Mokadu bat jan eta berehalaxe goaz berriro gure zerbitzura.

Baina gizon hark ez zuen aski horrekin.

—Jakin al daiteke nor zaren hitz egiten didazun hori? Ezagutzen zaitut?

—Noski –esan zuen Meok–. Meo naiz eta behin izana naiz zuenean jaten. Gogoratuko duzu.

Isilunetxo bat izan zen. Agurea gogoratzen eta pentsatzen ari zen.

—Gogoratu behar duzu nitaz –esan zuen Meok–. Orain dela bi hilabete etorri nintzen. Gauez orduan ere. Arrastaka eramaten zintuen haize bat egiten zuen.

Agureak zerbait murduskatu zuen, gogoratzen hasia zela adieraziz bezala.

—Eta –galdetu zuen gero–, gogoan duzu norekin etorri zinen?

—Bai noski –esan zuen Meok–, Raferekin etorri nintzen, Rafe, handik gutxira Rocchettako guduan hil zenarekin.

Orduan agureak emazteari hots egin zion, ate-tranka kendu zuen eta sartu egin ziren. Baina ez zegoen Meok segurutzat emandako gauza on guzti haietako ezer; bestela baizik, zerriek bezala jan zuten, ahia eta aza hotza besterik ez, eta eskutada bat hur. Eta agurearen begi finkoen aurrean jan behar izan zuten zerri-jan hura. Begira eta begira zegokien, etengabe igurzten zituen bere bibote zuriak eta hitz bat, beti bera, esaten zuen noizean behinka. «Siberia». Huraxe zuen bere leloa. «Siberia, Siberia». Giorgiok polenta ez zuen pro-

batu ere egin, eta are gutxiago azak; dozena bat hur jan zituen, baina presaka eta amorruz murtxikaturik, urdail gainean geratu zitzaizkion. Hestegorrian zehar han eta hemen barreiatutako harri-koskorrak balira bezala sumatzen zituela esan zuen gero. Azkenean miseriazko etxe ziztrin hartatik atera eta berriro tontorrera igotzeko maldan abiatu zirenean, ozta-ozta ziren bederatziak, eta egunsentia baino lehentxeago ohi dena bezain beldurgarria zen gaua. Meori afariaren ideia harengatik bereak eta bi esanez igo ziren. Lasaiena Jack zihoan hala ere; «Faxista zerriak, faxista zerriak, faxista zerriak...» esaka zihoan etengabe sudurpetik, ahots leunez.

Gero, Scerifforekin haserretu ziren, guardiako baserako etxea bidegurutzean aukeratzeagatik. Bidegurutzea ikusten zen lekura iritsiak ziren; beherako errepideak distira zurixka goibel bat egiten zuen. Cobrak txanoz estalita zeraman burua astindu eta esan zuen:

—Bihar goizean faxistak bide honetatik igarotzen badira, zin degizuet lehertu arte jango ditudala hartxintxarrak.

Cascina della Langan geratu nahi zuten laurek, ukuilu handi bat baitzuen, irekiune guztiak ondo estalita zituen eta idi multzo handi bat, beren arnasaz berogailuak bezala berotzen zutela. Sceriffok arbuiatu zuen esanez lo egiteko erosoa bazen ere, guardia egiteko gaizki, bidegurutzetik urrutiegi zegoela kokatuta. Setaz tematu behar izan zuen, baina muino baten ondo-ondoan, bidegurutzearen aurre-aurrean, dagoeneko mutu, itzalita eta trangaz itxita zeuden etxe multzotxotik Sten-tiro batera zegoen etxola abandonatu batera eraman zituen azkenean. Haize-bafaden

eraginez sustraietaraino kirrinka egiten zuten zuhaitz ilara luze bati jarraituz iritsi ziren haraino.

Etxola hark hondatuta eta teilaturik gabe zituen hiru laurdenak. Osorik zegoen hutsarte bakarra ukuilua zen, baina dei iezaiozu hari ukuilu. Hain zen txikia, non sei ardi ere ez baitziren sartuko, askan nano bat sartuko zen hortxe-hortxe, eta zola biluzik zegoen erabat, bizpahiru elorri-arbazta pilatuta zeuden zoko batean salbu. Eta leihotxo bat bakarra zegoen, beirarik gabe, markoa ere hautsita, eta ateak bazituen arraila batzuk esku zabaldua ere sar zitekeenak.

Gauerdian hasi zituzten guardiak. Sceriffok egin zuen lehenengo txanda. Gainerakoak adreilu gainean etzanda zeuden, kuzkurtuta, kikilduta, baina inork ez zuen lorik egiten. Hain zeuden sorgortuta, non inori ez baitzitzaion bururatu sorta zahar haiek kanpora atera eta leku gehiago egiteko ideia xumerik. Pixka bat urrunduta zeuden, baina Jacken gainera erori ziren azkenean, gainerakoen okertze, lerradura eta hotzikarek bultzaturik. Hala ere, Jack zen lotan zegoen bakarra, fakir bat bailitzan abar arantzatsuen gainean; hilzorian dagoenaren gisan lotan eta intzirika. Azken aurreko txanda Giorgiok egin zuen, eta azkena Jacki egokitzen zitzaion, aparteko bista baitzuen egunsentiko argi engainagarrirako.

Jacken guardia-orduan gertatu zen Giorgiorekiko arazoarena. Itzulitakoan Jack astindu zuen eta, Jack irten bezain laster, Cobra eta Meoren gorpuztzarrak apartatu eta lastairan erdi etzan zen. Ez zuen lorik hartu, noski, eta eskuak belaunpean gurutzatuta kuzkurtu zen. Zigarro bat erre eta gero ehun postura probatu zituen, ez lo egiteko zehazki, gaua modu jasangarri batean igarotzeko baizik, baina ez zuen lortu. Orduan eseri eta beste zigarro bat piztu zuen. Pospoloaren argi-

tan ikusi zuen Jack ez zela begirari-eginkizuna betetzen ari; ukuilu barruan zegoela. Horma kontra eserita zegoen, leiho ondoan, burua kulunkatuz.

—Giorgio –esan zuen Sceriffok– haserretu egin zuan nonbait. Berak behar bezala egin zian bere txanda…

—Dibisio osoan ez zagok bat bera ere –eten zion Miltonek– guardia Giorgiok bezainbesteko arduraz egiten duenik.

—Egia duk hori –onartu zuen Sceriffok–, eta ez diagu begiratzen beregatik bakarrik egiten duen ala bere lagunengatik ere bai. Egia duk guardia hain ongi bere buruaren alde eginez, besteen alde ere egiten duela ongi. Horretan ados gaudek. Giorgio sutan zegoan, esan diat. Belauniko jarri eta, piztia batek bezala, aztarrikatzen zian lastaira. «Zergatik ez hago kanpoan guardia egiten?» eta inolako zuribiderik, halakorik bazen, itxaron gabe, laidoz bete zian Jack; putakumea zuan denetan arinena. Jacken errua, hori errurik bazen, azalpenak segituan ez ematea izan zuan. Jack soinak jaso zitian, iruditzen zaidak, «Alferrik da» edo horrelako zerbait marmartu, eta agian lurrean tu egin zian Giorgioren aldera.

Giorgiok gainera jauzi egin zioan, igela bailitzan, eta airean zihoala esan zioan: «Alferrik? Guk egin diagu eta hik ez, zerri nazkagarria!», eta gainera oldartu zitzaioan. Gu esna geundean, baina oraindik ez gintuan konturatzen zer ari zen gertatzen, eta, gainera, hain sorgorturik eta zurrundurik geundean, non minutu bat gutxienez joan baitzen zutik jarri baino lehen. Jack ez zegoela kanpoan guardia egiten, horixe besterik ez nian ulertu, eta garrasi egin nioan ea zergatik hori? eta ateratzeko segituan bere txanda egitera. Baina Jackek ez zidaan erantzun, nahikoa lan baitzian Giorgiorengandik babesten. Hark lepotik helduta zeukaan eta burua

horman barrena sarrarazteko asmo osoa zerabilean. Eta lepoa estutu eta burua behartzen zion bitartean, iraina irainaren gainean botatzen zioan. «Sasikumea, baduk garaia zuek bezalako jendaila akabatzeko! Ez duzue balio ez guretzat ez haientzat! Ea denak akabatzen zaituzten! Zakurrak zarete, zerriak, jendaila…!» Jackek ez zioan erantzuten, Giorgiok ito egin behar zuelako, edota berak zurruntzen zuelako lepoa, buruaz horma ez jotzeko. Beraz, ez zian hitz egiten, ezta guri laguntza eskatzeko ere. Hankak tolestuta zeuzkaan eta Giorgio urruntzen ahalegintzen zuan haiez. Hau dena kontatzeko denbora behar izan diat, baina hogei segundo baino gehiago ez zuan izan. Gu sartu baino lehen, Jackek hankak Giorgioren bularrean jartzea lortu zian, eta hankaz gora bota zian lauzetara. Orduan garrasi egin nioan Jacki azalpen bat emateko segituan, eta Jackek, bere lekuan eserita, esan zidaan: «Alferrik da, esan dut. Begiratu zeuk», eta esku-kolpe batez zabal-zabal egin zuen atea. Kanpora begiratu genuen eta orduantxe ulertu genian zergatia.

—Lainoa! –xuxurlatu zuen Miltonek.

Lainoa deskribatzeko, Sceriffo aulkitik jaiki zen.

—Imajinatu esne itsaso bat. Etxeraino bertaraino iristen zuan, haren mihiak eta errapeak gure ukuiluan ere sartzen ahalegintzen zituan. Kanpora atera gintuan, elkarren ondoz ondo, baina kontu handiz, eta ez bi pauso baino gehiago, esne itsaso hartan hondoratzeko beldurrez. Ozta-ozta ikusten genian elkar, nahiz eta lerro berean egon, ukondoz ukondo jotzen. Aurrean ez genian ezer ikusten. Gogor zapaltzen genian oinez, azpian lur sendoa genuela konbentzitzeko, eta ez hodeia. –Baldarki eseri zen berriro eta jarraitu zuen–: Cobrak barre egin zian, ukuilura sartu, abar-sorta haietako besada bat hartu, kanpora itzuli, eta bere indar guztiaz

jaurti zian, lainoaren erdira. Ez genitian entzun lurrera erortzen.

Belarriak behartu eta arnasari eusten ahaleginduagatik, zaratarik txikiena ere ez zuten entzuten. Giorgioren eta Jacken arteko liskarra ahaztuta zegoen dagoeneko. Giorgioren erlojuak ia bostak markatzen zituen. Denak ados zeuden ez zegoela erasorik eta ezin zela izan ere. Han ez zuten dagoeneko zer eginik, eta bertatik ekin behar zioten Mangora itzultzeko bideari.

—Mutilak –esan zien Sceriffok–, badugu gailurreko bidea; horixe da laburrena, eta buruz dakigu, gainera. Baina laino honekin arriskutsua da, labanaren aho gainetik bezala doalako bi isurialdeen ertz-ertzetik. Laino honekin erraz irrist egiten da eta irrist egiten duenak, ez dut esango hil egingo denik, baina hobe du ilusiorik ez egin. Zilipurdika joango da bukaeraraino, eta ez da gelditukо han behean bi kilometrora doan Belbo ibairaino. Beraz, malda erdiraino arretarik handienaz jaistea proposatzen dizuet, eta han hegiko errepidea hartzea; luzeagoa da, baina ezponda aldetik babestuta dago behintzat. Errepidearen eskuineko aldetik joango gara denbora guztian, ezponda ukituz. Pilone del Chiarle parera iritsitakoan, orduan igo gaitezke berriro gailurreraino. Leku horretan bidea ez da hain arriskutsua; belardi nahiko zabalak daude bi aldeetan, desnibelak baino lehen. Gainera, han lainoa ez al da izango hemen bezain trinkoa.

Arrazoia eman zioten, eta konturik handienaz jaitsi ziren malda erdirantz, hasieran oin bat bestearen aurrean jarriz, petankan puntuak neurtzeko egin ohi den bezala. Hegiko errepidean –bertan belaunikatuta ezagutu zuten– bizkorxeago ibili ziren, han ere lainoa trinkoa izan arren. Gero ustekabean asmatu zuten Pilo-

ne del Chiarlera igotzen zen bidezidorretik sartzen eta gailurrean kokatu ziren berriro.

—A –esan zuen Sceriffok–, kalkulatu hiru ordu behar izan ditugula normalean ordu betean egiten den bidea egiteko.

—Eta non galdu duzue Giorgio?

—Ez zakiat, baina berriro esaten diat berak nahita galdu dela. Hegiko errepidearen hasieran banandu dela uste diat. Hi lasai, Milton. Badiat susmoa non egon litekeen. Bero-bero, etxetxo politen batean, txanponhotsaren eraginez gosari on bat aterarazten. Mordoxka erabiltzen dik beti, batzuetan brigadako kutxazainak baino gehiago edukitzen dik. Mendazko gozokiak balira bezala bidaltzen zizkiok aitak. Bazakiat nola moldatzen den. Katilu handi bat esne irakin aterarazten dik, eta azukrerik ez denez, ezti koilarakada on batzuk urtzen ditik bertan. Horregatik ez diok inoiz eztulik entzungo, inoiz ez karkaxarik txikiena ere, guk arima ere eztulka botatzen dugun bitartean. Lasai, Milton, ikusten duk ni lasai nagoela, patruilaren ardura izan arren. Hago lasai, eguerdirako herrian ikusiko duk-eta.

—Eguerdirako atzera Treison egon nahi nian –esan zuen Miltonek–. Halaxe agindu zioat Leori.

Sceriffok uzteko keinua egin zion eskuaz.

—Zer arraio axola dik beranduago iritsita ere? Zer axola ziok Leori? Hemen ez duk ez deirik ez kontra-deirik egiten. Partisanoa horrexegatik ere baduk handia. Bestela, Regio bezalakoa izango litzatekek, jo dezagun egurra. –Eta egurra jo zuen, jo ere, metrailetaren giderra, eta jarraitu zuen:– Hemen behartu ahala egiten dituk gauzak, zertarako nahi duk dena neurtuta egitea?

—Nik ez diat ezer egiten behartu ahala.

—Hik ere gudaroste nazkagarri horretako moduen arabera hasi behar duk funtzionatzen?

—Gudarosteaz hitz egiten ere ez diat entzun nahi, baina behartu ahala konpondu, hori ez.

—Hala baduk, etor hadi beste batean Giorgioren bila.

—Oraintxe bertan hitz egin behar diat harekin.

—Baina zer dela-eta Giorgio ikusi behar hori? Zer esan behar diok hain garrantzitsua? Ama hil zaiola?

Milton ate aldera biratzen ikusi zuen eta esan zion:

—Eta nora hoa orain? Herrira?

—Hementxe kanpora, lainoa ikustera.

Beheko arroilan lainoa mugitzen ari zen, hondohondoan pala erraldoi, geldi-geldi batzuek nahastuko balute bezala. Bost minutuan hutsarteak eta arrakalak zabaldu ziren, eta haien barrenean lur sailtxoak azaltzen hasi ziren. Urruti-urruti agertu zitzaion lurra, belzkara, itota bezala. Gailurrak eta zerua lodi estalita zeuden oraindik, baina ordu erdiren buruan ostarteak zabalduko ziren han ere. Txoritxo batzuk txioka hasten ari ziren.

Burua sartu zuen. Bazirudien Sceriffok lo hartu zuela.

—Sceriffo! Errepidean ez al duk ezer entzun?

—Ezer ez –erantzun zion bizkor, burua altxatu eta besoak luzatu gabe.

—Hegiko errepidean esan nahi diat.

—Ezer ez.

—Ezer-ezer ez?

—Ezer-ezer ez, esan diat! –Sceriffok bortizki jaso zuen burua, baina ahotsa hobeto menderatu zuen–. Zehatzago nahi baduk, zeren honen zorrotz ez baihaut inoiz ikusi, esango diat txori baten hegaldia baizik ez

dugula entzun, horra. Habia galdurik izango zian eta harexen bila ari zuan lainotan. Eta orain, utzi lo egiten.

Kanpoan lanbroa hasi zuen.

6

Hamar laguni utzia zien mandatua Giorgio ikusi bezain laster beregana bidaltzeko eta jantokiko helbidea utzi zuen. Baina hamaika eta erdiak aldera jantokitik atera eta ordu erdiz hara-hona ibili zen herri inguruan, Giorgio landan zehar baldin bazetorren urruti samarretik ikusteko itxaropenarekin. Lainoa desagertzen ari zen alde guztietan eta geroz eta sarriago egiten zuen lanbroa, artean oso gogaikarria ez bazen ere.

Garbitegiko kalezuloaren irteeran Franken isla agertu zen une batez. Albakoa zen hura ere, Milton eta Giorgioren taldekoa. Miltonen itzala ere ikusi ez balu bezalaxe igaro zen, baina ikusmen atzerakorra-edo izango zuen nonbait, zeren handik segundo batera kalezuloan agertu baitzen berriro. Dardara batean zegoen oinetatik bururaino, eta aurpegia inoiz baino haur gisakoagoa eta zuriagoa zuen; igeltsuzkoa zirudien.

«Giorgio atxilotu dute», xuxurlatu zuen Miltonek.

—Milton! –egin zuen oihu Frankek, maldan behera korrika–. Milton! –egin zuen oihu berriro, harzola askatuetan takoiez galga emanez.

—Giorgio harrapatu dute, ezta, Frank?

—Nork esan dizu?

—Inork ez. Baina sentitu egin dut. Nola jakin da?

—Nekazari batek –murmurikatu zuen Frankek–, beheko hegialdeko nekazari batek, gurdi batean preso pasatzen ikusi du, eta kontatzera etorri da. Goazen korrika buruzagitzara –eta Frank korrika hasi zen.

—Ez, korrika ez –esan zuen, erregutu zuen Miltonek. Hankek ozta-ozta eusten zioten.

Frank esaneko ondoratu zitzaion.

—Ni ere jota utzi nau. Lur jota nago.

Geldiro ari ziren igotzen, ia nazkaz, buruzagitzarantz.

—Izorratuta dago, e? –xuxurlatu zuen Frankek–. Uniformez jantzita eta armekin harrapatu. Esan zerbait, Milton!

Miltonek ez zuen ahorik zabaldu, eta Frankek berriro:

—Izorratuta. Bere ama ez dut gogoratu ere egin nahi. Bete-betean harrapatu dute nonbait, lainotan. Gaur goizeko lainoa ezohikoegia zen ezer ez gertatzeko. Horiek, ordea, gero pentsatzen dira. Giorgio gaixoa. Nekazari horrek gurdi baten gainean lotuta igarotzen ikusi du.

—Gauza segurua al da Giorgio zela?

—Lehendik ezagutzen omen zuen. Hura bakarrik falta da, gainera.

Nekazari bat zabaldirantz jaisten ari zen. Bidezidor labainkor batetik sartu zen eta belar luzeenei helduz ari zen behera irristatzen.

—Horixe da! –esan zuen Frankek, eta txistu egin eta behatzak klaskatu zizkion.

Gizona gogo txarrez gelditu eta galtzadara igo zen berriro. Berrogei urte inguruko gizona zen, ia ilezuria; lokatz-zipriztinak eta orbanak zituen bularreraino.

—Kontaidazu Giorgiorena –agindu zion Miltonek.

—Zuen buruzagiei esan diet dena.

—Errepikatu niri. Nola ikusi duzu? Lainoak ez zuen estaltzen?

—Gurean, han behean, ez zen hemen goian bezain makurra. Eta ordu hartarako ia dena garbitua zuen, gainera.

—Zer orduz diozu?

—Hamaikak. Hamaiketarako gutxi falta zen Albako soldadu-zutabea zuen laguna gurdi gainean lotuta zeramala igarotzen ikusi dudanean.

—Trofeo baten gisan eraman dute –esan zuen Frankek.

—Kasualitate hutsez ikusi ditut –jarraitu zuen gizonak–. Ni kanaberak moztera nindoan eta beheko errepidetik pasatzen ikusi ditut. Kasualitatez ikusi ditut, entzun ere gabe, sugeak bezala ari baitziren jaisten.

—Ziur Giorgio zela? –galdetu zion Miltonek.

—Ikustez ondo ezagutzen nuen. Behin baino gehiagotan etorria zen nire bizilagunaren etxera jatera eta lo egitera.

—Zu non bizi zara?

—Mabuccoko zubitik mendi aldera, bertan. Nire etxea…

Miltonek moztu egin zion etxearen deskribapena.

—Eta zergatik ez zara lasterka joan muino barrenean Ciccioren gizonei abisatzera?

—Hori galdetu dio Pascalek –hasperen egin zuen Frankek.

—Eta zuk entzun duzu zer erantzun diodan zuen komandanteari –erantzun zion nekazariak–. Ez naiz

andretxo bat, nik ere egin dut soldaduska. Segituan pentsatu dut zuen artean hura geldiarazteko gauza Ciccio baizik ez zela eta hegan jaitsi naiz. Nik ere arriskatu dut neurea, zeren atzetik zetozenek ikus nintzaketen aldamenetik aurrea hartzen nienean, eta tiro egin ziezadaketen erbiari bezala. Baina Ciccioren destakamendura iritsi naizenean sukaldaria eta zentinela bat baino ez ditut aurkitu. Dena dela, jakinean jarri ditut, eta ziztu baten abiatu dira korrika. Multzorik handienaren bila joango zirela, segada bat antolatuko zutela, zerbait egingo zutela pentsatzen nuen, baina basoan ezkutatzera joan dira korrika, itxura denez. Soldaduzutabea igaro eta Albako bidean urrundu denean, biak itzuli dira eta hona zer esan didaten: «Zer egin behar genuen guk biok bakarrik?»

Frankek esan zuen:

—Pascalek esan du gaur bertan bidaliko duela hara behera eskuadra bat Ciccioren bi metrailadoreetako baten bila. Metrailadore bat nahikoa eta sobera, zera… talde harentzat.

—Utz iezadazue joaten –esan zuen nekazariak–. Gehiegi luzatzen banaiz emaztea kezkatu egiten da eta haurdun dago.

—Mangoko brigadako Giorgio zen seguru? —galdetu zion berriro Miltonek.

—Heriotza bezain seguru. Aurpegia odolduta bazeukan ere.

—Zaurituta?

—Xehe-xehe eginda.

—Eta… nola zegoen gurdian?

—Honela –esan zuen gizonak, eta Giorgioren jarrera imitatu zuen. Gurdi ertzean jarrita zeukaten, bularra gurtetxean iltzatutako hesola bati lotuta; hala Giorgio ezpata bat bezain zuzen zihoan, hankak gurdia zeramaten idien isatsen artean zintzilik zituela.

—Trofeo baten gisan eraman dute –errepikatu zuen Frankek.

—Pentsa nolako ikuskaria Alban sartzen denean. Imajinatu Albako neskak, orain eta gaur gauean.

—Zertara datoz hemen neskak? –eztanda egin zuen Miltonek erabat nahasturik–. Ezertara ez edo ia ezertara ez. Zuk ere itxaropen ustelak.

—Nik? Barkatu, zeren itxaropen ustelak?

—Ez zara ohartzen luzeegi doala hau? Ohituta gaudela hiltzera eta neskak ere ohitu direla gu hiltzen ikustera?

—Ez al didazue uzten oraindik ere joaten? –galdetu zien nekazariak.

—Egon pixka batean. Eta zer egiten zuen Giorgiok?

—Zer nahi duzu egitea? Aurrera begiratzen zuen finko.

—Soldaduak joka ari zitzaizkion oraindik?

—Ez, dagoeneko ez –erantzun zuen gizonak–. Harrapatu dutenean jipoituko zuten. Baina bidean ez. Beldur ziren, itxura denez, muinoren baten atzetik batbatean agertuko ote zineten. Esan dizuet hotsik atera gabe ari zirela jaisten, sugeak bezala. Eta horregatik bakean uzten zuten. Baina litekeena da, behin arrisku gunetik alde eginda, berriro gainera oldartzea, beren haserrea beste pixka bat husteko. Eta orain, joan naiteke?

Milton dagoeneko komandantziarantz abiatua zen itsumustuan. Frank, oldartze hark harrituta, garrasika zihoakion atzetik.

—Eta zergatik zoaz korrika orain?

Komandantziaren sarrera Mangoko goarnizioaren zati handi batek butxatuta zegoen. Milton bizkar pila hartan sartu zen, beretzat eta orain orpoz orpo zihoakion Frankentzat bidea zabalduz. Pascalen inguruan beste zirkulu bat zegoen eratuta; hark telefonoa

eskuan zuen. Milton barneko zirkulu hartan ere sartu zen, eta lehenengo ilaran topatu zen, Scerifforekin ukondoz ukondo; hura hildako bat bezain zuri.

Pascal komunikazioaren zain zegoen bitartean, Frankek xuxurlatu zuen:

—Burua jokatuko nuke dibisio osoan ez dugula preso piltzartsu bakar bat ere.

—Niretzat, entzun zer esaten dizuedan, arrosa zurizko koroa bat –esan zuen beste batek.

Dibisioko komandantziak telefonoa hartu zuen. Hariaren beste aldean, Pan ofizial maiorra. Segituan esan zuen ez zeukala baliatzeko presorik. Pascalek Giorgio deskriba ziezaiola eskatu zion, eta gogoratzen zuela iruditu zitzaion Pani. Baina ez zuen presorik. Jotzeko brigadako beste komandanteengana. Erregelamenduak agintzen zuen, jakina, beheragoko mailetako komandanteek presorik hartzen bazuten dibisioko buruzagitzara eramateko bertatik; baina, kontzientzia lasaitzeko bazen ere, deitzeko telefonoz Leori, Morgani eta Diazi.

—Leok ez du –esan zuen Pascalek turutan–. Aurrean dut Treisoko brigadako gizon bat, eta keinuz esan dit Leok ez daukala bat ere. Morgani eta Diazi deitzen ahaleginduko naiz. Nolanahi ere, Pan, preso berri-berriren bat baletorkizu, ez ezazue akabatu, bidal iezadazu berehala auto batean.

—Deitu Morgani, agudo! –esan zion Miltonek Pascalek zintzilikatu zuenean.

—Diazi deituko diot –erantzun zion Pascalek lehor.

Miltonek begi-bazterraz begiratu zion Sceriffori. Kolore grisaxka zuen. Baina ez zen Giorgiori gertatu behar zitzaionagatik, pentsatzen zuen Miltonek, laino artean ehunka barreiaturiko etsaiek orain eragiten zio-

ten izuagatik baizik, bera, Sceriffo, haien artetik haiek ikusi gabe, lasai, ohartu gabe igarotzen zela, txori galdu baten hegaldia entzunda liluraturik.

—Giorgio gaixoa –esan zuen Sceriffok ahapeka–. A zer azken gau zakurra igaro duen. Nork daki nolakoak ari ote den jasaten. Urdail gainean izango ditu hurrak oraindik.

—Beharbada dena amaitu da beretzat –esan zuen norbaitek Miltonen atzean.

—Nahikoa da! –esan zuen Pascalek telefonoak jotzen zuen bitartean.

Diaz bera zen. Ez, ez zuen presorik.

—Hilabetea bada nire sugeek hozka egiten ez dutela –esan zuen.

Oso ongi gogoratzen zuen Giorgio ilehoria, eta sentitzen zuen, baina ez zuen preso zikin bakar bat ere.

Miltonek lehenengo aldiz ikusten zuen kokospeko bizardun partisano batek nonbaitetik galdetu zuen ea non egiten zuten hori Alban.

Frankek erantzun zion:

—Edozein lekutan. Hilerriko hormaren kontra gehienetan. Baina baita trenbideko ezpondaren kontra edo ingurabideko edozein lekutan ere.

—Hobe ez jakitea –esan zuen bizardunak.

—Arrosa zuriak, nire ustez –entzun zen berriro.

Morgan hitz egiten ari zen.

—Fottuted boys. Ez daukat bat ere. Nor zen Giorgio hori? Alajainkoa, begira nola diren gauzak. Orain dela hiru egun banuen bat, baina dibisiora bidali behar izan nuen. Oskoletik atera berria zen oilo busti bat, eta gerora primerako bufoia gertatu zen. Espero ez zen gauza bat. Barrez lehertu gintuen gurekin igaro zuen egun osoan. Totò e Macario imitatzen ikusi izan bazenu, Pascal. Bateria ikusezin bat jotzen ikusi izan

bazenu. Ez akabatzeko aholkua emanez bidali nuen dibisiora, baina gau hartan bertan akabatu zuten. Begira nola diren gauzak, alajainkoa! Nor zen Giorgio hori?

—Itxura ederreko ilehori bat! –erantzun zuen Pascalek–. Berri bat harrapatzen baduzue, ez akabatu, Morgan, eta ez bidali dibisiora ere. Panekin adostuta nago. Bidali hona auto batean.

Pascalek telefonoa eskegi eta Milton irteerarantz zihoala ikusi zuen.

—Nora hoa?

—Treisora noak berriro –erantzun zion erdizka biraturik.

—Geratu gurekin jatera. Zertara joan behar duk orain Treisora?

—Treison lehenago jakiten dituk gauzak.

—Zer gauza?

Baina Milton alde egina zen dagoeneko. Baina kanpoan beste jende pila batekin egin zuen topo. Cobraren inguruan biribila eginez zeuden; hark mahukak kontu handiz bere bizeps indartsuetaraino jaso eta alegiazko konketa baten gainean makurtuta zegoen.

—Begiratu –esaten zuen–, begiratu ondo zer egingo dudan Giorgio hiltzen badute. Nire lagun, nire kide, nire anaia Giorgio. Begiratu. Harrapatzen dudan lehenengoa… haren odoletan garbituko ditut eskuak. Honela. –Eta alegiazko konketa gainera makurtu, eskuak hartan sartu, eta gero, arreta eta leuntasun beldurgarri batez igurzten zituen–. Honela. Eta ez eskuak bakarrik. Besoak ere garbituko ditut haren odoletan. –Eta behin eta berriro errepikatzen zuen besaurrearekin eta besondoarekin–. Honela. Begiratu. Nire anaia Giorgio hiltzen badute. –Eskuak garbitzen zituen leuntasun eta araztasun berberaz hitz egiten zuen, baina azkenean garrasi ozen batean lehertu zen:– Horien odola

nahi dut! Galtzarbeetaraino murgildu nahi dut horien odoletan!

Miltonek handik alde egin eta herriko sarrerako arkura iritsi arte ez zen gelditu. Luzaro egon zen Benevello eta Roddino aldera begira. Behe-lainoa alde guztietatik jasoa zuen, behe aldean hondarren bat baino ez zen geratzen muinoen lerro beltzari itsatsita. Euria fin eta berdin-berdin ari zuen, baina ezertan ez zuen bista galarazten. Burua beste aldera biratu eta begirada sakon bat egin zuen Alba aldera. Zerua beste lekuetan baino ilunago zegoen hiriaren gainean, more-morea, zaparrada askoz bortitzago baten seinale. Euria ari zuen Giorgio gatibuaren gainean, beharbada dagoeneko hilik zegoen Giorgioren gainean, euria goian-behean ari zuen Fulviarekiko zuen egiaren gainean, hura betiko ezabatuz.

«Ezingo dut inoiz jakin. Jakin gabe joango naiz».

Atzean norbait korrika zebilela entzun zuen, beregana zetorkion zuzenean. Iritsi baino lehen alde egiten ahalegindu zen, baina ez zuen lortu; Frank parera iritsi zitzaion.

—Nora hoa? –galdetu zuen hatsanka–. Ospa egitea ez huen pentsatuko, bada? Ez nauk hemen bakarrik utziko. Gaur seguru etorriko duk Giorgioren aita, semea trukatzeko modurik baden ikustera. Hik ospa egiten baduk, bakarrik geratuko nauk hari harrera egiteko, hitz egiteko, eta ez nauk horretarako gauza sentitzen. Behin suertatu zitzaidaan hori egin beharra, Tomen anaiekin, eta ez diat berriro egin nahi, bakarrik behintzat ez. Mesedez, gera hadi hemen nirekin.

Miltonek Benevello eta Roddinoko haitzak seinalatu zizkion.

—Ni alde hartara noak. Giorgioren aita etortzen bada eta nitaz ere galdetzen badu…

—Nola ez dik galdetuko, bada?

—Esan Giorgiorekin trukatzeko zerbaiten bila nabilela.

—Benetan esan ziezaiokeat hori?

—Zin egiok, nahi baduk.

—Eta nora hoa bila?

Euri bakan, astuna ari zuen, tanta zapalak, txanponak bezala.

—Hombrerengana noak –erantzun zion Miltonek.

—Gorriengana?

—Urdinok presorik ez dugunez.

—Haiek ordea, batere baldin badute, ez diate inola ere emango.

—Ea maileguz uzten didaten…

—Maileguz ere ez diate utziko. Orain dagoen erresuminarekin, komisarioek burua berotzen dieten bezala beroturik, guk jasotzen ditugun eta haiek hartzen ez dituzten jaurtiketak direla-eta duten behazunarekin…

—Hombre eta ni adiskideak gaituk –esan zuen Miltonek–. Adiskideak baino gehiago. Badakik hori. Mesede pertsonal bat bezala eskatuko zioat.

Frankek burua mugitu zuen.

—Eman dezagun badutela eta ematen diatela… Ez diate edukiko, haien eskuetan presoak preso egoteko ere astirik ez dik izaten eta… baina eman dezagun badutela eta ematen diatela, zer egingo duk? Hona ekarriko duk zuzenean?

—Ez, ez –esan zuen Miltonek eskuak bihurrikatuz–. Denbora gehiegi galduko niake. Parean topatzen dudan lehenengo apaiza bidali eta ahalik eta formalitate gutxienarekin trukatuko diat Albako muinoan. Izatekotan ere, Nicken bi gizon eramango ditiat lagun.

Euriak buruan jotzen zituen eta uniformeak bustitzen zizkien, baina alamedako hostoetan zirtaka ozenago egiten zuelako baizik ez ziren ohartu horretaz.

—Gainera, gogotik hasi dik berriro euria –esan zuen Frankek.

—Denbora galtzen ari gaituk –esan zuen Miltonek eta, pauso irmoz, beheko kale ertzetik jaisten hasi zen. Haren oinetakoen orpoak zauri luze, sakon, distiratsuak zabaltzen zituen lokatzetan.

—Milton! –deitu zion Frankek–. Ziur nagok esku hutsik itzuliko haizela. Baina presoa lortu eta trukea egitera bahoa, gure Albako muinoan hagoenean, erne begiak eta begiratu ondo alde guztietara. Kontuz trikimailuekin, kontuz segadekin. Ulertu duk? Badakik truke horiek infernuko tranpak izaten direla batzutan.

7

Euri-kizi xehe-xehea ari zuen, azalean ia suma ezin zitekeena, baina bideko lokatza begi-bistan ari zen loditzen harekin. Ia laurak ziren. Bideak aldapan gora egiten zuen. Miltonek Hombreren brigadaren ikusmen eta zaintzapeko eremuan egon behar zuen dagoeneko ertzari jarraituz. Pauso bakoitzeko bala baten ziztua igaro zekiokeen ondotik. Gorriek susmopean hartzen zituzten uniformeak, eta ingeles uniformeak alemaniartzat hartzeko joera madarikatua zuten. Horregatik, aldapak eta sasiak eta, batez ere, hegiko mahastietako lanabesetarako etxolak ondo zainduz jarraitzen zuen.

Bihurgune batetik irtetean, seko gelditu zen. Osorik zegoen zubitxo baten aurrean topatu zen. «Osorik. Zubia osorik, zubia minaturik». Ubidea eta ibilbidea aztertu zituen, natura beltza zubitik mendialdera zein bailara aldera. Mendi aldera erreka meharregia zen, eta bailara aldea begiratzea erabaki zuen horregatik. Belardira jaitsi ziren, ezpondan behera, horrenbestez, baina azkeneko momentuan gelditu egin zen.

«Ez naiz fidatzen. Tranpa usaina du. Ibilitako bidea askoz ere beherago dago. Jendeak bere arrazoiak izango ditu han behetik pasatzeko». Jaitsi eta behetik igaro zen. Bitartean harriak bazeuden ere, ezin izan zuen eragotzi zangoetaraino bustitzerik. Ur arrea izoztuta zetorren.

Bidea gain-gainetik zihoan berriro, baina ezponda garaia zen, pikoa, lokatzez betea eta distiratsua. Lokatzak belarra eta sasiak estali eta bidezidorrak ezabatuak zituen. Kontzentratu-kontzentratuta igo zen, baina lau pauso eginda irrist egin eta behera erori zen berriro, albo bat oso-osorik lokatzez zikinduz. Lokatza eskuaz kendu eta berriro ahalegindu zen. Aldaparen erdian, oreka galdu, helduleku baten bila alferrik saiatu eta berriro erori zen iraulka. Ia garrasi egin zuen, baina berehala itxi zuen ahoa, inguru guztian entzun zen hortz-klaska bat eginez. Jantzia eta oinetakoak lokaztuta zituenez, ukalondoetan eta belaunetan bermatuz igo zen hirugarrenean. Bide ertzean zutitu eta fusilari lokatza kentzeko eseri zen; horretan luizitxo baten zarata entzun zuen mendi aldetik. Begiak luzatuz, zentinela bat ikusi zuen bidearen ezker aldeko kareharrizko haitz batetik salto egiten. Herriak harkaitzaren atzean egon behar zuen ia bertan, zeruan tximinia askotako ke zuria baitzihoan ihesi.

Zentinela bidearen erdian zegoen pausatuta, hanka zabalik.

—Jaitsi arma hori, Garibaldi! –esan zuen ozen Miltonek–. Badogliotar partisanoa naiz. Zuen komandante Hombrerekin hitz egitera nator.

Mosketoia pixka-pixka bat jaitsi eta aurrera egiteko keinua egin zuen. Mutikotxo bat baino askoz gehiago ez zen, erdi nekazari erdi eskiatzaile jantzita,

eta artilezko txanoaren erdi-erdian izar gorri-bizi bat zuela.

—Seguru badituzula zigarreta ingelesak –esan zion lehenengo gauza.

—Bai, baina mana hori ia bukatu da –eta Miltonek Craven A-ren paketea erakutsi zion, pixka bat astinduz.

—Bi hartuko dizkizut –esan zuen mutikoak bi zigarro hartuz–. Nolakoak dira?

—Gozo antxak. Etorriko zara nirekin, hortaz?

Gorantz zihoazen, eta Miltonek uniformetik lokatza kentzen zuen pauso bakoitzeko.

—Hori da fusil amerikarra, ezta? Zein kalibretakoa da?

—Zortzikoa.

—Hortaz, horren balak ez dira egokitzen Stenerako. Ez duzu, bada, Sten balaren bat edukiko poltsikoetan galduta?

—Ez, eta zertarako erabiliko zenuke, gainera? Ez duzu Stenik.

—Inguratuko dut. Nola liteke Sten balarik aldean ez edukitzea? Zuek badituzue jaurtiketak.

—Ba, ikusten duzu fusila darabildala, eta ez Stena.

—Nik –jarraitu zuen mutilak–, zure aukera izango banu, Sten hartuko nuen. Horrek ez du rafagarik, eta rafagak gustatzen zaizkit niri.

Bidearen maila berean, azpiko pendizean holahala eraikitako etxe bateko teilatu hondatua ageri zen. Zentinelak harantz jo zuen.

—Ez da posible hori izatea agintaritza-postua –ohartarazi zion Miltonek–. Zaindari postu bat izango da.

Mutila maldan behera zihoan erantzun gabe.

—Nik agintaritza-postura joan nahi dut –errepikatu zion Miltonek–. Esan dizut Hombreren laguna naizela.

Baina mutila lokatzez beteta zegoen larrain batera sartua zen jauzi batez. Erdizka biratu eta esan zuen:

—Hemendik igaro behar da. Nemegaren agindua daukat denak hemendik pasarazteko.

Larrainean dozena erdi bat partisano zeuden, batzuk zutik, beste batzuk kokoriko, baina denak hormaren kontra, lokatzaren eta itoginen mugan. Alde batean, estalpe erdi jausi bat zegoen, oila-kotaz betea; hango aire iluna hezetasunak are gehiago nabarmenarazten zuen oilo-zirinaren kiratsez beteta zegoen.

Haietako batek begirada jaso eta ustekabeko falsetto-ahots batez esan zuen:

—To, badogliotar bat. Horiek bai jaunak. Begira, begira nola doazen armatuta eta ekipatuta gaixoak.

—Begira nola noan lokaztuta ere! —esan zion Miltonek lasai.

—Eta begira, hori da amerikar fusil famatua –esan zuen beste batek.

Eta hirugarren batek, inbidia izateko lekurik uzten ez zuen miresmenez:

—Eta hori Colt-a da. Egin argazki bat Colt-ari. Hori ez da pistola bat, kanoi txiki bat da hori. Hombrek duen Llama baino handiagoa. Egia al da Thompsonak erabiltzen dituen bala berberak botatzen dituela?

Zentinelak, aurretik joanez, gela huts batera eraman zuen; hutsik zegoen, bi eserleku eta oramahai baten hondarrak salbu. Gaizki ikusten zen eta mutila petrolio-lanpara bat pizteko moldatu zen. Argi gutxi egiten zuen, eta dominiskiku eragiten zuen ke beltz, lodi bat askatzen zuen.

—Nemega berehalaxe etorriko da –esan zuen mutilak, eta Miltonek Nemega hura nor zen galdetu baino lehen atera zen.

Ez zen harkaitzean zuen guardia-lekura itzuli; larrainean geratu zen besteekin. Haietako bat Miltonek igarotzean ikusi ez zuen txakur kateatu bat txantxetan destatzen ari zen.

—Zer nahi duzu?

Milton biratu egin zen. Nemega zaharra zen, hogeita hamar urte bazituen gutxienez, eta bunker baten sarrera zirudien aurpegia, begietako eta ahoko zirrikituekin. Zamarra iragazgaitz bat zeraman, etengabeko euripean kartoizko kaxa baten itxura karratua hartua.

—Hombre komandantearekin hitz egin.

—Zertaz hitz egin?

—Hari esango diot.

—Eta nor zara zu Hombrerekin hitz egin nahi izateko?

—Milton naiz, Badogliotarren Bigarren Dibisiokoa. Mangoko brigadakoa. –Pascalen brigadakoa zela esan zuen, Leorena baino handiagoa eta ezagunagoa zelako.

Nemegaren begiak ia ez ziren ikusi ere egiten.

—Ofiziala zara? –galdetu zion Nemegak.

—Ez naiz ofiziala, baina ofizial eginkizuna dut. Eta zu nor zara? Ofiziala zara, komisarioa edo komisariordea?

—Ez dakizu gorrotoa dizuegula zuei, badogliotarrei?

Miltonek malenkoniazko jakin-minez begiratu zion.

—Zergatik?

—Guregandik desertatu bat zuen artean hartu duzue. Walter izeneko bat.

—Hori da dena? Baina gure printzipioetako bat da. Gure artean libre zara sartzeko zein alde egiteko. Brigada beltzetara ez alde egiteko baldintzapean, noski.

—Gu zuen kokaguneetara joan izan gara gizon hori berriro gureganatzeko eta, ez itzuli ez ezik, edo atzera egin eta desagertzeko edo metrailadoreez uxatuko gintuzuela esan zeniguten.

—Non gertatu zen hori? –esan zuen Miltonek hasperen eginez.

—Cossanon.

—Gu Mangokoak gara, baina berdin jokatuko genukeela iruditzen zait. Oker zeundeten zuetaz ezer jakin nahi ez zuen gizon bat erreklamatzen.

—Ea ulertzen dugun –esan zuen Nemegak hatzak klaskatuz–. Guri ez zitzaigun interesatzen gizona, arma interesatzen zitzaigun guri. Mosketoiarekin desertatu zuen, eta fusila brigadarena zuen, ez berea. Mosketoia ere ez diguzue itzuli nahi izan, eta zuei jaurtiketak egiten dizkizuete; hainbeste arma eta munizio dituzue, non ez baitakizue zer egin eta lurpean gorde behar izaten dituzue. Gezurra da Walterrek zuen bizkarren atzean ezkutatuta esaten zuena, mosketoia berea zuela, berak ekarri zuela brigadara. Brigadarena zen. Walter bezalako elementuek, dozena batek ere ihes egin diezagukete, baina armarik, bat bera ere ez dugu galdu behar. Ikusten duzunean, esan Walterri ez nahasteko bidez inoiz, gure eremutik urrun ibiltzeko.

—Esango diot. Nor den galdetuko dut eta esango diot. Orain ikus dezaket Hombre?

—Ezagutzen duzu Hombre? Hombre bera, esan nahi dut, ez entzutez bakarrik.

—Verdunoko guduan elkarrekin ginen.

Zirrara eragin ziola zirudien, huts egiten harrapatuta bezala, eta Miltoni iruditu zitzaion Verdunoko garaian Nemega mendiratu gabe zegoela artean.

—A! –egin zuen–. Baina Hombre ez dago.

—Ez dago? Berriketan eduki nauzu Walter hori eta bere mosketoi xaxtarra dela-eta, eta orain esaten didazu Hombre ez dagoela? Eta non dago?

—Kanpoan.

—Kanpoan non? Zenbateraino urruti?

—Errekaz beste aldean.

—Erotu egin behar dut. Zertara joan da errekaz beste aldera?

—Esango dizut. Gasolina bila. Gasolina gisa erabiltzeko disolbatzaile bila.

—Gaur gauean ez da itzuliko?

—Ez da erraza izango gaur gauean hemen azaltzea.

—Garrantzi eta presa handiko gauza batengatik etorri naiz. Faxista presorik ba al duzue?

—Guk? Guk inoiz ez dugu izaten. Preso hartzen ditugun une berean desagerrarazten ditugu.

—Gu ez gara zuek baino samurragoak –esan zion Miltonek–. Hor duzue froga: guk ez dugu eta zuei eskatzera etorri gara.

—Hau gauza berria dugu –esan zuen Nemegak–. Eta guk oparitan eman behar dizuegu?

—Mailegutan. Arauzko mailegu bat. Komisarioa badago behintzat?

—Komisariorik oraindik ez daukagu. Oraingoz, Monforteko dibisioko komisarioa etortzen da aldian behin.

Nemega biratu eta petrolio-lanpararen garra bizitzera joan zen, eta itzulita esan zuen:

—Zer egin nahi zenuten harekin? Zuetako batekin trukatu? Noiz harrapatu dute?

—Gaur goizean.

—Non?

—Beste aldeko maldan, Albaranzkoan.

—Nola?

—Lainoa. Gure aldean esne-itsaso bat zirudien.

—Anaia duzu?

—Ez.

—Adiskidea, hortaz? Ulertzekoa da, horrelako mandatua egiteko honaino lokatzetan etorri bazara. Baina ez zarete gai inguruak miatu eta bat harrapatzeko, ala?

—Noski –erantzun zion Miltonek–. Gureetako batzuk horretan dabiltza dagoeneko. Horrexegatik geunden seguru gizona itzuli ahal izango genizuela. Baina ez da irailean mahatsa biltzera joatea bezala. Gerta liteke egun batzuk behar izatea horretarako eta bitartean, gu hemen eztabaidan ari garen bitartean, nire adiskidea dagoeneko hormara eraman izana.

Nemegak birao bat bota zuen, isilik baina kontzentratua.

—Hortaz, ez daukazue.

—Ez.

—Lehenago edo geroago Hombre ikusiko dut eta esango diot nola etorri naizen.

—Esaiozu nahi duzun guztia —erantzun zuen Nemegak lehor–. Nik garbi daukat kontzientzia. Esan dizut ez dugula presorik, eta egia da. Baina egon, hitz egin dezakezu presorik zergatik ez dugun esango dizun batekin.

—Alferrik da… –hasi zen Milton, baina Nemega etxola barruan galdua zen eta «Paco, Paco» ari zitzaion deitzen norbaiti.

Izen horrek ikara eragin zion. Paco. Ez zen bada ezagutzen zuen Paco hura izango. Ezin zuen izan, beste

Paco izan behar zuen inondik ere. Nolanahi ere, Paco gerra-izena zuen partisanorik ezin izan zitekeen askorik.

Berriro entzun zuen Nemega, Pacori deika, ibarrean, ahots apal eta isilez.

Miltonek garai batean badogliotarra izandako Pacoren bat, uda hasieran Neiveko goarnizioan egona, zuen gogoan. Gero, Pierrerekin, konfiskazio baten kontura Pierre bere komandantearekin liskartu eta desagertu egin zen; batzuek, bai, Izar Gorrira pasa zela pentsatu zuten. «Baina ezin izan daiteke Paco hura», erabaki zuen azkenean Miltonek.

Baina huraxe zen, hain zuzen, batere aldatu gabe, gizena, baldarra, eskuak okindegiko palak bezain handiak eta ile xerlo gorrizta bekoki horixkan. Sartuz batera ezagutu zuen Milton. Oso tipo lagunkoia izan zen beti, eta Miltonek ere izan zuen berriketa bat baino gehiago harekin.

—Milton, alproja zaharra, gogoratzen zara Neivez?

—Bai horixe. Baina gero alde egin zenuen. Pierreren erruz izan zen?

—Bai zera –erantzun zion Pacok–. Denak sinistuta daude Pierreren erruz alde egin nuela, baina ez da egia. Neive ez zitzaidan gustatzen.

—Niri ez zidan atzera eragiten.

—Niri bai. Azken aldian ezin zuen onez eraman, ez nuen lorik ere egiten. Sineskeria hutsa izango zen beharbada, baina ez zitzaidan gustatzen posizioa, ezin nuen onez eraman bi auzotan banaturik egotea, ezin nuen eraman trena erditik pasatzea. Azken aldian, ezin nuen jasan kanpai-hotsa ere, orduak jotzen zituenean.

—Eta orain, zer moduz Garibaldin?

—Gaizki ez. Baina garrantzia duena ez da gorriak edo urdinak garen, faxista guztiak suntsitzea baizik.

—Ados –esan zuen Miltonek–. Esango didazu Hombrek faxistarik preso ba duen?

Pacok burua astindu zuen segituan.

—Erre ingeles bat –esan zion Miltonek paketea eskainiz.

—Bai, pozik probatuko dut bat. Badogliotarrekin nengoenean ingelesek ez zuten jaurtiketarik egiten oraindik.

—Egia al da Hombre kanpoan dagoela?

—Errekaz beste aldean dago. Tabako gozoa, emakumeentzakoa.

—Bai. Ez duzue presorik, hortaz?

—Egun bat beranduegi iritsi zara –erantzun zion Pacok ahapeka.

Miltonek etsipen-irribarre bat egin zuen.

—Hobe zenuen esan ez bazenit, Paco. Eta nor zen?

—Littorio dibisioko kabo bat.

—Behar nuena, hain zuzen.

—Zerri puska bat. Lonbardiarra. Trukeren bat egiteko nahi zenuen? Nor harrapatu dute zuetatik?

—Giorgio –esan zion Miltonek–. Mangoko gure kide bat. Gogoan izango duzu beharbada. Mutil eder, ilehori, dotore hura…

—Baietz uste dut, baietz uste dut.

Miltonek burua makurtu eta fusila sorbaldan jarri zuen berriro.

—Atzo bertan –xuxurlatu zuen Pacok–, atzo bertan garbitu genuen.

Larrainera jaitsi ziren berriro. Han zeuden bospasei lagunak desagertuak ziren norabait, eta zakur kateatua baizik ez zen agertu, eta gainera oldartu zitzaien erdi itorik zaunka eginez. Oso-oso iluna zen eta eroaren moduan tiratzen zuen, bira eta bira, isatsari hozka egin nahi balio bezala.

Pacok errepideraino eta beste puska batez lagundu zion.

—Urdina izateko, gogokoa zintudan –esan zion.

Errepidean zihoazela, Pacok esan zion:

—Ez duzu jakin nahi nola hil zen?

—Ez. Hilda dagoela jakinda, niretzat nahikoa.

—Hortaz egon seguru.

—Zuk egin zenuen?

—Ez. Nik lagundu besterik ez nuen egin. Hemendik ikusten ez den baso batean. Eta bukatu bezain laster, korrika alde egin nuen. Egiten duenak lurperatzen du; bidezkoa da, ezta?

—Bidezkoa da.

—Bi garrasi egin zituen. Badakizu zer oihukatu zuen? Gora Ducea!

—Eskubidea zuen –esan zuen Miltonek.

Ez zuen euririk egiten, baina zeharkako haizeak eraginda akaziei zeharka zerien ura, ia gaiztakeriaz, garrazki. Milton eta Paco dardarka zeuden. Kareharrizko haitz handia ilunpetan desagertzen ari zen.

Paco ohartu zen Miltonek ez ziola eragotziko, eta kontatzen hasi zen:

—Atzo goiz osoan duce madarikatu horrekin tabarra ematen aritu zitzaidan. Ni nintzen zaintzailea. Hamarrak aldera, Hombrek moto bat bidali zuen Benevelloko erretorearen bila, kabo horrek apaiz bat nahi zuelako. Benevelloko erretoreaz ari garenez, atzo goizean barre eginarazi zidan, eta orain zuri ere barre eginarazi nahi dizut. Sidekarretik jaitsi bezain laster joan zaio lasterka Hombrerengana eta botatzen dio: «Nahikoa da, nik izan behar beti zuen kondenatuak aitortu behar dituena! Hurrengoan deitu Roddinoko erretoreari, mesedez. Ni baino gazteagoa dela eta ger-

tuago bizi dela aparte utzita, txanda egin beharko da, txandaka, Jaungoikoarren!»

Miltonek ez zuen barre egin, eta Pacok jarraitu zuen:

—Orduan apaiza eta soldadua sotoko eskaileraren erdira erretiratu ziren. Ni eskaileraren goialdean geratu nintzen Giulio izeneko beste batekin, mugimendu okerren bat egiten bazuen bertan akabatzeko prest. Baina zer esaten zuten hitz bat bera ere ez genuen aditzen. Hamar minuturen buruan badatoz berriro gora eta azken mailan apaizak esaten dio: «Jainkoarekikoak konpondu dizkizut; gizonekikoei dagokienez ezin dut ezer egin zoritxarrez», eta ospa egiten du. Kaboa Giuliorekin eta nirekin geratu zen. Ikara egiten zuen, baina ez askorik. «Zeren zain gaude orain? Ni prest nago», esaten du. Eta nik: «Zure unea ez da iritsi oraindik». «Horrek esan nahi du ez dela gaurko?» «Gaur bai, baina ez oraintxe». Orduan esertzen da larrainaren erdian, bi arrako lokatzetan eta burua eskuen artean hatzen du. Nik esaten diot: «Apaizak alde egin baino lehen gutun bat idatzi nahi baduzu…» Eta berak: «Eta nori idatzi behar diot? Ez dakizu puta baten eta bixkorrenaren semea naizela? Ala Tornuko Umeen Lehendakariari idaztea nahi duzu?» Eta Giuliok: «Hara bada, errepublika honetan hainbeste al zarete inoren seme ez zaretenak?» Horren ondoren, Giuliok esaten dit bost minuturako alde egin behar duela mandatu bat egitera, eta arma niri utzi eta alde egiten du. «Kaka egitera doa» dio kaboak, begiez hari jarraitu gabe. «Zuk gogorik baduzu?» galdetzen diot nik. «Baliteke, baina zertarako?» «Erre ezazu zigarro bat, hortaz», diot nik, eta paketea eskaintzen diot, baina ez du hartzen. «Ez dut erretzen. Ez didazu sinistuko, baina ez dut erretzeko ohiturarik». «Tira, erre ezazu. Ez dira oso gogorrak, nahiko onak

dira». «Ez, ez dut erretzeko ohiturarik. Erreko banu, eztulka batean hasiko nintzateke. Eta nik oihu egin nahi dut. Hori behintzat». «Oihu egin? Orain?» «Ez, orain ez, unea iristen zaidanean». «Egin oihu nahi duzun guztia», nik. «Gora Ducea oihu egingo dut», jakinarazten dit. «Oihukatu nahi duzun guztia –esaten diot–; hemen inor ez da eskandalizatuko. Baina gogoratu alferrik ari zarela. Zure duce hori koldar hutsa da». «Tira, tira! –berak–, Ducea heroi handia, ikaragarria da. Zuek, zuek bai, koldarrak galantak. Eta gu ere bai, gu, haren soldaduak, koldar hutsak. Koldar hutsak ez bagina, hil artean bizitzen aritu ez bagina, dagoeneko denak suntsituta edukiko zintuzketegun, zuen azkeneko tontorrean ere gure ikurrina jarria izango genukeen. Ducea, berriz, sekulako heroia da, eta Gora Ducea! oihukatuz hilko naiz ni». Eta nik: «Esan dizut nahi duzuna oihukatzeko, baina berriro diotsut alferrik ari zarela, nire ustez. Seguru nago askoz hobeto hilko zarela zu hura bere ordua iristen zaionean baino. Eta aurki izango da, munduan justiziarik bada». Eta berak: «Eta nik berriz diotsut Ducea sekulako heroia dela, inoiz ikusi den heroirik handiena, eta gu guztiok, italiarrak, zuek eta gu, hura bezalakorik merezi ez genuen nazkagarriak». Eta nik: «Zu zauden egoeran egonda, ez dut zurekin eztabaidan hasi nahi. Baina zure duce hori koldar hutsa da, sekula ikusi den koldarrena. Aurpegian irakurri nion. Entzun hau. Behin garai hartako, zuentzat garai onak diren haietako egunkari bat ikustea suertatu zitzaidan, orri erdi bat hartzen zuen haren argazki batekin, eta ordubete eman nuen hura aztertzen. Bada, begira, aurpegian irakurri nion. Eta hainbeste tematzen banaiz zeragatik da: ez dudalako nahi hiltzera zoazenean Gora Hura oihukatuz denbora galtzerik. Argi baino argiago ikusten dut. Orain zuri bezala hari ere txanda

iristen zaionean, ez du jakingo gizon bezala hiltzen. Ezta emakume bezala ere. Zerri bat bezala hilko da, garbi daukat. Koldar hutsa delako». «Gora Ducea!» bota zidan, baina ahots beheran, burua esku artean zuela betiere. Eta nik ez dut galtzen pazientzia eta esaten diot: «Koldar hutsa da. Zuetatik norbait zerria bezala hiltzen bada, jainko baten moduan hilko da, harekin alderatuta. Hura inon den koldarrena delako. Italia existitzen denetik inoiz izan den italiarrik koldarrena, eta Italiak beste milioi bat urte iraun arren hain koldarrik ez da beste bat jaioko». Eta hark: «Gora Ducea!» errepikatzen zidan, ahots beheran betiere. Gero Giulio etorri zen, eta esan zidan: «Azkar bukatzea nahi dute». Eta nik kaboari: «Jaiki» «Ongi –hark–, goazen eguzkitatik». Gogoratu lodi ari zuela euria.

Zubitxoa ikusten zen leku bateraino iritsiak ziren.

—Laga nazazu hementxe bertan –esan zion Miltonek–. Amorrua ematen dit berriro zerria bezala lokaztu beharrak.

—Zer bada?

—Zubia. Minatuta dago, ezta?

—Baita zera ere minatuta. Nondik atera behar genuen lehergailua? Eta orain zer egin behar duzu?

—Nireetara itzuli.

—Zer egingo duzu zure lagun horren alde?

Miltonek zalantza izan zuen, baina esan egin zion.

Pacok zarata eginez arnasa hartu eta esan zuen:

—Esadazu zein ingurutan saiatuko zaren. Alba, Asti edo Canelli?

—Asti urrutiegi dago. Ni Albakoa naiz, eta gaizki ateratzen bazait… Neure herrian gaizki buka dezakedala pentsatzeak ere gogaitu egiten nau. Gero prozesio bat antolatuko zuten ni ikustera joateko. Eta istiluren

bat sortuko banu, sartuko banintz, libre ateratzeko tiro egitera behartuko banintz, Giorgio beren eskutan daukate mendekua hartzeko.

—Canelli geratzen da –esan zuen Pacok–, baina nik baino hobeto dakizu Canellin San Marco osoa dagoela. Errekarik arriskutsuenean arrantzatu nahi duzu.

—Atzetik begiratuta, gizaki guztiak berdinak.

8

Gaueko hamarrak aldera, Milton, Treisora Leorenera itzuli ordez, Santo Stefano eta Canelli gaineko mendixkaren magalean galdutako basetxe batean zegoen, Treisotik bi ordura.

Etxea haztamuka aurkitu zuen ilunpetan, baina buruz ezagutzen zuen. Etxe apal okertu bat zen, teilatuan berebiziko esku-kolpe bat eman eta geroztik bere onera inoiz itzuli ez balitz bezala. Grisa zen, ibarreko tuparriaren gris berekoa; leiho txikiak hondatuak zituen, afruntuek usteldutako oholez estaliak ia denak, eta zurezko balkoitxo bat, usteldua hura ere, eta petrolio lata zatiez petatxatua. Hegal bat eroria zuen eta hondakinak basagereziondo baten enborraren inguruan zeuden pilatuta.

Teilatua berritutako aldean zuen etxe hark alaitasun pixka bat, baina sorgin zahar baten ilean jarritako krabelin gorri baten itxura ematen zion.

Milton tabakoa erretzen ari zen, arto-lokotxen su eskasari begira, afariko platerak ur hotzezko terreina batean hondoratzen ari zen atsoari bizkarra emanez.

Kalez jantzirik zegoen dagoeneko, eta ez zitzaion iruditzen behar bezala babesturik zegoenik. Jaka, batez ere, oso arina zen beretzat, udakoa-edo, eta are gehiago nabarmentzen zion bere argaltasun nabaria. Fusila sutondoko zoko batean utzia zuen eta bere ondoan, eserlekuan, pistola zeukan.

Berari begiratu gabe atsoak esan zion:

—Zuk sukarra duzu. Ez jaso bizkarra. Sukarrari ez zaio bizkarra jaso behar. Pittin bat besterik ez, baina baduzu.

Xurgada bakoitzeko eztula egiten zuen Miltonek, eta eztula itotzen saiatzen zen ahaleginean.

Emakumea berriro hasi zen:

—Oraingoan gaizki eman dizut jaten.

—Ez, bai zera! –esan zuen Miltonek bizi-bizi–. Arrautza bat eman didazu!

—Lokotxen su honek ez du berotzen, ezta? Baina egurra zaindu egin behar da. Negua luze-luzea izango da.

Miltonek baietz egin zion buruaz.

—Mundua mundu denetik negurik luzeena izango da. Sei hilabeteko negua izango da.

—Zergatik sei hilabetekoa?

—Ez nuen uste bigarren negu bat igaro beharko genuenik. Ez dadila inor hasi aurrez iragarri zuela esanez, bestela gezurtia edo ahobero hutsa dela botako diot. –Atsoarenganantz erdi biratu eta esan zion:– Joan den neguan banuen arkume-larruzko zamarra bikain bat. Apiril erdi inguruan bota egin nuen, bikain askoa zen arren eta arropa botatzen dudanean bihotzean min ematen didan arren. Pentsa ezazu, gaztetan, gerra hasi baino lehen, bihotzean min ematen zidan zigarrokinak botatzen nituenean, gauez, ilunpean botatzen nituenak batez ere. Pentsa, zigarrokinen zoriak bihotzean min ematen zidan. Zamarra hura landare-hesi baten

atzean bota nuen, Murazzano inguruan. Orduan seguru uste nuen berriro hotza etorri baino lehen nahikoa eta sobera denbora izango genuela bi faxismo suntsitzeko ere.

—Eta orain? Noiz bukatuko da hau? Noiz esan ahal izango dugu ki-to?

—Maiatzean.

—Maiatzean!?

—Horregatik esan dut sei hilabete iraungo duela neguak.

—Maiatzean –errepikatu zuen andreak bere baitarako–. Egia da izugarri urruti dagoela hori, baina zu bezalako mutil serio eta ikasi batek esaten badu, behintzat, bada muga bat. Muga bat da jende xeheak behar duen gauza bakarra. Gaur gauetik bertatik hasita neure burua konbentzitu nahi dut maiatzetik aurrera gure gizonek berriro joan ahal izango dutela azoketara eta merkatuetara lehen bezala, bidean hil gabe. Gazteek aire zabalean dantza egin ahal izango dute, emakume gazteak gogo onez geratuko dira haurdun eta guk, emakume zaharrok, arrotz armatu batekin topo egiteko beldurrik gabe irten ahal izango gara larrainera. Eta maiatzean, arrats ederretan, kanpora atera ahal izango gara, eta herrietako argiteria ikusi eta hartaz gozatu ahal izango dugu, dibertigarritzat.

Andreak hitz egin eta bakezko uda hura deskribatzen zuen bitartean, keinu mingarri bat marraztu eta finkatu zen Miltonen aurpegian. Fulviarik gabe ez zen udarik izango beretzat; bera izango zen munduan uda mami-mamian hotza sentituko zuen bakarra. Berak igerian zeharkatutako ozeano ekaiztsu haren ertzean Fulvia zain bazuen, hori… Jakin beharra zuen nahita ez bihar, hautsi beharra zuen nahita ez eltzeitsu hura eta egiaren liburua erosteko dirua handik atera.

Horretan guztian pentsatu ahal izan zuen, zeren, minutu batez, emakumea isildu eta sabaia jotzen zuen euriari adi egon baitzen.

—Ez al zaizu iruditzen –esan zuen gero– Aita Zeruetakoa gogorkiago ari dela deskargatzen nire etxearen gainean beste lekuetan baino?

Miltonen aurretik igaro, saskian geratzen ziren arto-lokotxak sutara bota, eta aurrean jarri zitzaion, lehor, krakatsu, hortzik gabe, kiratsa zeriola, eskuak, hezurtxo sorta bat bilakaturik, aldaketan pausatuta, Milton, ahaleginean, hura izana zen neska gaztea, haurra imajinatzen saiatzen zen bitartean.

—Eta zure laguna? –galdetu zion atsoak–. Gaur goizean zoritxarra izan duen mutil gaixo hori?

—Ez dakit –erantzun zion, begirada lurrera desbideratuz.

—Ikusten da sufrikarioa eragiten dizula. Ezin al duzu haren alde ezer egin?

—Ezer ez. Dibisio osoan ez zegoen preso bat bera harekin trukatzeko.

Atsoak besoak jaso eta astindu zituen.

—Ikusten nola komeni den presoei bizia barkatzea, gaur goizekoa bezalako kasuetarako edukitzea? Eta bazeneuzkaten. Neuk ikusi nuen bat, orain dela aste batzuk, nire etxe aurreko bidezidorretik igarotzen, begiak estalita eta eskuak lotuta, Firpok belaun-kolpez aurrera jarraitzera behartzen zuela. Larrainetik garrasi egin nion erruki pixka bat izateko, denoi gerta dakigukeela-eta erruki beharra izatea. Firpo amorru bizian biratu zen, sorgin zaharra deitu zidan eta segituan ezkutatzen ez banintzen tiro egingo zidala esan zidan. Firpo, jaten eta lo egiten ehun aldiz eman diodana. Ikusten presoei bizia nola barkatu beharko litzaiekeen?

Miltonek burua mugitu zuen.

—Gerra hau honela baizik ezin egin daiteke. Eta ez dugu guk agintzen nola egin, berak guri baino.

—Baliteke, bai –esan zuen emakumeak–, baina, bien bitartean, han behean, Alban, Alba bilakatu den leku madarikatu horretan, dagoeneko hilik izango dute. Hilik, guk untxiak hiltzen ditugun bezala.

—Ez dakit, ez dut uste oraindik. Benevellotik bueltan nentorrela, Montemarinorako errepidean, Comoko goarnizioko Otto topatu dut. Ezagutzen duzu Otto?

—Bai, ezagutzen dut Otto ere. Behin baino gehiagotan eman diot jaten eta lo egiten.

—Ottok oraindik ez zekien ezer. Hura Albatik hurbilen dagoen goarniziokoa da. Fusilatu izan balute, Ottok jakingo zukeen dagoeneko.

—Hortaz, bihar arte zertan beldurra izanik ez dago?

—Ez du hori esan nahi. Han behean fusilatu zuten gutako azkena gaueko ordu bietan hil zuten.

Atsoak eskuak burura eraman zituen, baina ez zituen hartan pausatu.

—Zu bezala Albakoa zen, oker ez banago.

—Bai.

—Lagunak zineten?

—Elkarrekin hazi ginen.

—Eta zu?

—Ni zer? –bota zuen Miltonek–. Nik… Zer egin dezaket nik?

—Esan nahi nuen zu aise egon zintezkeela haren lekuan.

—Bai, hori bai.

—Bururatzen zaizu?

—Bai.

—Eta ez…?

—Ez. Alderantziz. Lehen baino okerrago.

—Baina ama bizi duzu, ezta?

—Bai.

—Eta ez duzu hartan pentsatzen?

—Bai. Baina ondoren beti.

—Zeren ondoren?

—Arriskua igarota gero. Arriskua baino lehen eta bitartean inoiz ez.

Atsoak hasperen egin zuen eta ia irribarre ere bai, lasaitasun ia dohatsu batez.

—Hainbesteraino desesperatu nintzen –esan zuen–, hainbeste atsekabetu nintzen, non ia eraman baininduten eroetxera…

—Baina zer ari zara esaten?

—Nire bi semeez ari naiz –erantzun zuen, irribarrea areagotuz–, hogeita hamabian hil zitzaizkidan tifusez. Bata hogeita bat urterekin eta bestea hogeirekin. Hainbesteraino desesperatu nintzen, hainbesteraino erotu nintzen, non benetan maite nindutenek ere giltzapetu egin nahi baininduten. Baina orain pozik nago. Orain, denborak mina arinduta, pozik eta soseguan nago. Zein ondo dauden nire bi seme gaixoak, zein ondo dauden lur azpian, gizonengandik salbu…

Miltonek eskua jaso zuen, isiltzeko eskatzeko. Colta hartu eta atera destatu zuen.

—Zure txakurra –xuxurlatu zion atsoari–. Ez zait gustatzen nola ari den.

Kanpoan marmar itoak egiten zituen zakurrak, oso ondo entzuten zitzaion euriaren zurrumurru nahasgarriaren artean. Milton aulkitik erdi jaikita zegoen eta pistolaz sarrerara destatzen zuen.

—Ez kezkatu –esan zion atsoak ohi baino ozenago–. Ezagutzen dut animalia hori. Ez du hori egiten arriskua dagoelako, bere buruarekin haserre dagoelako

baizik. Bere burua onez eramaten ez dakien txakurra da, inoiz ez du jakin. Ez nintzateke batere harrituko goiz batean larrainera irten eta bere hankez urkatuta aurkituko banu.

Zakurrak ez zion uzten marmarrari. Miltonek pixka bat entzuten jarraitu zuen, gero pistola utzi eta berriro eseri zen. Atsoa sukaldeko urruneneko zokora itzuli zen.

Halako batean Miltonengana jakin-minez jiratu zen eta zer esan zuen galdetu zion.

—Nik ez dut hitz egin.

—Bai, hitz egin duzu.

—Ez dut uste.

—Zaharra naiz eta ez nuke lehian hasi behar hogei urteko mutil batekin nork duen entzumen hobea. Baina «lau» eta beste zerbait esan duzu. «Lau horietako bat» esan duzu beharbada.

—Litekeena, baina ez naiz konturatu.

—Minutu bat ere ez du egin. Lau batekin zerikusia duen zerbait pentsatzen ari zinen?

—Ez naiz gogoratzen. Hemen normalik ez da geratzen. Euria da normala izaten jarraitzen duen bakarra.

Egiaz, «lau haietako bat» erabili zuen gogoan, eta, ozenki adierazi zuen inondik ere. Eta gogoan zerabilen oraindik ere, burmuinetik sudurrera goiz hartan bertan Verdunoko tabernan zegoen behi-birika egosiaren kiratsa jaisten zitzaion bitartean.

Huraxe izan zen urdinek eta gorriek elkarrekin borrokatu zuten lehenengo aldia. Verdunoko goarnizioa badogliotarra zen, eta hurrengo isurialdean brigada gorri bat zegoen, Victor frantsesaren agindupean. Albako erregimentuko batailoi bat agertua zen dagoeneko haranaren barrenean. Infanteria eta zalditeria ziren, baina zalditeria azkeneko unean agertu

zen. Infanteria zentzu onik gabe zihoan aurrera, segurtasun-aurrelaririk gabe, alboko babesik gabe, ezer gabe. Victor, ordurako plazara iritsia, luzaro egon zitzaien begira prismatikoekin, eta esan zuen:

—Ez tiro egin hurbilketa fasean; sinets dezatela herria babesgabe eta bakean dagoela, eta kaleetan eta plazan hartuko ditugu, á bout portant, bertatik bertara. Segadan sartuta daudenean, orduan ohartuko dira. Ergelak dira edo mozkortuta daude; ez duzue ikusten?

Tabernara joan ziren plana eztabaidatzera; behi-birika egosiaren kirats nazkagarria zegoen. Edo, badogliotarren komandantea Victorren planaren kontra zegoen, herriak gero sekulako errepresaliak jasango zituelako. Askoz hobe zen, esan zuen, herritik kanpo modu erregularrean borrokatzea, zelai irekian, eta emaitza edozein zela ere, herria ondorioetatik salbuetsita geratuko zen, normala den bezala.

—Horra urdin tipikoa, urdin bete-betea –xuxurlatu zion Miltoni Hombrek, une hartan destakamenduko komandante soila zenak. Milton eta beste urdinen batzuk Victorren planaren alde agertu ziren, baina Edok bere borroka erregularrari eusten zion. Egiazko ofizial baten burua zuen eta, batez ere, ziur zegoen, azken garaipena gauza segurua bazen ere, tarteko gudu txiki edo handi guztiak galdu egingo zituztela partisanoek, hutsik egin gabe. Orduan, erdi frantses erdi italieraz, Victorrek esan zuen:

—Verdun zuen goarnizioa da, baina ni barruan nago eta ez naiz erretiratuko. Zuek kanpotik defendatu, nahi baduzue, nik barrutik defendatuko dut. Eta Verdunek larrutik ordainduko du, zeren eta, nire indarrez bakarrik, ezingo diet urrun eutsi.

Horrela bada, Edo ere konbentzitu egin zen eta amore eman zuen.

Ados geratu ziren herri barruan itxarongo zietela eta bitartean ez zutela bizi-seinalerik txikiena ere emango. Milton plazako parapetoaren atzean kokatu zen, eta haren ondoan, hain zuzen ere, Hombre bera ezkutatu zen. Elkarrekin begiratzen zuten faxistak neke handiz zetozela. Zati bat errepidetik ari zen igotzen, bestea belardietatik eta soroetatik. Hauei gehiago kostatzen zitzaien, maiz irristatzen ziren, astebete ere ozta-ozta baitzen elurra urtu zuela, eta ofizialak han izan ez balira, errepidetik mugituko ziren denak, artalde baten moduan.

Hain hurbil zeuden eta airea hain garbia zen, non Miltonek, bere ikusmen zoliaz, ongi ikusten baitzizkien aurpegiak, nork zuen bizarra eta bibotea eta nork ez, nork zerabilen automatikoa eta nork mosketoia. Gero herri barruko antolamendua ikusteko biratu eta Victor eta bereak herriko baskularen ondoan eta bere taldeko gehienak Saint-Etienne-koekin zelatan kokatuta ikusi zituen.

Beste aldera begiratu eta bere urdinak metrailadore amerikarrarekin ikusi zituen. Beste une batez parapetoaren atzean geratu ziren, gero katuka erretiratu ziren, eta Milton udaletxeko atarira joan zen bere taldekoekin elkartzera. Hombre ez zen taldean joan, baizik eta ahal zuen guztia bakartu eta estankoaren kantoiaren atzean ezkutatu zen. Azaldu zen lehenengoa, sarjentu handi, lodi bat, bizarra eskuila bat bezala zuena, estankoaren aurrez aurre agertu zen, hain zuzen. Hombre pixka bat atera eta tiro-zaparrada bat bota zion kantoitik. Ez zuen destatu gorputzera, burura baizik, eta sarjentuaren burezur erdia eta kaskoa hegan ikusi ziren.

Hombreren tiro-jasak eman zuen tiroka ekiteko seinalea. Faxistek tiro gutxi batzuk baizik ez zituzten

bota; txundituegi zeuden eta ez ziren beren onera etorri. Sarraskirik handiena Victorren Saint-Etienne taldeak egin zuen. Gero, hemezortzi gorpu zenbatu zituzten baskula aurreko kalean, bakoitza birentzako adina balaz zulatuta. Baskula aurreko kalearen zola harrizkoa da eta aldapan dago; han ardoa bailitzan jaisten zen odola eta garun puskak zihoazen gainean. Miltonek gogoan zuen Giorgio Clericik botaka egin eta konortea galdu zuela eta larri zauritu izan balute bezala zaindu behar izan zutela.

Dagoeneko ez zen tirorik entzuten, oihuak besterik ez. Oihu egiten zuten oraindik bizirik zeuden faxistek, eta oihu jendeak etxeetan. Soldaduak, kaletik salbu egoteko, etxeetara sartu ziren barrikadak hautsiz, eta ohe eta ore-mahaien azpian ezkutatuta zeuden; areago, baita atso zaharren gona azpitan ere, edo ukuiluetan bazka azpian eta animalien artean ere. Alboko kalexka batean zaldi bat bezala korrika eta oihuka entzuten zitzaion Victorri: «*En avant! En avant, bataillon!*»

Une batean eta nola ez zekiela, Milton bakarrik geratu zen, ustekabean eta bakar-bakarrik, soldaduen gorpuak salbu. Erdi isilune hartan, basamortu oso hartan, dardarka hasi zen. Gero urrats zuhur batzuk entzun zituen, harraska baten atzean jarri eta bere armaz destatu zuen. Baina Hombre zen. Lagunkoi, anaia bezala, joan ziren elkarrengana.

Bien bitartean oihuak eta tiroak entzuten ziren oraindik, baina garaipena ospatzeko ziren. Elizatik hurbil zeuden, eta zalaparta-hots bat entzun zutela iruditu zitzaien, oin-puntetan ezkutatzera ihesi zihoan jendea. Miltonek, kokotsaz, baietz egin zion Hombreri, berak ere entzun al zuen galdetuz begiez.

—Elizan! –xuxurlatu zuen Hombrek, eta kontukontuz sartu ziren. Ilun eta fresko zegoen. Bataiategia erregistratzen hasi ziren, eta gero lehen aitorlekua. Hatsik ere ez zen entzuten. Hombre korua ikustera igo zen, baina gero asmo hori baztertu eta bankuak banan-banan miatzeari ekin zion. Horrela, anezkarena eginez, aldare nagusira hurbildu ziren. Hurbiltzean, aldarearen atzetik soldadu bat agertu zen bat-batean, eskuak goraturik, esanez:

—Hemen atzean gaude –esan zuen neska-ahots batez. Hainbesterainoko beldurra zuen, non lasaigarria baitzen errenditzea.

Hombrek irribarre moduko bat egin zion:

—Atera zaitezte hortik –esan zuen geldiro, mutikoen bihurrikeria bat ohartu eta barkatzen dien agure baten tonuaz. Eta aldare atzetik eskuak goraturik atera ziren, lau; eta Hombre eta Milton horrela, soseguz eta nagusi, ostikadarik, ukabilkadarik eta irainik gabe jokatzen ikusita, arnasa hartu zuten.

Elizatik atera ziren. Eguzkiak bi aldiz beroagoa eta distiratsuagoa zirudien. Lau presoak etengabe kliskatzen zituzten begiak, begirada Hombreren izar gorritik Miltonen lepo-zapi urdinera aldatuz. Armak askoz lehenago jaurtiak zituzten, nonbait.

Miltonek ikusi zuen ia kide guztiak herritik kanpora irten eta mendian gora zihoazela, eta mugitu eta beste horrenbeste egiteko esan zion Hombreri. Etxe gunetik irten eta zeharka jo zuten muinotik gora, gailurretik hiru laurdenera. Muinoa ez zen oso garaia, baina bai nahiko malkartsua, landare edo sastraka bat ere gabea.

Bat-batean, Miltonek mugimendu bat sumatu zuen hirurehunen bat metro aurrerago zihoan batailoiaren atzeko muturrean. Den-dena nahastu

zuen ustekabeko alarma eta etsipen-eztandazko mugimendu bat, eta bat-batean zaldi askoren lauhazkaren hotsak kolpatu zizkion belarriak. Batailoia nahasmahas sakabanatu zen, baina Victorrek ziztu batean bildu zuen berriro, eta mugimendurik egokiena egin zuen. Agindu zien joateko hegan gailurreraino eta hondoratzeko haitzartean behera, gizonentzat txirrista moduko bat baitzen, baina ia amildegi bat zaldientzat. Ezpondaren ertzera iritsi, maldan behera hondoratu eta salbu zeudela pentsa zezaketen baina Milton eta Hombre zalditeriaren erasoaren mende zeuden oraindik. Oso atzeratuta zihoazen, gailurretik berrehun pausora. Hegan joango balira onik lortuko zuketen, baina beraiek hegan joanagatik, beste laurek, egoera zein zen ulerturik, ez zuten beste horrenbeste egiten.

—Mugitu! –agindu zien Hombrek–, mugitu bizkor, madarikatuak! –baina haiek emakumetxoak balira bezala mugitzen ziren.

Miltonek atzera begiratu eta lehenengo zaldiak maldan gora ikusi zituen, alboetatik kea zeriela, berogailuak balira bezala. Presoak elkarrengandik apur bat urrunduak ziren, eta beherenekoa, lehenengo zaldietatik ehun metro ingurura zegoen, eta zaldizkoei keinuak egiten zizkien. Haiek artean ez zuten tirorik egiten, distantziagatik eta lauhazkaren astinaldietan beren kideak zauritzeko arriskua zutelako. Kolore gris berdexkaz bereiz zitzaketen, Hombrek eta Miltonek kolore gehiagotako jantziak baitzituzten.

—Zer egingo dugu? –egin zion oihu Hombrek.

—Zeuk erabaki! –erantzun zion Miltonek; baina ileak orratzak bezain zutik zituzten biek.

Zaldiak laurogei pausotara zeuden eta zeharka zihoazen lauhazkan. Orduan Hombrek oihu bat egin eta elkarrengana bildu eta batzeko agindu zien laurei,

eta halako autoritate handiz agindu ere, non segituan obeditu baitzioten, eta multzo batean eduki zituenean, Hombrek bere kargadore osoa hustu zien gainera. Denak batera erori ziren, eta, gero, zein bere aldetik, inertziaren eraginez, iraulka joan ziren maldan behera hilik, zalditeriarantz, eta gorantz zihoazenen oihu ikaragarria entzun zen. Oihu ikaragarri hark inarrosi zuen eta tximista bat bezala abiarazi Milton, Hombreren erreakzioak izoztuta utzi baitzuen. Zaldizkoek tiroka erasotzen zieten, baina deskuiduz baizik ez zuten jotzen, berrogeita hamar pausora bazeuden ere. Elkarrekin iritsi ziren gailurrera eta elkarrekin abiatu beherantz muturrak hautsi beharrean. Barreneraino iritsi eta garo artetik muino ertzera begiratu zuten, eta zaldiak azaldu gabe zeuden artean.

Milton bularra igurtziz zutitu zen, alde guztietan mina ematen zion-eta.

—Zergatik ez zara hemen gelditzen lo egitera? –esan zion atsoak–. Zu hemen geratzeak ez dit beldurrik ematen. Gauean eta goizeko lehen orduan ere bakea izango dugula iruditzen zait.

Miltonek pistola zorroan sartua zuen eta gerrikoa lotzen ari zen jakaren azpian.

—Eskerrik asko, baina gaur gauean nahi dut mendira igo. Ez dut nahi esnatu eta mendi osoa egiteko eduki.

Paretan, ilunpean eta eurian zehar ikusten zuen mendia; oso garai, bere errape mastodontikoekin etxearen gainean mugimendurik gabe uhinetan mugitzen zela.

Atsoa tematu egin zen.

—Nahi duzunean esnatuko zaitut bihar goizean mendira igotzeko. Hiruretan, nahi baduzu. Niretzat ez da traba. Ia ez dut lorik egiten. Etzanda egoten naiz, be-

giak zabal-zabalik, eta ez dut ezertan pentsatzen, edo heriotzan pentsatzen dut.

Dena ordenan zegoela egiaztatu zuen, bi kargadoreak eta gerrikoaren poltsikoan solte zituen hamar balak kontrolatu zituen.

—Ez –esan zuen–, gailurrean lo egin nahi dut, hala, esnatzen naizenean jaitsi besterik ez izateko.

—Badakizu non geratu?

—Ezagutzen dut belartegi bat gaineko ertzaren oinean.

—Eta seguru zaude ilunpe eta euri itxi honekin aurkituko duzula?

—Aurkituko dut.

—Hango jendeak ezagutzen zaitu?

—Ez. Baina ez dut esnatzeko asmorik ere. Txakurrak zaunka egiten ez badu, noski.

—Mende bat kostatuko zaizu haraino igotzea.

—Ordu eta erdi –Miltonek pauso bat eman zuen aterantz.

—Itxaron gutxienez euria…

—Euria atertzen hasi arte hemen itxaron behar badut, bihar eguerdian hemen egongo naiz oraindik —eta beste urrats bat egin zuen aterantz.

—Zer egingo duzu horrela, kalekoz jantzita?

—Hitzordu bat daukat.

—Norekin?

—Askapen Batzordeko kide batekin.

Atsoak begi gogor, itzaliz begiratzen zion.

—Kontuz ibili, bi hildako bat baino txarragoa da-eta.

Miltonek burua makurtu zuen.

—Arma eta uniformea hemen utziko dizkizut –esan zuen gero.

—Oraingoz nire ohe azpian ezkutatuko ditut –erantzun zion–. Baina bihar, jaikitzen naizenean, zaku lehor

batean sartu eta putzura jaitsiko ditut. Nire putzuaren erdi parean bada zulo karratu bat; han sartuko dut zakua kateaz eta makila luze batez baliatuz. Ni moldatuko naiz.

Miltonek baietz egin zuen.

—Gainerakoan, esan bezala. Bi gau barru itzuli ez banaiz, gauza bat bakarra egin. Zakua zure bizilagunari eman eta Mangora bidali. Mangon, eman diezaiola Frank partisanoari eta esan diezaiola Leori, Treisoko brigadako komandanteari bidaltzeko. Eta zergatik eta nola galdetzen badiote, esan dezala soil-soilik: «Milton azaldu zen, zibilez jantzi zen, eta ez da itzuli».

Atsoak erakuslearekin seinalatu zuen.

—Baina bi gau barru zu hemen azalduko zara.

—Bihar gauean hemen edukiko nauzu –erantzun zuen Miltonek eta atea zabaldu zuen.

Euriak gogor jotzen zuen, zeharka, iluntasunak mendiaren masa handia ezkutatzen zuen, eta txakurrak ez zuen erreakzionatu. Buru-makur urrundu zen.

Atsoak atetik oihu egin zion:

—Bihar gauean gaur baino hobeto afalduko duzu. Eta gogoratu gehiago zure amaz!

Milton urruti zegoen dagoeneko, haizeak eta urak zanpatua; itsu-itsuan zihoan, baina okertu gabe, *Over the Rainbow* ahapeka abestuz.

9

Milton Santo Stefanora begira zegoen, mendiko hegi batetik behera. Herri handia hutsik eta mutu zetzan, baina erabat iratzarririk, ke zuri trinkoa zerien tximiniek adierazten zuten bezala. Hutsik zegoen, herria tren-geltokiarekin lotzen zuen errepide zuzen luzea ere, eta hutsik, beste aldean, Canellirako errepide zuzena, metalezko zubia baino haragoraino, Canelli ezkutatzen zuen muinoaren irtenguneraino ederki ikusten zena.

Begiratu bat egin zion eskumuturreko erlojuari. Bostak pasatxo markatzen zuen, baina gauean atzeratu egin zen seguru asko. Seiak izango ziren gutxienez.

Lurra bustia eta beltza zegoen, ez zuen hotz handirik egiten eta zerua, grisa bazen ere, argi eta zabal zegoen, aspaldiko egunetan ikusten ez zen bezala. Miltonek galtzak izterretaraino lokatzez zipriztinduta zeuzkan, eta lupetzezko bi ore-pila ziren haren botak.

Sastraka biluziak inguratuz jaisten zen Santo Stefanora, Belbo ibaiaren gainetik igarotzen zen zubi bat bazegoela zekien lekurantz joz. Hegalaren ertze-

ra iristen ari zenean, errekaren zati batzuk ikusi ahal izan zituen. Ura iluna eta likatsua zen, baina asko falta zuen gainezka egiteko, eta pasabideak zutik jarraitzen zuen, seguru. Ibitik igaro beharko zuela pentsatze hutsak ikara eragiten zion, sukarra balu bezala. Gaizki zegoen, birikek min ematen zioten batez ere, kartilago metalikozko arantzaz elkar igurzten zutela iruditzen zitzaion, eta larritasuna eta mina eragiten zion horrek. Erabateko ahulezia- eta miseria-sentsazio bat nagusitzen zitzaion urrats bakoitzeko. «Egoera honetan ezin dut, saiatu ere ezin dut egin. Ia-ia hobe nuke aukerarik ez izatea».

Baina jaisten jarraitu zuen.

Nolanahi ere, primeran egin zuen lo belartegian, teilatu-hegalaren azpian. Segituan hartu zen lo, belar onduaren azpian murgiltzeko ia astirik gabe, aho aurrean tuneltxo txiki-txiki bat utzita. Euriak errepikan jotzen zuen belartegiko teilatu sendoan, bortitz eta gozo aldi berean. Berunezko lo bat, ametsik gabe, amesgaiztorik gabe, hurrengo egunean egin behar zuen gauza zail, ikaragarriaren inolako interferentziarik gabe. Oilarraren kantuak, ibar aldeko zakur baten urruneko uluak eta euriaren isiltasunak iratzarri zuten. Segituan atera zen belar ondu pilaren azpitik. Ipurgainka jauzi eginez belartegiaren ertzeraino iritsi eta hankak zintzilik zituela geratu zen pixka batean. Han, bere buruaren, Fulviaren, Giorgioren eta gerraren kontzientzia osoa bereganatu zuen. Orduan ikara nagusitu zitzaion, burutik hasi eta orpoetaraino iritsi zitzaion ikara bakar eta amaigabe bat, eta otoitz egin zuen gauak ohi baino hobeto eutsi ziezaion egunari.

Eta orduantxe atera zen nekazaria etxetik, lokatzetan ukuiluraino, artean fantasmagorikoa, turrusta grisetan handitzen ari zen argira. Milton kokotsa igurz-

ten ari zen, eta bizar luze eta bakanaren murmur ia metalikoa handik metro batzuetaraino hedatzen zen. Horrela bada, nekazariak gora begiratu eta harri eta zur geratu zen.

—Hor goian eman duzu gaua? Hobeto. Ez da ezer gertatu, eta nik lo egin dut. Nire teilatupean zeundela jakin izan banu, ez nukeen begirik itxiko. Baina orain, jaitsi. –Miltonek oin biak batera egin zuen jauzi; kolpe handi bat emanez eta lokatz-zipriztinkada handi bat zabalduz lurreratu zen. Erori zen lekuan geratu zen, burua makur, gerrikoa estutzen–. Goserik egongo zara –esan zuen nekazariak–, baina jaten emateko ez daukat. Ogi bat eman diezazuket…

—Ez, eskerrik asko.

—Ala basokada grappa nahiago?

—Ezta erotuta ere.

Gaizki egin zuen ogiari uko egitea, orain hutsik eta flakiak jota sentitzen zelako, aldaparen zatirik pikoenetan grabitate zentroa faltako balitzaio bezala, eta Canelli bistara iritsi baino lehen edozein etxe bakartutan ogia eskatzeko gelditzea komeni zitzaiola pentsatu zuen.

Zabaldira iritsia zen eta bizkor jo zuen zubirantz. Gero konturatu zen ibarrean beheregi joan zela, eta berrogeita hamar urrats egin behar izan zituen berriro errekan gora.

Oholtza usteldu eta okertuaren gainetik igaro zen. Legartzaren beste aldean herria isil-isilik zegoen oraindik ere, isiltasunez txindurrituta.

Legartza zabala zen, harriak lokatz bizizko zola baten gainean zeuden; oinpean mugitu eta irristatu egiten zitzaizkion, horrenbestez. Ez zuen inor ikusten, ez atsorik ez haurrik herriko plaza nagusia alde harta-

tik ixten zuten etxe goratuen atzeko aldeko leiho edo galerietan.

Plazara lehendik ezagutzen zuen kalezulo batetik sartu, jauzika zeharkatu, herriaren beste aldetik irten, eta Canelliko errepidearen eskuineko soro artera sartzeko asmoa zuen. Eremu hura Izar Gorriarena bazen ere, eta ehunetik laurogeita hemeretziko aukera bazuen ere haien patruilaren batek geldiarazteko. «Nor zara, zein taldetakoa, zergatik zabiltza kalekoz jantzita, zertan ari zara gure eremuan, badakizu pasahitza…?»

Asun ustelduzko sasitzen artean hondoratzen zen harritzaren gainetik kalezuloaren sarrerarantz presakatzen ari zela, soldadu-zutabearen burrunbak bete zizkion belarriak. Abiada bizian zihoan, herriaren sarrerako tarte zuzenaren azken zatia irentsiz; sei-zortzi kamioi izango ziren, hor nonbait. Ez zen ez oihurik, ez aztoramendurik izan sarraldi haren bafadak dagoeneko erasandako herrian. Baina Milton zegoen lekutik mendi alderako harritzako etxe batetik, gizon bat, erdi biluzik, lasterka abiatu zen harrien artetik Belbo ibairantz. Hain bizkor zihoan, non harri-koskorrak jaurtigaiak bailiran barreiatzen baitziren haren orpoen azpitik. Ibaia ziztu batean zeharkatu, eta mendixkaren oinean zegoen zuhaizti batean desagertu zen segundo batean.

Zarata nolakoa zen entzunda, bazirudien kamioi-zutabea geldiagotzen ari zela plazan biratzeko. Orduan Milton Belborantz abiatu zen ziztu batean, babesteko landare gehien zegoen ertzetik aurrera. Zerbait lehertu zen atzean, baina amorruz itxitako kontraleiho baten zartada baizik ez zen, itxura zenez.

Uretara oldartu zen; hain hotza zegoen, non arnasa gabe utzi eta itsutu egin baitzuen. Horrela igaro zuen ibaia ibitik itsu-itsuan, eta, lehorreratu bezain

laster, garo batzuen atzean ezkutatu zen. Atzeko muinora begiratu; hutsik eta lasai zegoela ikusi eta herria zelatatzeko biratu zen; bira erdi hura aski izan zuen lokatzak zenbateraino kakaztu zuen ohartzeko.

Motorrak itzali eta berehalaxe soldaduek lehorrera salto egitean ateratzen zuten hotsa, haiek plazaren lau izkinak kontrolatzeko egiten zituzten lasterketak, ofizialen aginduak entzun zituen Miltonek. Canelliko San Marcokoa zen.

Orduan atera ziren agerira. Ezkerreko azkeneko etxearen kantoitik eskuadroi bat agertu zen bat-batean, eskuetan metrailadore bat zeramatela, eta Belbo gaineko zubirantz zihoazen lasterka. Milton herrestan atzera egiten hasi zen, hirurogei pausora ozta-ozta zegoen zubiko metrailadoretik gehiago urruntzeko.

Petrilaren ondoan zeukaten jarrita, Belboren gainera bertikalean erortzen zen piramide-muino erraldoiaren gorputz osorantz birarazi zuten geldiro, eta azkenik, Milton jaitsi zen mendiko errepidearen azken bihurgunerantz destatuz finkatu zuten. Segituan azaldu zen ofizial bat plazatik. Bazirudien ondo iruditzen zitzaiola armaren kokaera eta soldaduekin hizketan hasi zen. Urrutitik ere ikusten zen onespen bila ari zela. Une batean txapela kendu zuen, esku batez ile horia leundu eta berriro jantzi zuen txapela.

Giorgiorentzako ordain bete-betea, pentsatzen zuen Miltonek. Baina seguru zegoen ofiziala ez zela bere helmenean jarriko, ezta haren soldadurik xeheena ere, halakoak ere balioko ziokeen arren. Bost minutu ozta-ozta ziren soldaduak iritsi zirenetik, eta Miltonek bazekien bere harrapakina bide erdian jarri zion egokiera hark Canellirainoko bidea bikoiztera, lautadaren zati handi bat aldapa bihurtzera behartzeko baino ez zuela balio eta, ideia horren aurrean, harkaitz bat in-

guratu beharrean zegoen inurri bat bezala ikusi zuen bere burua.

Ura plisti-plasta zebilkion oinetakoetan; ia goragale-dardarak bilakatzen zitzaizkion hotzikarak eragiten zizkion. Ondoren eztarrira eztulaldi bat zetorkiola sentitu zuen, eta burua besoaren tolesgunean ezkutatu zuen, ahoa ia lokatzari itsatsita, eztul egitean ahalik eta zarata txikiena egiteko. Eztandaka, astinka egin zuen eztul, begi itxien zeru beltzean izar eta distira gorri eta horiak ikusiz, lurrean, suge zauritu bat bailiran, inarroska. Ondoren, ezpainak lokatzez zikindurik zituela, begiak zubira jaso zituen berriro. Soldaduek ez zuten entzun, tabakoa erretzen eta piramide-mendixkako geruza guztiak begiradaz behatzen ari ziren. Tenientea plazara itzulia zen.

Bere astinaldi eta itzulipurdi haiekin pistola galdu ote zuen izuak hartu zuen. Arnasari eutsiz, eskua izterrean luzatu eta pistola-zorroaren gainean kokatu zuen kolpetik. Hantxe zegoen.

Parrokiako kanpandorrean ordua, zazpiak jo zuten. Berriro jo zuten. Herritar bat bera ere ez zen agertu ordu arte, ez haurrik xaloenik, ez birramonarik, ez elbarririk. Errekatxora jotzen zuten etxeen lerroak hilerri baten fatxada zirudien. Miltonek plaza handian zehar soldaduen joan-etorria imajinatu zuen, eta haien ofizialak bi tabernetan, edari beroren bat hartuz eta bertako neskameak lotsaraziz. «Hik partisanoen artean dun maitalea. Niri ez didak sartuko. Nola egiten dinate amodioa partisanoek?»

Ez zen beste soldadurik ageri. Milton luzaroan geratu zen zubikoei erreparatzen. Etengabe erretzen zuten eta inguru guztira begiratzen zuten; orain bazirudien zubitik ibaian behera, elizarantz hedatzen zen harritzako zerbaitek arreta erakarri ziela. Miltonek

berak ere lepoa luzatu zuen alde hartara, zubiaren begitik zeharka begiratuz, baina alferrik saiatu zen hain interesgarria zer izan zitekeen aurkitzen. Baina gero soldadu batek algara egin zuen eta beste guztiak ere barrez hasi ziren haren ondoren. Gero, beste batek batbatean piramide-muinoaren sabela seinalatu zuen, eta haietako bi metrailadorearen atzera oldartu ziren zalapartan.

Baina ez zuten ezer egin, eta handik une batera behatzaren jabeari bizkarrean kolpeka hasi ziren denak.

Ez zegoen zer eginik. Haietako bat legarretara jaitsi zitekeen gehienez ere, eginkariak egiteko, zubi gaineko lagunek begipean zutela. Gehien-gehienez ere, norbait abia zitekeen bakarrik mendixkako errepide hutsetik aurrera, harropuzkeriaz, baina Miltonek ezingo zion ezer egin. Hil, horixe, onenean ere.

Eztul ozen bat egin zuen, inolako prekauziorik hartu gabe, eta gero, katuka, muino-magalerantz atzera egiten hasi zen. Makal batera iritsi bezain laster, zutik altxatu zen, kanabera baten antzera karraska eginez. Ikusi zuen lehen bidezidorretik mendira igotzen hasi zen. Zubiko metrailadorearen helmenean zegoen oraindik, dudarik gabe, baina etsai bakar batek ere ezin zuen hauteman muinoaren hegal belzkararen kontra. Eta horrela zihoan gora, kuzkurturik eta geldo, baina seguru eta axolagabe, dardarka eta burua mugituz. Bere buruarentzat hitz egiten hasi zen, ozen eta ahots lakarrez. «Bidea moztu didate. Erotzeko moduko itzulinguru bat egitera behartzen naute. Eta gaizki nago. Etxera, etxera. Azken finean, inoiz ez dut jakingo. Dagoeneko fusilatu dute».

Bularra, sabela eta belaunak lokatzez kakaztuta zeuzkan.

Igo ahala, puska bat gutxienez kentzen saiatu zen, baina behatzek, hozmindurik, ez zioten lagundu. Utzi egin zuen, baina ahalegina egin behar izan zuen lokatzaren higuina gainditzeko.

Zubi gainean zeuden soldaduak panpinatxoak baizik ez ziren. Goi hartatik herriko plaza ere ikusten zuen. Sei kamioi zeuden, Gerra Handian hildakoen monumentuaren aurrean aparkatuta. Ehunen bat soldadu, guztira, eta geldiro baina atsedenik gabe zebiltzan aurrera eta atzera.

Bat-batean, gailurrera zihoan bidezidorra utzi eta mendi-mazelaren erditik jo zuen, piramide formako muinora joateko. «Ez dute fusilatu oraindik. Eta ezin dut jakin gabe bizi». Bidezidorrak euri-jasek eta luiziek ezabatuta, erliebe oro deseginda zeuden. Lokatzetan orkatiletaraino hondoraturik zebilen. Ezin zuen lau pauso baino gehiago aurrera egin, gelditu eta botak astuntzen zizkioten lokatz kiloak kendu gabe. Mendixka piramidala erdi parean gerriko baten moduan inguratzen zuen oihan-zerrendarantz zihoan. San Marcoko soldaduek Santo Stefanon sartzeak behartutako itzuliaren atarikoa baino ez zen.

Zuhaitzak euriak ilunduta zeuden, eta, haizerik ez zegoen arren, tanta-zaparradatan zerien ura.

Haien azpian sartu al zen, zalaparta bat, harrabotsa, alarma- eta zoritxar-oihu etenak entzun zituen. Eskua aurrerantz luzatu eta esan zuen:

—Ez izan beldurrik. Partisanoa naiz. Ez ihes egin.

Bospasei gizon ziren mendixka hartan, basoaren babesetik, Santo Stefanon faxisten mugimenduak zelatatzen ari zirenak. Aurpegia estalita zerabilten denek eta batek manta bat bildurik zeraman soinean gurutzatuta. Janari fardeltxoak ere bazituzten. Soldaduak ustekabean haien mendian agertu izan balira, prest eta

hornituta zeuden hogeita lau eta are berrogeita zortzi orduz ere etxetik urrun ihes egin eta irauteko.

Hitzik egin gabe, soinean zeraman lokatz guztiari zeharka begiratuz besterik gabe, beren behatokietara itzuli ziren, txanoak eta bizkarrak bustitzen zizkieten tantei axolarik eman gabe. Denetan zaharrenak –hark zirudien, gainera, egoera hura umore onenaz zeramana– ilea eta bibote zuriak eta begiak bustiak zeuzkan gizon batek, Miltoni galdetu zion:

—Noiz diozu bukatuko dela hau, abertzale?

—Udaberrian –erantzun zion, baina ahotsa erlatsegia eta faltsuegia atera zitzaion. Eztul bat egin eta berriro esan zuen:– udaberrian.

Zurbildu egin ziren. Batek birao bat bota eta esan zuen:

—Baina zein udaberritan? Bada martxoko udaberri bat eta bada maiatzeko udaberri bat.

—Maiatzekoan —zehaztu zuen Miltonek.

Harrituta geratu ziren denak. Gero agureak hainbesteraino lokazteko zer egin zuen galdetu zion Miltoni.

Milton gorritu egin zen, zer edo zerengatik.

—Aldapan behera erori eta metro pila bat egin dut ahoz behera.

—Iritsiko da egun hori ere –esan zion agureak Miltoni finkoegi begiratuz.

—Jakina iritsiko dela –erantzun zion Miltonek, eta berriro itxi zuen ahoa. Baina agurea tematurik zegoen Milton ase gabeko, agian ase ezinezko, jakin-min batez aztertzen–. Jakina iritsiko dela –errepikatu zuen Miltonek.

—Eta orduan –esan zuen agureak–, ez diozue bat berari ere barkatuko, espero dut.

—Ezta bati ere –esan zion Miltonek–. Adostuta dago.

—Denak, denak hil behar dituzue, horietako batek ere ez baitu gutxiagorik merezi. Heriotza da, diot nik, horietan erru gutxien duenarentzat zigorrik arinena.

—Denak hilko ditugu –esan zion Miltonek–. Adostuta dago.

Baina agureak jarraitu egin zuen.

—Denak diodanean, den-denak esan nahi dut. Baita erizainak, sukaldariak ere, baita kapilauak ere. Entzun ondo, mutil. Nik mutila dei diezazuket. Izan, harakina arkumeak erostera etortzen zaidanean malkoak isurtzen dituen horietakoa naiz. Eta hala ere ni naiz denak, den-den-denak hil behar dituzuela esaten dizuna. Eta markatu ondo esaten dizudan hau ere. Egun loriatsu hori iristen denean batzuk bakarrik hiltzen badituzue, errukia edo odolaren higuina nagusitu dakizuen uzten baldin baduzue, bekatu mortala egingo duzue, benetako traizioa izango da. Egun handi horretan galtzarbeetaraino odolez zikintzen ez dena, ez iezadazue esan abertzale ona denik.

—Lasai –esan zion Miltonek, mugitzen hasiz–. Denok ados gaude. Bakar bati barkatzea pentsatu baino lehen…

Esaldia osatu gabe jarraitu zuen aurrera, baina urrundu baino lehen nekazari haietako bati sosegu handiz esaten entzun zion:

—Ez al da harritzekoa garai honetan oraindik elurrik ez egin izana?

Basoaren bukaera-bukaeran, hain zuzen, trengeltokirako errepide zuzenarekiko paraleloan joan eta gero geltokiaren pare-parean jaisten zen ezponda luze bat lotzen zitzaion piramideari. Miltonek tontorretik igarotzea erabaki zuen, geltokira jaitsi, hura inguratu eta gero landan zehar jarraitzea, aldian behin masustondo-ilara batzuen atzean ezkutatuz, eta, horrela,

metalezko zubia eskuinean utzirik, Canelli ezkutatzen zuen irtenguneraino iristea. Era horretan, pentsatu zuen, Santo Stefanoko soldadu-zutabeak ezein interferentzia eragitea saihesten zuen, lehenago edo geroago basera itzuli beharko baitzuen hark ere.

Patrikan arakatu, bi zigarroak atera eta alderatu egin zituen. Bata erdi birrinduta zegoen, eta bestea mutur batetik tabakoa galtzen ari zen. Hura ezpainen artean jarri zuen, baina gero ez zuen aurkitu gainalde lehor txikienik ere pospoloa igurzteko. Bai, bazen, bai, Coltaren gider latza, baina ez zitzaion ongi iruditu. Etsipenezko barretxo batez, zigarroa berriro sakelan gorde eta ezpondan behera abiatu zen.

Errepidearen paralelo zihoazen errailak bistatik galdu gabe zihoan. Errailak herdoilduta zeuden, han-hemenka belar bustiak estalita, huts-hutsik, armistizio-egunaz geroztik trenak ukitu gabe. Miltonentzat, trenbideak «irailaren zortzia» esaten zuen oraindik, eta bazitekeen halaxe jarraitzea beti.

Gogoan zuen oraindik nola itzuli zen etxera irailaren hamahiruko goiz gris, bero hartan, zikin eta kamuflatuta, baina oheratzeko edota esertzeko ere batere gogorik gabe. Amak ezin zuen sinetsi, ukitu egin nahi zuen; oraindik ere sinetsi ezinik, norbaitek emandako zarpailak gainetik kendu nahi zizkion, aurpegiko hautsa garbitu…

—Erromatik!? –esan zion–. Erromatik itzuli zara! Gure Alba txiki honetan gertatzen zen infernua ikusita, Erroman zer gertatuko zen imajinatzen nuen. Badakizu? Ez nuen uste handik onik aterako zinenik. Zu bezalako mutil bat, burua beti hodeietan duena…

Onik atera zen ordea; behin ere ez zuen zalantzarik izan, Terminin tren ikaragarri hartara igo zen

unetik. Bazekien zorte ona izango zuela, zorte ona gudarostearen zoritxar mugagabean…

—Eta… Turineko andereñoa?

Amak Fulvia aipatzeko hutsik gabe erabiltzen zuen esamolde bera erabili zuen, esamolde ironikoa eta kezkaz betea aldi berean, agian iragarpenezkoa.

—Askotan ikusi dut –erantzun zion–, askotan egoten zen hirian, soldadutzatik libratutako mutilekin.

Ondoren, behera begira, esan zion:

—Turinera itzuli da. Orain dela hiru egun –eta orduan Milton aulki baten bila joan zen, haztamuka.

Santo Stefanoko kanpandorrean ordu erdiak jo zuen, indarrik gabe, baina Miltonek ezin izan zuen jakin zortzi eta erdiak ala bederatzi eta erdiak ziren.

Mendi-hegalaren oinean hamarrak jotzen entzun zuen, eta oraingo honetan Canelliko kanpandorreak jo zituen, seguru.

Zeruak orban eta zikinkeria ke-itxura guztiak garbitu zituen, eta zuri bai zuri zegoen orain. Ez zuen euririk egiten, baina zuhaitzen eta zuhaixken hostoek etengabeko kirrinka egiten zuten.

Geldiro eta tentuz ari zen igotzen, lokaztutako tuparri-lauzazko bidezidorra oso labaina zelako, eta Canellitik miaketak egitera bidalitako patruilarik bazen, haien ekintza-eremuan zegoelako dagoeneko. Arriskua hurbil eta bat-batean gerta zitekeen arren, tabakoa erretzeko amorru bizitan zegoen, baina han goian ere ez zuen zentimetro karratu lehor bat bera aurkitzen pospoloa igurzteko. Berriro gogoratu zuen Coltaren gider latza, baina ez zitzaion ongi iruditu bere pistolari tratu txar hura ematea.

Gainera, une horretantxe –igoeraren bi heren pasatxo eginda zegoen–, irtengunearen atzeko errepi-

dean soldadu-zutabearen zarata entzun zuen, Santo Stefanon egindako sarralditik Canellira itzultzen. Zarata kontuan hartuta, kamioiak abiadura bizian zihoazen errepide txikitutik. «Hi bai mutila», pentsatu zuen tristuraz. Burrunba berehalaxe galdu zen ibarreko bidean, baina igotzeari berriro ekin baino lehen, Milton zain geratu zen, etsaien zaratak bizkarrezurrean eragin zion hotzikara erabat joan arte. Gorputz osoaren astindu arin batez hotzikarari alde egiten lagundu, eta aurrera jarraitu zuen.

Ezpondaren ertzera ateratzen zenerako soldadu-zutabe osoa kuartelera itzulia izango zela kalkulatzen zuen. Kuartelari zegokionez, Miltonek bazekien Littoria Etxea izandakoan zeukala kuartela San Marco erregimentuak, baina, Canellin sekula egon gabea zenez, ez zekien non zegoen etxe hura. Baina seguru zegoen lehen begiratuan ezagutuko zuela erdi nekazaritzakoa, erdi industriakoa zen herri handi hartan. Ez nuen kuartelean pentsatzen helmuga bat balitz bezala, ezinbesteko erreferentzia puntu bat balitz bezala baizik.

Bizkorrago igo zen, eta gailurretik pauso batera arnasari eutsi zion, herria behean segituan ikusiko zuelako ustean. Han eta hemen kardulatza hazten zen eremu landu gabe batean kamusten zen, ordea, gailurra. Makurtuta zeharkatu zuen, alboak zelatatuz. Handik ikusten zen etxe bakarra berrehun pausora zegoen ezkerretara; haren teilatu belzkarak ozta-ozta agertzen ziren landare bustizko sasi arte baten atzean.

Irristada batez, ertzaren gainean dilindan zegoen sasitza batera iritsi zen, hantxe ezkutatu eta adarren artetik Canellirantz begiratu zuen behera. Begirada bakar bat, bizkorra, dena ikusteko, eta ondoren alde hartatik gorantz zetozen bide eta bidezidorrak az-

tertzen hasi zen, ea patruilarik bazen. Ezta bat ere, eta harria aztertzen kontzentratu zen orduan.

Herri osoa hutsik eta isilik zegoen ezohiko hustasun eta isiltasun batean, herrixkarik txikienetik ere goratu ohi den zurrumurrutxo hori ere gabe. Erabateko bizitasun falta hura Santo Stefanotik itzulitako zutabea igaro berria izateari egotzi zion. Bizi-aztarren bakarra tximinietako ke zuri trinkoa zen; ke zuri hura berehalaxe mimetizatzen zen zeru zuri guztiz beheratu harekin.

Littoria Etxea non zegoen zehaztu zuen. Kubo handi gorri histu bat, oso zartatua, leihoak oholez eta lur-zakuz erdi estalita eta dorretxo bat; eta hartan, segur aski, begirari bat zegoen prismatikoekin. Baina oso erraz gerta zitekeen orobat, guardia hura Milton zegoen isurialdearen beste aldeko muinoak zaintzen egotea etengabe, partisano gorriz josita baitzeuden.

Begirada kuarteleko patioan finkatzen saiatu zen, baina alboko horma garaiak patioko zerrenda huts bat besterik ez zion utzi begiztatzen; arkupe huts bat zuen atzean.

Ertzera azaldu zen, bere isurialdeko maldan hedatzen zen auzoa aztertzeko. Landetxe-errebal bat zen, mutua eta mortua, geldirik zegoen zerrategi handi bat izan ezik.

Hasperen egin zuen, zer egin ez zekiela. Eskua pistola-zorro botoigabean zuela, ez zekien zer egin. Konkor bat baino haraxeago kanabera multzotxo bat ikusirik, lau jauzitan haraino iritsi eta kanaberen artetik berriro aztertu zuen herria. Dena lehen bezala; tximinietatik lehen baino ke-isuri handiagoa.

Ez zekien zer egin, beherago jaisteaz aparte. Bigarren helmuga gisa lanabes-etxola bat aukeratu zuen; lau hesolaren gainean jarritako teilatu bat besterik ez

zen, mahasti baten erdian, malda erdian dagoeneko. Bazen bidezidor egoki bat, baina hain zuzena eta pikoa, kuarteleko dorretxoarekin hain ongi lerrokatua, non Milton ezin baitzen inola ere arriskatu bide hartatik ibiltzera. Beraz, mahatsondo-ilaren arteko etxolaraino iritsi zen, aihenak eta alanbreak zabalaraziz, morteroa bezain itsaskorra zen sufrea bezalako lokatz horitan orkatiletaraino hondoratuz. Teilatuari eusten zioten zutoinetako baten atzean jarri zen, baina berehala burua erortzen utzi zuen, gupidagarriro baldituta. «Hau ez da niretzako modukoa –pentsatzen zuen bere baitan–, ez da nire kontua. Bat ezagutzen dut, besterik ez, ni bezain gaizki sentituko litzatekeena. Okerrago, agian. Giorgio, hain zuzen».

Baina oraindik bazuen kemena jaisten jarraitzeko. Kobre-sulfatozko ontzi bat begiztatu zuen gero zelaiarekin elkartzen zen landu gabeko sailarekin muga egiten zuen azkeneko mahastiaren bukaeran. Ongi zetorkion gehiago jaistea, herriko patruilaren bat azaltzen bazen, hari ihes egin beharra suertatzen bazitzaion ere. Saiheska salbatzen saiatuko zen, eskuinerantz edo ezkerrerantz, berdin zion, baina ez, noski, berriro maldan gora igoz. Behetik begiratuta, lokatzez estalitako harresi bat balitz bezala agertzen zitzaion orain.

Pistola eskuan zuela ari zen jaisten. Txolarre bat atera zen hegan bidezidorretik, batere ikaratu gabe. Herrian halako burrunba, zabal, misteriotsu bat entzun zen, siderurgia-lantegi handiren batean baizik atera ezin zitekeena; baina Canellin ez zen halakorik. Ez zen errepikatu, eta herrian ez zen erreakzio txikienik ere izan. Kuartela ehun metro baino gutxiagora zegoen, zuzenean. Halako isiltasuna zegoen, non Belbo ibaiko urak kuartelaren atzean pilatutako harritzaren kontra

egiten zituen pilisti-palastak entzuten zituela iruditu baitzitzaion Miltoni.

Ontziaren atzean kukubilkatu zen, pistola izter batean bermatuta, zementu hotza besoaz inguratuz. Handik bistan zuen, tarteka, Santo Stefanoko errepidea, hondoratua eta zuloz betea. Azkeneko jaitsaldi horretan oso ezkerrean utzia zuen zerrategi handia, kalkulatutakoa baino askoz ezkerrerago, eta damu zuen, zeren eta, txarrenera ere, behin-behineko ezkutaleku bikaina gerta baitzitekeen hango blokeekin eta egur pilekin, eta ihes egiteko labirinto bat ere bai.

Bere goarnizioaren, Treiso herriaren eta Leo beraren nostalgia bizia sentitzen zuen.

Eskuinetik marmar betiberdin eta jarraitu bat iristen zitzaion, eta Miltonek pentsatu zuen alde hartan mahastiak aldapa labur bat zuela behera, eta horren azpian etxe bat zegoela.

Zeru zuriak bat-batean irensten zuen ke-kiribila tximinia ikusezinetik irteten zen.

Pistola estutu zuen. Hots bat, baina errepidea baino lehenagoko azken etxeko galeriako ate baten kirrinka besterik ez zen. Emakume bat atera zen atetik, hormatik ebaki-ohol bat hartu eta barrura sartu zen berriro, muinora begiratu ere egin gabe. Eta ez zen zaunkarik edo karakarik entzuten, eta txolarre bat ere zeruan hegan.

Une hartan bertan begi-ertzetik itzal beltz bat sumatu zuen eskuinean, muturra ozta-ozta miazka ari zitzaiola. Gorputz osoa ontziaren atzean biratu, eta itzal haren jatorrira destatu zuen pistolaz. Berehala jaitsi zuen berriro, txundituta. Atso xahar bat zen, jantzi beltz zikin eta krakatsu batez jantzia. Hogeiren bat pausora egon eta, eguzkirik ez bazen ere, itzalak erabat zanpatuta sentitu izanak eragin zion txundimen hura.

Hitz egiten ari zitzaion, baina Miltonek haren ezpain zapal eta ubelen mugimendua besterik ez zuen sumatzen. Oilo batek mahastiaren ertzeraino jarraitu zion, eta aztarrika ari zen ilara bateko lokatzetan. Gero, atsoak gona jaso eta Milton zegoen ilaran sartu zen, gizonezkoentzako botak lokatzetan txipli-txapla zituela.

Zutoinaren parean gelditu eta esan zuen:

—Zu partisanoa zara. Zertan ari zara gure mahastian?

—Begiratu gabe hitz egidazu –xuxurlatu zion Miltonek–. Begiratu airera hitz egiterakoan. Honaino soldadurik igotzen da?

—Astebete da ikusten ez ditugula.

—Hitz egin ozenxeago. Zenbat izan ohi dira?

—Bost edo sei –erantzun zion atsoak, begiak zerura biratuz–. Behin zutabe oso bat igaro zen, denak burdinazko kapelekin, baina bost edo sei izaten dira ia beti.

—Bakarrik inoiz ez?

—Uda honetan, eta irailean ere bai, fruta lapurtzeko. Baina irailaz gero, ez. Zertan ari zara gure mahastian?

—Ez izan beldurrik.

—Nik ez dut beldurrik. Zuen alde nago. Nola ez nintzen, bada, zuen alde egongo nire biloba nagusi guztiak partisanoetan egonda? Ezagutuko dituzu. Izar Gorrian daude denak.

—Ni badogliotarra naiz.

—A, ingelesez mozorrotuta ibiltzen diren horietako, hortaz. Eta zergatik zoaz buhamez mozorrotuta? Esan behar didazu zertan ari zaren gure mahastian?

—Zuen herriari begira. Aztertzen ari naiz.

Andreak larritasunez astindu zituen besoak.

—Erasotzeko? Erotuta zaudete?, goizegi da oraindik!

—Ez begiratu niri. Begiratu gora.

Atsoak zerura begira esan zuen:

—Mantendu dezakezuena hartu behar duzue bakarrik. Gu pozik, askatzen bagaituzue; baina behin betiko baldin bada bakarrik. Bestela, horiek itzuli eta odolez ordainaraziko digute.

—Ez dugu erasotzeko inolako asmorik.

—Pentsatzen hasita –esan zuen andreak–, ezinezkoa da zu erasoa aztertzera etorri izana. Zu badogliotarra zara eta Canelliren kontrako erasoa Izar Gorriak egingo du. Canelli Izar Gorriarentzat izendatuta dago.

—Horretan ados gaude –esan zion Miltonek, eta gero:– Mesede bat egingo al zenidake? Bart gauaz gero ez dut ezer jan. Joango al zinateke etxera eta ogi bat ekarri? Ez duzu berriro honaino etorri beharrik, ilara honen hasieratik botatzen badidazu, aski. Airean harrapatuko dut, egon seguru.

Kanpandorrean hamaiketako lehen kanpaia entzun zen.

Atsoak orduak bukatu arte itxaron, eta gero esan zuen:

—Banoa eta segituan itzuliko naiz. Baina ez dizut zakur bati bezala botako. Ogi eta urdaizko ogitarteko bat egingo dizut eta airean botako banizu desegin egingo litzateke. Eta ez zara zakurra, gainera. Zuek guztiak gure seme-alabak zarete. Halakotzat zauzkategu gurekin ez dauzkagunen lekuan. Pentsa neuregan; bi seme ditut Errusian eta nork daki noiz itzuliko zaizkidan. Baina oraindik ez didazu esan zertan ari zaren hemen, gure mahastitik zelatan.

—Horietako baten zain nago –erantzun zion Miltonek begiratu gabe.

Andreak kokotsa jaso zuen.

—Hemendik igaro behar du?

—Ez. Berdin dio non ikusten dudan. Etxe artetik kanpo bada, hobe denentzat.

—Hiltzeko?

—Ez. Bizirik behar dut.

—Horiek hilda daude ondo.

—Badakit, baina hilda ez dit balio.

—Eta zer egin nahi duzu berarekin?

—Begiratu airera. Egin itxura mahastia begiratzen ari zarela. Nire kide batengatik trukatu nahi dut. Atzo goizean preso hartu zuten, eta trukatzen ez badut…

—Mutil gaixoa. Hemen, Canellin daukate preso?

—Alban.

—Badakit Alba non dagoen. Eta zergatik etorri zara Canelliraino kolpea egitera?

—Ni Albakoa naizelako.

—Alba –esan zuen atsoak–. Ez naiz inoiz ailegatu, baina badakit non dagoen. Behin ia joan nintzen, trenez.

—Ez izan beldurrik –esan zuen Miltonek–. Jaten eman bezain laster zure mahastitik alde egin eta errepidera joango naiz.

—Itxaron –esan zion andreak–. Itxaron jatekoa ekarri arte. Esaten didazun hori izugarrizko lana da, eta ezin diozu ekin urdaila hutsik baduzu.

Mahatsondo-ilaratik urruntzen ari zen; soinekoaren ertzaren gaineraino lokatzez zipriztinduta zeukan. Azken begiratu bat egiteko biratu eta aldapa jaitsi zuen.

Hamar minutu, hamabost, hogei joan ziren, eta ez zen itzultzen. Miltonek ondorioa atera zuen ez zela itzuliko, kasualitatez egin zuela topo berekin, gizalege hutsez esan zizkiola haiek guztiak eta trabatik alde

egin zuela, ederki zekielako Miltonek ez zuela ez astirik ez gogorik bera bilatzeko eta zigortzeko. Hain zegoen seguru, non segituan alde egingo zukeen handik, nora jo jakin izan balu.

Aldiz, ordu erdia jotzen ari zen une-unean berriro agertu zen, bizkar atzean ezkutaturik urdaiazpikoz betetako ogi handi bat zeramala. Miltonek gogor zapaldu behar izan zuen bere ahoaren neurrira murrizteko. Bortizki mastekatzen zuen; urdai xerra hain zen lodia eta oparoa, non Miltoni ia higuina ematen baitzion ogiaren lodiera osoa igaro ondoren hortzek hura aurkitzen zutenean.

—Orain zoaz, eskerrik asko –esan zuen lehen mokaduaren ondoren.

Emakumea, ordea, kokoriko jarri zitzaion aurrean, ilararen-makilaren kontra bermaturik, eta Miltonek begiak desbideratu zituen hark erakusten zuena ez ikusteko: izter argal grisa, sokatxo batez lotuta zeraman artile beltzezko galtzerdiaren gainean.

—Zer ari zara egiten? Ez dut beste ezeren beharrik.

—Itxaron pixka bat hori esan baino lehen. Badut beharbada interesatuko zaizun gauza bat. Nire suhiak irten nahi zuen berak esateko, baina etxean geratzeko eta niri uzteko konbentzitu dut.

—Zer da?

—Izar Gorrian dauden nire bilobetan zaharrenari aspaldi esan nahi genion gauza bat. Baina orain zuri esatea erabaki dugu, zuk premia larria duzulako eta ezin duzulako itxaron.

—Baina zer da?

—Nik badudala bila ari zaren faxista hori aurkitzeko arrasto bat ematea.

Miltonek ontziaren ertzean utzi zuen ogitartekoa.

—Ea elkar aditzen dugun. Nik soldadu bat nahi dut, ez herritar faxista bat.

—Eta soldadu batez ari naiz. Sarjentu bat.

—Sarjentu bat –errepikatu zuen Miltonek txunditurik.

—Sarjentu hori –erantzun zion atsoak– maiz etortzen da inguruotara, ia egunero, eta beti bakarrik. Emakume batengana etortzen da, jostuna bera, gure auzokidea eta gure etsaia, zoritxarrez.

—Non bizi da? Erakuts iezadazu oraintxe etxea.

—Gure etsaia dela esan dizut, eta azaldu nahi dizut. Baina argi gera dadila guk ez dizugula ematen informazio hau hari kalte egiteko, zure laguna salbatzen laguntzeko baizik.

—Bai.

—Eta hori guri eta batez ere nire alabari egin digun kaltea gorabehera. Nazkagarri bat da, dagoeneko ulertuko zenuen, eta sarjentu horrekin orain egiten duena gutxi da, edo ezer ez, lehendik egin dituenekin alderatuta. Nahikoa izango da esatea hogei urte bete baino lehen hiru aldiz abortatu zuela. Canelli eta inguruetako txerririk handiena da, eta ez dakit mundu osoari bira emanda ere hau baino txerriagorik aurkituko genukeen.

—Baina non bizi da?

Bere gisa jarraitu zuen, burugogorkeria hunkigarri batez.

—Liskar asko sortu ditu nire alabaren eta suhiaren artean, eta suhiak, ez baita hemengoa, guri sinetsi ordez hari sinetsi zion, oker handia, dena gezurra zela zin egiten bagenion ere. Baina orain konturatu da, azkenean, eta lehen baino hobeto konpontzen da nire alabarekin, zerri hori bizitza pozoitzen saiatu aurretik baino hobeto.

—Bai, bai, baina non…?

—Eta gaiztakeria hutsagatik egin zuen, egin ere, agian ezin zuelako onez eraman hemengo egiazko txerri bakarra izatea, eta horregatik bera bezalako beste bat zegoela asmatu zuen, baina asmatu bakarrik.

Miltonek behatzez keinu bat egin zuen eta ogitartekoa edukiontzira erorarazi zuen.

—Ez zait batere axola ez zuenik ez jostunarenik, ulertzen? Sarjentua interesatzen zait. Maiz etortzen da jostunaren bila?

—Ahal duen guztietan. Guk orduak ematen ditugu leihoan. Harekin elkartzera joaten den bakoitzean apuntatu eta zenbatu ahal izateko egiten dugu sakrifizio-edo hori.

—Begiratu gora –esan zion Miltonek–. Noiz joan ohi da?

—Arratsaldez ia beti, seiak aldera. Baina batzuetan ordu bata aldera iristen da, arrantxoaren ondoren. Bere nagusien begikoa-edo izan behar du; askotan izaten ditu irteteko baimenak, beste inor ez da ikusten kanpoan hura adina.

—Sarjentua –esan zuen Miltonek.

—Suhiak esan zidan sarjentua dela; nik ez dakit graduak bereizten. Topatzen baduzu, kontuz ibili behar duzu. Zalantza gutxiko itxura du; giharrak uniformearen azpitik nabarmentzen zaizkio, eta gure etxe arte honetan errebolberra prest duela ibiltzen da beti. Behin berekin topo egin nuen eta sastraka artean ezkutatzeko astirik ere ez zidan eman. Honela zeukan dagoeneko pistola, poltsikotik erdi aterata.

—Pistola bakarrik –esan zuen Miltonek–. Metrailetarekin ez duzu inoiz ikusi? Kanoia zuloz beteta duen traste horrekin?

— Badakit zer den metraileta. Hori pistolarekin ibiltzen da beti, besterik ez.

Miltonek hankak igurtzi zituen, zurruntzen hasita baitzeuzkan. Gero esan zuen:

—Ordu batean pasatzen ez bada, seietan itxarongo diot. Eta biharko egun osoa, behar baldin bada.

—Gaurko gaua baino lehen seguru pasako da. Eta baliteke ordu bata inguruan sartu-irten bat egitea ere.

—Erakuts iezadazu etxea lehenbailehen, hortaz.

Andreari ondoratu zitzaion eta aihenen artean, haren behatz erakusleari jarraituz, etxea ikusi zuen. Landetxetxo bat, fatxada hiriko modura berregin berria zuena. Larraintxo bat zuen aurrean, arrabete lokatzekin eta itxituratik atera bitartean lauza zabal batzuk zituela. Errepidetik hogeiren bat metrora altxatzen zen, eta baratze abandonatu bat zuen atzeko aldean.

—Etxera sartzeko errepidetik joaten da beti? Soroetatik inoiz ez? Kuarteletik etortzeko soro artetik zuzenean etor daiteke, ikusten dudanez.

—Errepidetik beti. Sasoi honetan, behintzat.

Etxean lokatzez beteta sartzerik ez du nahiko.

Miltonek, senak aginduta, pistola zeukala egiaztatu zuen. Emakumea pixka-pixka bat bereizi zen, eta antsiaz hasi zen arnasa hartzen.

—Ez da segurua orain igaroko denik –esan zuen–. Gogoratu ia beti arratsaldez joaten dela esan dizudala. Zehazkiago esateko, ahal duen guztian joaten dela esango dizut, ordu erdirako besterik ez bada ere. Eta neska beti prest dago, itxura denez. Beti araldian dauden bi txakur dira.

—Zer dago bere mahastitik harantz?

—Ikusten duzun sailtxo landugabe hura.

—Eta gero?

—Akazia multzo bat. Lurrak konkor hori egingo ez balu, akazien erpinak ikusiko zenituzke.

—Eta gero?

—Errepidea –hobeto ikusteko eta deskribatzeko, begiak erdi itxita zeuzkan atsoak–. Errepidea –errepikatu zuen–. Akaziak errepideraino ateratzen dira.

—Ederki. Akaziak etxearen pareraino iristen dira?

—Ez dizut ulertzen zer galdetzen didazun.

—Akazien bukaeran nagoenean, etxe aurrean egongo naiz?

—Ia aurrez aurre, ezkerrera antxean. Akaziak bukatzen diren tokian kokatzen bazara.

—Zer dago akazien ondoren?

—Bidetxo bat.

—Akazien maila berean?

—Metro beteko salto bat-edo egongo da.

—Beraz, bidea errepidera zabaltzen da, ezta? Eta beste aldera, nora darama? Muinoaren gailurrera?

—Bai, gure muinoaren gorenera.

—Eta sakonetik doa ala agerian dago denbora guztian?

—Sakonetik ere badoa.

—Banoa akazietan kokatzera –esan zuen Miltonek–. Ongi ateratzen bazait… –eta mahatsondoen azpitik igarotzeko prestatu zen.

Atsoak bizkarretik heldu zion.

—Egon. Eta gaizki ateratzen bazaizu? Gaizki ateratzen bazaizu arrastoa guk eman dizugula esango duzu?

—Egon lasai. Txintik ere ez dut esango. Baina ongi aterako zait.

10

Arrastaka zihoan akazia-sailtxoaren mugarantz, sugea bezain arin eta isil. Sinkronizazioa ezin hobea zen, eta kokaera egokia, Milton, arrastaka, zalditeriako sarjentua baino bost segundo aurreratuago baitzihoan. Bidea eta errepidea elkartzen ziren lekuan elkartuko ziren matematikoki, eta sarjentuak bizkarreko zentimetro koadro bat erakutsiko zion: nahikoa eta sobera. Ezer nahasten ez bazen behintzat, mundua bost segundoz gelditu eta biak bakarrik uzten bazituen, nahieran mugitzeko libre.

Hain erraza zen, non begiak itxita ere egin baitzezakeen.

Belauniko jarri eta jauzi batez zutitu zen, hegaldian ezkerrera bira erdi eginez. Bizkarraren erdi-erdian jarri zion pistola; hain zabala zen bizkarra, non bidea eta ia zeru osoa estaltzen baitzuen. Errebotearen eraginez, sarjentuaren garondoa ia ahora joan zitzaion, eta gero, bat-batean, bere ikusmen-eremutik beheraxeago erori zen, gizona belauniko erori zenean. Altxarazi zuen eta, bigarren pistola-kolpe batez, bidean biratzera behartu zuen, akazien babesean. Gero pistola poltsiko-

tik kendu zion, iztarteko beroaz epeldua, berean sartu zuen, higuinez bularraldea miatu zion, eta azkenean bultzada batez jaikiarazi zuen.

—Eskuak buru atzean.

Akazia-sailtxoaren ondoren, etxe artetik hurbil, lokazti gorrixka bat nabarmentzen zen, bidezidorrean eguzki-sartzearen itzal bat islatzen zuela.

—Bizkor ibili, baina kontu egin ez irristatzen. Irrist eginez gero, ihes egin nahiko bazenu bezala tiro egingo dizut. Ez duzu ikusi, baina Colt bat daukat eskuan. Badakizu nolako zuloak egiten dituen Coltak?

Pauso luze eta neurtuak eginez zihoan gizona gorantz. Errepidea pikotzen ari zen, pendiza malkartzen. Milton baino txikixeagoa zen, baina zabalean ia bikoitza. Miltonek ez zuen gehiago aztertu, gehiago sakondu, jakinean jartzeko irrikaz.

—Zer egingo dizudan jakin nahiko duzu –esan zion.

Sarjentua ikara bat egin eta isildu egin zen.

—Entzun. Ez gelditu eta entzun ondo. Lehenengo gauza, ez zaitut hilko. Ulertu duzu? Ez zaitut hilko. Albako zure kideek nire lagun bat preso hartu dute eta fusilatu egingo dute. Baina nik zugatik trukatuko dut. Garaiz iritsi behar dugu, zuk eta nik. Beraz, Alban trukatuko zaitut. Entzun? Esan zerbait.

Ez zuen erantzuten.

—Esan zerbait.

Bizpahiru aldiz baietz esan zuen ahapeka, burua biratu gabe.

—Beraz, txantxa gutxi. Ez zaizu komeni. Ondo portatzen bazara, bihar eguerdian Alban egongo zara libre, zureen artean. Ulertu? Hitz egin.

—Bai, bai.

Miltonek hitz egiten zuen bitartean, sarjentuaren belarriak luzatu eta mugitu egiten ziren zakurrei, urrutitik deitzen dietela entzuten dutenean gertatzen zaien bezala.

—Tiro egitera behartzen banauzu, zeure buruaz beste egin izango duzu. Ados?

—Bai, bai. Burua zurrun zeukan, ia finko, baina seguru begi-niniak alde guztietara mugitzen zitzaizkiola etengabe.

—Ez espero izan –esan zion Miltonek–, ez espero izan zure patruiletako batekin topo egingo duzunik; horrelakoren bat gertatuz gero, tiro egingo baitizut. Ikusi orduko, tiro. Beraz, heriotza nahi izango zenuke. Hitz egin.

—Bai, bai.

—Eta esan baietz baino zerbait gehiago.

Maldan beherago txakur batek zaunka egin zuen, baina pozez, alarmarik gabe. Aldaparen herenean-edo zeuden.

—Ez da gertatuko –esan zuen Miltonek–, baina nekazari bat igaroko balitz, zu errepide bazterrean jarri segituan, mendi aldean. Horrela, zu ukitu ere egin gabe igaro ahal izango du, eta zuri ere ez zaizu bururatuko harengana oldartzeko ideia txarra. Ulertu?

Buruaz baietz egin zuen.

—Hiltzera doala dakien bati pasa dakioke burutik horrelako zerbait. Baina zu ez zoaz hiltzera. Kontuz ibili, ez irristatu. Ni ez naiz gorria, badogliotarra naiz. Horrek pixka bat arintzen zaitu, ezta? Espero dut konbentzituta egongo zarela ez zaitudala hilko. Ez dizut esaten oraindik Canellitik hurbilegi gaudelako eta oraindik ere zuen patruiletako batekin topo egiteko aukera dagoelako. Aurrerago hobeto tratatuko zaitut, ikusiko duzu. Entzun duzu? Eta ez ikara egin.

Arrazoitu, zer arrazoi duzu ikara egiteko? Bizkarreko pistola-kolpeagatik bada, gainditua beharko zenukeen dagoeneko. San Marco erregimentuko sarjentua zara ala ez zara? Gaur goizean Santo Stefanon panparroikeriak egiten ari zirenetakoa zara?

—Ez!

—Ez jaso ahotsa. Ez zait interesatzen. Eta utzi ikara egiteari, eta esan zerbait.

—Zer nahi duzu esatea?

—Hasi gara hobeto.

Bideak bihurgune bat zuen, eta Milton alde batera aldatu zen bere presoaren aurpegiari begiratu bat egiteko. Baina gero, ukalondoak aurpegiaren parean okertuta zeramatzalako eta ibiliaren gora eta beherako mugimenduagatik, begi grisaren globoa eta sudur txiki nabarmena besterik ezin izan zizkion hauteman. Ez zen atsekabetu horregatik, funtsean ez zitzaion interesatzen. Haren aurpegia ez zitzaion interesatzen, Albako zein agintaritza faxistak berreskuratzen zuen interesatzen ez zitzaion bezalaxe. Maila bateko militarra izateak ere ez zion axola. Nahikoa zen uniforme jakin bat zerabilen gizon bat izatea! Baina nolako gizona eta nolako uniformea! Miltonek atseginez aztertzen zuen, ia samurtasunez, gorputz astun eta elastiko hura, eta, lehenengo aldiz, adiskidetasuna sentitu zuen uniforme harekiko, adiskidetasuna hark, Miltonek ongi zainduta, ibiltzeko zerabiltzan botekiko ere. Nolako truke-txanpon handia, nolako erosmen handia adierazten zuen! Harritu egin zen hura bezalako sarjentu batengatik agintari faxistek hiru Giorgio ere salduko zizkiotela pentsatuz. Baina gizon hark seguru norbait hil zuela edo, hobeto, seguru norbait fusilatu zuela pentsatu zuen une bere-berean. Fusilatzailearen itxura bete-betea zuen. Begien aurrean pilatu zitzaizkion

mutil fusilatuen aurpegi zargaldu, haur-itxurakoak, haien bular biluzi, argalak, bularrezurra gila bat bailitzan ateratzen zitzaienak. Oi, horra jakin gabe bizi ezin zitekeen beste egia bat. Baina ez zion galdetuko. Ukatu egingo ziokeen, etsi-etsian; Coltarekin mehatxatuz gero, beharbada, aitortu egingo zuen hil izana, bai, baina borroka erregularrean. Gainera, Miltonen ikerketa horrek gauzak zaildu zitzakeen, eta Mangorako bidea Milton oraintxe espero izaten hasia zena baino malkarragoa eta neketsuagoa bilaka zitekeen. Fulviari buruzko egiak zuen erabateko lehentasuna, are gehiago, hura zen existitzen zen egia bakarra.

—Kendu burutik patruilak –esan zion ahots gozo ia hipnotiko batez–. Egin otoitz hortik zehar ibil ez daitezen. Nik ez zaitut hilko, babestu egingo zaitut, ez dizut utziko zure aurka behatz bat jasotzerik. Gure artean bada erreta dagoen jendea eta atzaparra jarri nahiko dizuna, baina bakean utzi beharko zaituzte. Zuk gauza bakar baterako balio duzu. Buruan sartu zaizu, ezta? Hitz egin.

—Bai, bai.

—Nongoa zara?

—Bresciakoa.

—Bresciako asko zarete. Eta nola duzu izena?

Ez zuen erantzuten.

—Ez didazu esan nahi? Beldur zara ez ote naizen horretaz harrotuko? Ez dut inoiz zutaz hitz egingo, ez orain, ez hogei urte barru ere. Ez naiz inoiz harrotuko. Ez baduzu nahi, ez esan.

—Alarico –esan zuen sarjentuak itsumustuan.

—Zein kintatakoa zara?

—Hogeita hirukoa.

—Nire lagunaren kinta. Horretan ere bat gatoz. Eta zer zinen bizitza zibilean?

Ez zuen erantzuten.

—Ikaslea?

—Ez horixe!

Hegia bizkor ari zen zelaitzen, orain desagertu egiten zen, eta errepidea begi-bistan agertzen zen mendi-mazelan. Miltonek zehar-begirada bat bota zuen Canellirantz, han behean, eta kalkulatutakoa baino hurbilago ikusi zuen. Plataforma jasotzaile batean igota bezala etorri zitzaion herria begietara.

—Aldatu beste aldera. Zangaren ondotik ibili.

Beste bihurgune itxi bat, baina oraingoan Miltonek ez zuen ezer egin aurpegia zertxobait gehiago ikusteko; are gehiago, ez egiteko, begiak jaitsi zituen.

Sarjentua arnasestuka ari zen.

—Bidearen erdia baino gehiago egin dugu —esan zuen Miltonek–. Poztu egin beharko zenuke. Salbaziotik geroz eta hurbilago zaude. Bihar eguerdian libre egongo zara eta berriro gure aurka jarri ahal izango duzu. Eta nork daki alderantziz ez ote garen egongo. Zu eta ni. Ez litzateke batere harritzekoa izango, egiten ari garen gerra mota honekin. Jakina, zuk ez ninduzuke trukatuko, ezta?

—Ez, ez! –egin zuen oihu ito bat sarjentuak. Ukatu baino areago erregutu egiten zuen.

—Zergatik eskandalizatu? Ez pentsa ni baino krudelagotzat hartuko zintuzkedanik. Bakoitzak ahal duen gehiena atera izango du bestearengandik. Nik truke bat lortuko dut, zuk nire larrua. Kito egongo ginateke. Beraz…

—Ez, ez! –errepikatu zuen sarjentuak.

— Utz dezagun dagoen bezala. Txantxetan esaten zuen, esateagatik. Pentsa dezagun oraingo unean. Esan dizut babestuko zaitudala. Iritsi bezain laster, jaten eta edaten emango dizut. Zigarro pakete bat

oparituko dizut. Ingelesak, zuretzat berriak. Bizarra mozteko ere emango dizut. Albako agintariengana joatean txukun egotea nahi dut, ulertzen?

—Utzidazu eskuak jaisten.

—Ez.

—Alboen kontra estutuko ditut, lotuta banengo bezala.

—Ez, baina gero hobeto tratatuko zaitut. Gaur gauean ohe batean lo egingo duzu. Guk lastotan egiten dugu lo, baina zuk ohean egingo duzu. Neu geratuko naiz guardia egiten ate aurrean; horrela seguru egongo gara ez zaizula txantxarik gertatuko lo zauden bitartean. Eta bihar goizean, trukerako, nire lagunik onenak etorriko zaizkigu lagun. Neuk aukeratuko ditut. Ikusiko duzu. Ez zaitut gaizki tratatzen. Esan, gaizki tratatzen zaitut?

—Ez, ez.

—Ikusiko dituzu besteak. Haiekin alderatuta, ni basati bat naiz.

Ia gailurrean zeuden. Miltonek erlojuan begiratu zuen.

Minutu batzuk falta ziren ordu bietarako; bostetarako Mangon egongo ziren. Canellira begiratu zuen eta zorabio pittin bat sentitu zuen; ez zekien zerk eragiten zuen gehiena, nekeak, jan gabe egoteak ala arrakastak.

—Gu biok enpaz gaude orain –esan zuen.

Hitz haiek entzunda, bertan gelditu zen sarjentua eta intziri egin zuen.

Milton esnatu eta hobeto heldu zion pistolari.

—Baina zer ulertu duzu? Gaizki ulertu duzu. Ez ikara egin. Ez zaitut hil nahi. Ez hemen, ez beste inon. Ez zaitut hil behar. Ez errepikarazi gehiago. Argi dago? Hitz egin.

—Bai, bai.

—Segi ibiltzen.

Soilgunera igo eta zeharkatzen hasi ziren. Miltoni goizean iruditu zitzaiona baino zabalagoa iruditu zitzaion. Miltonek etxe bakartirantz begiratu zuen; mutu, itxita eta hotz zegoen, goizean bezala.

Sarjentua itsu-itsuan zebilen orain, basakarduak saihestu gabe egiten zuen trostan lokatzetan.

—Itxaron –esan zion Miltonek.

—Ez –hark, gelditu z.

—Aski da, e? Gauza bat ari nintzen pentsatzen. Entzun. Bidean gure goarnizio bat dagoen herri batetik igaro beharko dugu. Han ere bada erre-erreta dagoen jendea. Batez ere badira beren anaiak hil dizkiezuen nire bi kide. Ez dut esaten zuek izan zaretenik, San Marcokoak. Baina horiek erraiak jan nahiko dizkizute. Beraz, ez gara herri horretatik igaroko, ezagutzen dudan haitzarte batetik inguratuko dugu. Baina zu ez hasi…

Sarjentuaren behatzak kraskada ikaragarri batez askatu ziren garondotik. Besoak arraunean bezala zebilzkion zeru zurian. Horrela airean zintzilika, beldurgarria eta baldarra zen. Albo baterantz egiten zuen hegan, eta gorputzak bazirudien azpiko tuparrian tolesten ari zela.

—Ez! –egin zion oihu Miltonek, baina Colt-ak tiro egin zuen, katuari garrasiak eragin balio bezala.

Belauniko erori zen eta une batez bertan geratu zen, uzkur-uzkur eginda, burua atzera botata, eta sudur txiki eta markatua zeruan iltzatuta bezala. Miltoni iruditu zitzaion ez batak ez besteak ez zuela lurrik ukitzen, hura guztia zeru zurian flotatzen gertatuko balitz bezala.

—Ez! –oihu egin zuen Miltonek eta berriro tiro egin zion, bizkarrean zabaltzen ari zitzaion orban gorri handira destatuz.

11

Atertu berri zuen eta hain haize gogorrak jotzen zuen lur-arrasean non hartxintxarra lokatz-zolatik altxatu eta hara-hona erabiltzen baitzuen errepidean zehar. Argia ia erabat alde egina zen mundutik, eta haizearen zurrunbiloek are gehiago gutxitzen zuten ikuspena.

Bi gizonak aurrez aurre zeuden, elkarrengandik hogeiren bat pausoko distantziara, begiak aurrera begira tinko zituztela elkar ezagutzeko edo mugimenduei aurrea hartzeko, eta eskuak pistola-zorroetatik gertu zituztela. Orduan, etxe bakartiaren kantoitik, gainean bela baten antzera puzten zitzaion kamuflaje-iragazgaitzarekin azaldu zenak, astiro destatu zuen pistola bihurgunetik irtetean seko gelditu eta hantxe behean, haizetan landare bat balitz bezala kulunkatzen zen gizonaren kontra.

—Etorri gerturago –esan zuen pistoladunak–. Eskuak goian, txalo eginez. Jo eskuak elkarren kontra –errepikatu zuen ozenago, haizea gainditzeko.

—Zu Fabio ez zara? –galdetu zuen besteak.

—Eta zu? –galdetu zuen Fabiok, pistola zertxobait jaitsirik–. Nor zara? Ez zara bada… Milton izango?

Eta korrika abiatu ziren elkarrengana, ia erotuta bezala, ez batak ez besteak segundo bakar bat ere jarraitu ezin balu bezala bestearen laguntzarik gabe.

—Nolatan zu hemen? –galdetu zion Fabiok, Trezzoko goarnizioko komandanteordeak–. Mendeak inguruotan azaltzen ez zinela. Tartean menditxo bat besterik ez dugu eta mendeak joaten dira… Nola zabiltza kalekoz jantzita?

Begiak behartu egin behar izan zituen Miltonen kaleko jantzia bereizteko, hainbesteraino baitzegoen, izan ere, lokaztuta.

—Santo Stefanotik nator, nire *Kontu pribatu bat*etik.

Ozenago ezin hitz egiten zuten elkarrekin, haizea tartekatzen zelako, eta nahita errepikatzen zuten maiz, besteak errepikatzeko eskatu gabe.

—Santo Stefanon San Marco erregimentua zegoen gaur goizean.

—Niri esango didazu hori, Belbo ibaia zeharkatu behar izan dut-eta salbatuko banintzen?

Fabiok adeitasunez barre egin zuen, eta amen batean haizeak zirimolan eraman zuen algara, luma bat bailitzan.

—Fabio, baduzu armarik gabeko gizonik?

—Nork ez du?

—Ba, orduan emaiozu hau –eta Miltonek sarjentuaren Beretta luzatu zion.

—Bai pozik. Baina zergatik eman nahi duzu zuk?

—Soberan daukadalako.

Fabiok pistola pisatu eta berearekin alderatu zuen.

—Baina bikaina da, eta nirea baino berriagoa. Neuretzat gordeko dut, argitan aztertu arte, baina bi-

tartean… –Fabiok sarjentuaren pistola zorroan sartu eta bere pistola zaharra poltsikoan sartu zuen.

—Soberan neukan –esan zuen Miltonek–. Fabio, zer dakigu Giorgiori buruz?

—Zer esan duzu?

—Goazen ukuilu horretara hitz egiteko –esan zion Miltonek oihuka, errepide bazterraz beste aldeko etxola seinalatuz.

—Hobe dugu ez sartu. Barruan ezkabia duten nire hiru gizon daude. Zer eta ezkabia!

Fabio haizeari bizkarra emateko biratu zen, eta erdi makurtuta hitz egin zuen, berekin zegoen Miltonekin ez baina errepide ondoko zangan etzandakoren batekin ari balitz bezala.

—Haize honengatik ez balitz, hemendik bertatik entzungo zenieke intzirika. Hartzak balira bezala aritzen dira biraoka, intzirika, hormaren kontra igurtziz. Ni ez naiz hor berriro sartuko, hazka egitea nahi izaten dute-eta. Egur eta burdin puskak ematen dizkizute, horiekin hazka egin diezaiezun. Atzamarkadak sentitu ere ez dituzte egiten. Orain dela bost minutu Diegok ia ito nau. Burdinazko orrazi bat eman dit harekin hazka egiteko; nik ez diot egin nahi izan, jakina, eta Diegok lepora salto egin dit.

—Hitz egin dezagun Giorgiori buruz –oihu egin zuen Miltonek–. Oraindik bizirik dagoela uste duzu?

—Ez dakigu ezer ere. Horrek esan nahi du bizirik egon beharko lukeela. Fusilatu izan balute, norbait Albatik aterako zen eta jakinaraziko zigun.

—Gerta liteke eguraldi txar honengatik ez atera izana.

—Horrelako berri batekin, norbait moldatuko zen, eguraldi txar honekin ere.

—Zure iritzian… –jarraitu zuen Miltonek, baina une horretan haize bolada gogorrago batek jo zuen.

—Hor atzean! –oihu egin zuen Fabiok, eta Milton ukondoan joz Trezzoko sarreran altxatzen zen harroin batera joan zen harekin.

—Zure iritzian –errepikatu zuen Miltonek babestuz batera–, bizirik dago oraindik?

—Nik baietz egingo nuke, ezer ez dakigula kontuan hartuta. Epaitu egingo dute. Bere etxekoek apezpikuari esku harraraziko diote, seguru, eta kasu horietan seguru izaten da epaiketa.

—Noiz epaituko dute?

—Hori ez dakit –erantzun zion Fabiok–. Badakit gure gizonetako bat preso hartu eta handik astebetera epaitu zutela. Baina egia da auzitegitik atera bezain laster fusilatu egin zutela.

—Nik seguru egon behar dut, Fabio —esan zion Miltonek–. Eta zuk ez didazu ezer segururik esaten.

Fabiok burua ondoratu zion, bere kopetaz Miltonena jotzeraino ia.

—Zer? Erotu egin zara, Milton? Nola nahi duzu nik ezer segururik esatea? Ala Porta Cherascako kontrolean aurkez nadila nahi duzu txapela eskuan hartuta… –Miltonek eskua astindu zuen isilarazteko, baina Fabiok bukatu nahi izan zuen:– …txapela eskuan eta esan: «Barkatu, faxista jaunok, Fabio partisanoa nauzue. Esango al didazue, mesedez, ea nire adiskide Giorgio oraindik bizirik dagoen?» Erotu egin zara, Milton? Eta bide batez, Giorgioren berri jakiteko bakarrik etorri al zara honaino?

—Horixe. Zuek hiritik gertuago zaudete.

—Eta orain zer egin behar duzu? Treisora itzuliko zara?

—Hemen geratuko naiz lotarako. Bihar Albara hurbildu nahi dut eta mutiko bat bidali barrura berrien bila.

—Bai, lo egin hemen.

—Baina ez nuke guardia egin beharrik izan nahi. Gaur goizeko laurak ezkero zutik nago, eta atzo ere egun osoan eman nuen oinez.

—Inork ez dizu eskatuko guardia egiteko.

—Orduan erakuts iezadazu non lo egiten duzuen.

—Guk han eta hemen barreiatuta lo egiten dugu –azaldu zion Fabiok–. Alba hurbilegi dago eta orain gauez ere ibiltzen dira haiek. Ez dugu denok leku batean lo egiten. Horrela, ustekabean harrapatzen bagaituzte, batzuk baizik ez dituzte sakailatuko.

Bien bitartean, harroinetik aldendu eta, haizetan adar bat uretan bezala kulunkatzen zen besoaz, etxe luze apal bat adierazi zion, Treiso gaineko muinoaren oinetan, ilunpetan kulunkan ziruditen soro sail batetik harago.

—Primerako ukuilua du –gehitu zuen Fabiok–. Abere batzuk daude eta leiho guztiek dituzte beirak.

—Zuk bidaltzen nauzula esango diet?

—Ez dago beharrik. Gure jendea aurkituko duzu.

—Baten bat ezagutzen dut? –galdetu zuen Miltonek, konpainia izateko ideia hark nazkaturik.

Fabiok buruz zerrenda aztertu, eta besteren artean Maté zaharra aurkituko zuela esan zion.

Iluntzen ari zuen, eta milaka zuhaitz ari ziren etsi-etsian xuxurlaka. Ia bertatik nahastu zen bidez eta bidearen bila itzuli gabe, soroetan zehar jo zuen, lokatzetan zangoetaraino markak utziz. Inondik ere hurbiltzen ez zen etxearen fantasma hari finko begiratuz, alfer-alferrik zebilela iruditzen zitzaion.

Azkenean larraina, soro lokaztuak baino ez askoz gotorragoa, zapaldu eta lokatzaren zati bat behintzat kentzeko gelditu zenean, Treisoko muinoaren fatxada beltzak Leo gogorarazi zion. «Egun bat izorratu diot

eta bihar beste bat izorratuko diot. Mundua bukatzen bada ere. Nork daki zein haserre eta kezkatuta egongo den. Dena dela, amorratuta eta kezkatuta egotea da gutxienekoa; nork daki nolako desilusioa izango duen gero. Ezin dut ezer egin, baina lastima da, egia esan. Ez zekien ni zein adjektiboz goraipatu ere eta. Hainbesteraino urtu zituen garunak, non azkenean aurkitu baitzuen. Klasikoa. Klasiko bat. Esaten zuen denek, baita berak ere, burua galtzen zutenean, hotz eta burua argi mantentzen nintzelako nintzela ni handia».

Saminduta, ukuiluko atera joan eta bortizki bultzatu zuen.

—Ei! –oihu egin zuen ahots batek–. Poliki. Bihotzekoak jota gaude.

Sarreran gelditu zen, ukuiluko beroak itota, azetilenozko lanpararen distirak itsututa.

—Milton haiz-eta! –oihu egin zuen lehengo ahots berak, eta Miltonek Matéren ahotsa ezagutu zuen eta haren hazpegi gogorrak eta haren begi gozoak ikusi zituen lehenengo gauza.

Ukuilu handi bat zen, habeetatik zintzilik zeuden karburozko bi kriseiluz argitua. Sei idi zeuden aska aurrean, eta dozena bat ardi eskorta batean. Maté ukuiluaren erdian zegoen, lasto-fardo baten gainean eserita. Beste bi partisano, askan eserita, hurbiltzen zitzaizkien idien muturrak etengabe belaunez uxatuz. Beste bat pentsu-kutxaren barrenean zegoen lotan; hankak zintzilik eta kutxaren oholean bermatuta ikusten zitzaizkion. Sukaldeko atearen ondoan, atso zahar bat zegoen, haurrentzako aulki txiki batean eserita, ardatz batekin haria egiten. Haren ileak, ardatzean zerabilen material berekoa zirudien.

—Gabon, andrea –esan zion Miltonek.

Atsoaren ondoan, zaku pilo batean belauniko zegoen haur bat etxeko lanak egiten ari zen tangart irauli baten gainean.

Maték ondora joateko deitu zion, eskuaz lastoa joz. Atseden hartzen ari zen arren, arma guztiak aldean zeuzkan, eta botetako lokarriak ere ez zeuzkan lasaituta.

—Ez didak esango ikaratu egin haudala –esan zion Miltonek, ondoan eserita.

—Zin dagiat. Bihotzetik ahulduta nagok. Bihotzarentzat urpekariarena baino okerragoa duk lanbide hau. Kanoikada bat bezala zabaldu duk sarrerako atea. Eta ba al dakik zer itxura dakarrean? Esan, noiztik ez haiz ispiluan begiratu?

Miltonek aurpegia igurtzi zuen eskuez.

—Zer ari zineten egiten?

—Ezer ez. Orain dela bost minutu arte karta saio bat egiten ari gintuan. Orain dela bost minutuz gero pentsatzen ari nauk.

—Zertan?

—Arraroa irudituko zaik. Alemanian preso dagoen nire anaiarengan. Hemen egosten ari den guztiarekin, harengan pentsatzen ari ninduan. Hik ez duk inor preso Alemanian?

—Lagunak eta ikaskideak besterik ez. Irailaren zortziko konturen bat? Grezian, Jugoslavian zegoan…?

—Bai zera –san zuen Maték–. Alessandrian zegoan, etxetik bi pausora, baina ez huen salbatu. Erromatik, Triestetik, infernuko zulotik zetorren jendea iristen ikusi genian, baina bera ez, Alessandriatik. Gure ama irailaren azken eguna arte egon zuan atean. Nork jakin nola gertatu zen. Gogoan izan ez zela batere ergela; anaion artetik buruargiena, zalantzarik gabe. Trikimailu guztiak, ausardia guztiak hark erakutsiak

genitian, baita oraintxe partisanoen artean baliagarri ditudan zenbait gauza ere. Baina tira, nire anaiaz aparte, gure artetik azkenean Alemaniara eraman dituztenengan pixka bat gehixeago ere pentsatu beharko genukeela uste diat. Hitz bat ere, bat, entzun al duk inoiz haiei buruz? Bat bera ere ez duk gogoratzen haiez. Nolanahi ere, gehixeago izan beharko genitizkek gogoan, nik uste. Haiengatik ere, saiatu beharko genikek azeleragailua gehixeago zapaltzen. Ez zaik iruditzen? Ez duk gozoa izango inondik ere alanbrada baten atzean egotea, txakurraren gosea, erotzeko modukoa, pasatu beharko dik han. Egun bat bera ere garrantzitsua izan daitekek haientzat, erabakigarria izan daitekek. Egun bat gutxiago irautea lortzen badiagu, gerta daitekek baten bat ez hiltzea, besteren bat ez erotzea. Lehenbailehen itzularazi behar ditiagu. Eta gero denak kontatuko zizkioagu elkarri, haiek eta guk, eta nahikoa tristea izango duk haientzat pasibotasunaz baino ezin hitz egitea, eta guri ekintzez hitz egiten aho zabalik entzun beharra. Hik zer deritzok, Milton?

—Bai, bai –erantzun zion–, baina orain Alemaniara eraman dituztenak baino mila aldiz okerrago dagoen batez ari ninduan gogoratzen. Oraindik bizirik badago, Alemaniara joateko pozik sinatuko lukeen bat; harentzat oxigenoa izango lukek Alemania. oxigeno baloi bat litzatekek. Giorgioren berri jakin duk?

—Giorgio Zetazko Pijama?

—Zergatik deitzen diok Zetazko Pijama? –galdetu zuen Riccardok, askan zangalatraba zeuden bietako batek.

—Ez esan! –xuxurlatu zuen Miltonek.

—Ez zaik interesatzen –esan zion Maték Riccardori, eta gero Miltoni ahots beheran:– Zer nahi duk egitea? Preso hartu zutela jakin nuenean, ezin izan

nian ahaztu zetazko pijama nola janzten zuen lasto gainean etzateko.

—Baina zer uste duk egingo diotela?

Maték begiak zabal-zabalik begiratu zion.

—Baina hiri zer iruditzen zaik?

—Lehendabizi epaitu egingo diate.

—A, bai! –esan zuen Maték–. Bai, hori badaitekek. Hori seguru, hobeto esanda. Giorgio bezalakoak lehenengo epaitu egiten ditiztek beti. Hi harrapatu izan bahindute bezala, bestalde. Hi ere aipatu egingo hindukete, hi Giorgio baino arrazoi gehiagorekin. Zuek unibertsitateko ikasleak zarete, arrain finak, pakete politak zabaltzeko. Zuei epaiketa egiten dizuete. Zuei epaiketa egitea gustatu egiten zaiek, ulertzen? Ni bezalako tipoak, ordea, eta hor atzean dauden bi horiek bezalakoak, ez gaituk interesgarriak. Harrapatu bezain laster horma baten kontra jaurtitzen gaitiztek, eta oinak lurrean jarri baino lehen egiten zietek tiro. Baina, Milton, argi gera dadila ezberdintasun horrengatik ez diadala gorrotorik. Bertan akabatzea ala hiru egun geroago akabatzea, zer alde zagok?

—Jaungoiko faxista! –esan zuen mutikoak.

Amonak ardatzaz mehatxatu zuen.

—Ez dizut berriro entzun nahi hori esaten. Gauza politak ikasten dituzu zuk partisanoekin!

—Ez zait ateratzen –esan zuen mutikoak, etxeko lanei buruz.

—Saiatu berriro, eta ikusiko duzu nola gauza zaren ateratzeko. Irakasleak ez dizue agintzen egiteko gauza ez zareten lanik.

Pincok, askan eserita zegoen besteak, esan zuen:

—Atzo goizean Manerako bidegurutzean harrapatu zuten horretaz ari zarete?

—Ez atzo goizean –ohartarazi zion Miltonek–, herenegun goizean.

—Oker zabiltza –esan nuen begi-bazterraz Miltoni begiratuz–, atzo goizean izan zen.

—Horretaz ari zineten? –esan zuen berriro Pincok–. Ba, ez ninduen askorik konbentzitu nola harrapatu zuten.

Milton biratu egin zen fardoaren gainean.

—Zer esan nahi duzu horrekin? –eta begiak larritasunez ia aterata begiratzen zion Giorgio kritikatzen zuen arrotz madarikatu hari, eta Fulviari irainka ari zela iruditzen zitzaion–. Zer esan nahi duzu horrekin?

—Esan nahi dut ez dela izan Blackiek bezala bere burua azkeneraino defenditzen duten edo Nannik bezala bere buruari ahoan tiro egiten dioten horietakoa.

—Lainoa zegoen –erantzun zuen Miltonek–, eta lainoak ez zion utzi ez bata eta ez bestea egiten. Ohartzeko ere ez zion astirik eman.

—Pinco –esan zuen Maték–, isilik egoteko aukera ezin hobea galdu duzu. Ez zara gogoratzen nolako laino itsua izan genuen atzo goizean? Faxistek berarekin topo egin zuten bezala, landare batekin edo larrean ari zen behi batekin ere egin zezaketen topo.

—Lainotan –erantsi zuen Miltonek–, ezin izan zuen erakutsi ez gizona zenik ez beste ezer. Gorputz bat besterik ez. Baina nik ziurta diezazuket gizona dela. Egiaz ahal izan balu, tiro bat emango zuen ahoan, Nannik bezala. Behin ederki frogatu zidan. Iazko urrian, gutako inor artean partisanoekin ez zegoenean, partisanoak misterio moduko bat zirenean. Gogoan izango duzue, nik bezala, nolakoa zen hiria urri hartan. Grazianiren bandoak kantoi guztietan, alemanak artean sidekarretan metrailadorearekin hara eta hona, burua

jasotzen hasi ziren lehen faxistak, iragana ukatzen zuten carabinieriak…

—Nik –eten zion Pincok–, iragana ukatzen zuten carabinieri horietako bat desarmatu nuen…

—Utzidazu bukatzen –esan zuen Miltonek hortz artean.

Familiek giltzapean edukitzen zituzten, ganbaran edo sotoan, eta aske uzten bazituzten, erantzukizunari eta erruari buruz halako sermoiak bota ondoren, non kalera irtete hutsarekin, parrizidioren bat egiten zutela baitzirudien. Hala ere, urri hartako gau batean, Miltonek eta Giorgiok, giltzapeturik eta ezkutaturik egoteari ezin eutsi eta zinemara joatea erabaki zuten Clericitarren neskamearen laguntzarekin. Viviane Romancek jokatzen zuen film bat botatzen zuten.

—Gogoratzen naiz –esan zuen Riccardok–. Banana bat bezalakoxe ahoa zuen.

—Non botatzen zuten? –jakin nahi izan zuen Maték zehazki–. Eden zineman ala Corinoan?

—Corinoan. Amari esan nion estraperloan zebilen auzokide batenean zigarroak erostera jaitsi behar nuela une baterako, eta Giorgiok ere antzeko zerbait asmatu zuen.

Kalexkarik kalexka joan ziren zinema-aretora. Beldurrik gabe baina damuz beterik zihoazen. Ez zuten arimarik aurkitu eta, are gehiago kikiltzeko, eguraldia ekaitz bihurtu zen. Oraindik ez zuen euririk egiten, baina oinaztargiek hain gertu eta hain behean jotzen zuten, non kaleak morez blai egiten baitziren une oro. Zinemara iritsi ziren, eta sarreratik bertatik konturatu ziren aretoa ia hutsik egongo zela. Txarteldegiko arduradunak gaitzespen keinua eginez eman zizkien txartelak. Goiko galeriara igo, eta bost lagun aurkitu zituzten han, segurtasun irteeratik gertu eserita denak.

Milton barandatik irten eta besaulki-patiora begiratu zuen. Hamabosten bat ikusle, hor nonbait, eta mutikoak izan behar zuten gehienek, soldaduskara joateko adinaren eta dokumentuen kezkarik gabe. Baina segurtasun irteerak zabal-zabalik zeuden, nahiz eta haizea sartu eta kanpoan trumoiek traba egin.

—Zertaz zen filma? –galdetu zuen Riccardok.

—Berdin dio. Izena *Venus itsua* zuen, hori bai.

Bigarren saioa bukatu baino lehen, biak bakarrik geratu ziren goiko galerian. Gainerako bakan haiek beraiek baino lehenago irisi ziren eta film osoa ikusi zuten. Iritsi berrietatik inor ez. Milton eta Giorgio lekuz aldatu eta barandaren ondoan eseri ziren, besaulki-patioa begi bistan edukitzeko, elkarren arteko segurtasun eta elkartasun moduko batengatik. Horretan, atarian garrasiak eta lasterketak entzun zituzten, eta besaulki-patioan zeudenak segurtasuneko irteerara oldartzen. «Hemen dituk –esan zion Miltonek Giorgiori–. Madarikatua Viviane Romance!» Milton segurtasun aterantz oldartu zen, baina trabatuta aurkitu zuen, kanpotik itxita. Bizkarraz ekin zion, baina dardara ere ozta-ozta eragin zion. Behean zalapartak jarraitzen zuen; areago, lehen baino handiagoa zen. Oihuka ari ziren, korrika, ateak jotzen, hormaren kontra ostikoka. «Galeriara igotzen ari dituk!» egin zion oihu Giorgiori, eta irteera normalerantz oldartu zen, haiek baino lehenago eskaileretara iritsi, kanpoko balkoira irten eta lau metrotik patiora jauzi egiteko asmoz. Hala egin zuen, nahiz eta sinetsita egon berandu zela, azken eskailera-tarteko mailak launaka igotzen ari ziren faxistekin muturrez mutur joko zuela. Itsumustuan zihoan ahala, Giorgiori azken begiratu bat egin zion, eta barandan zangalatrau ikusi zuen, gorputzaren erdia erortzear zuela.

—Corino zineman egon zareten guztiek dakizue galeriarik besaulki-patiora hamar metroko jauzia dagoela. Bada, Giorgio bere burua behera botatzeko prest zegoen, besaulki-patioko burdinazko eserlekuen kontra txikitzeko prest. «Ez!» oihu egin nion, baina berak ez zidan erantzun ere egin, ezta begiratu ere, nire aurreko atera begiratzen zuen, faxistak noiz sartuko ziren ikusteko. Behean, ordea, dena baretu zen. Ez zen ezer gertatu, faxistekin zerikusirik zuen ezer ez, alegia. Txartel-leihatilan lapurreta saio bat, besterik ez zen izan; txartel-banatzaileak oihu egin zuela, bertako langileak lasterka joan zirela eta hori; baina faxisten sarealdi bat pentsatu zuten denek. Baina hor dago gertatua, froga. Lehen faxistaren muturra azaldu orduko, Giorgiok bere burua botako zukeen.

Isilune bat izan zen, eta gero Maték esan zuen:

—Nik badakit Giorgiok buruaz beste egingo duela, besteek dagoeneko egin ez badiote. Ikusten ari naiz ziegan. Zer gertatu zaion pentsatzen badu, amorruz eta etsipenez, paretaren kontra lehertuko du burua.

Beste isilaldi bat eta umeak amonari esan zion:

—Alferrik da, ez naiz gauza idazlan hau egiteko.

Atsoak hasperen egin eta partisanoengana biratu zen.

—Zuen artean ez al da inor maisua-edo?

Maték Milton seinalatu zuen eta Milton, pentsatu gabe, lasto-fardotik altxatu eta mutikoaren ginera makurtu zen.

—Maisua baino gehiago da hori –xuxurlatu zion Maték atsoari–, irakaslea da. Unibertsitatetik dator.

Eta atsoak:

—Ea bada, ea nolako jende jakintsua ekarri digun gure leku malapartatuotara gerra madarikatu honek.

—Zein da gaia? –galdetu zuen Miltonek.

—Zuhaitzak, gure adiskideak –esan zuen mutikoak silabaka.

Milton imintzio bat eginez zutitu zen.

—Ez dakit hori egiten. Barkatu, baina ezin dizut lagundu.

Eta mutikoak:

—Zu maisua… ni adina. Jaungoiko faxista!, Zertarako etorri zara gero ezin badidazu lagundu?

—Nik… uste nuen… beste era batekoa izango zela gaia.

Ukuiluko zoko batera joan eta lasto-fardo bati ostikoka hasi zen, hura desegiteko. Lo egin behar nuen. Hamar minutuan lo zerraldo egotea espero zuen. Sarjentuarenak ez zion eragozten, bere borondatez hil zen, berak ez zuen zerikusirik hartan, eta aurpegia ere ez zion ikusi, gainera. Gauza txarra, lorik egiten ez bazuen. Oso makal zegoen, leher eginda, akituta. Hosto bat baino arinago sentitzen zen, hosto beratu bat bezala.

Riccardok ozen hitz egiten zuen, aska gainera igota betiere.

—Zenbat urte dituzu zehazki, Maté?

—Asko –erantzun zuen Maték–. Hogeita bost urte.

—Zaharra zara, bai. Tripotxetarako zaude ia-ia.

—Ergela! –esan zuen Maték–. Ez nuen zentzu horretan esaten. Eskarmentu handia dudala nahi nuen esan. Gehiegi ikusi ditut larrua galtzen. Ezinegonagatik, emakume-gogoagatik, erretzeko irrikagatik eta autoan partisanokeriatan ibiltzeko maniagatik.

Milton iraulka ari zen lastoaren gainean, eskuak begietatik kendu gabe.

—Bihar. Zer egin bihar? Nora joko dut bila? Alfer-alferrik da. Sarjentua kito, kito gainerako guztiak. Horrelako aukerak behin agertzen dira. Madarikatu horrek…! Nork jakin ea aurkitu duten, ala oraindik

hantxe dagoen, ilunpetan bakar-bakarrik, usteltzen. Baina zergatik, zergatik? Buruan sartu zitzaion engainatu nahi nuela patruilen irispidetik kanpo egon arte, eta behin urrundu ondoren nik... madarikatua! Baina zer egin behar dut bihar bilaketa-planik ere gabe?

Eskuez belarrien puska bat estaltzen bazuen ere, ongi entzuten zituen besteen solasak eta izugarri oinazetzen zuten.

Pincok herriko maistra gazte berriaren gaia atera zuen; irakasle zahar gaixotuaren ordez bidali zuten. Pincori gustatu egiten zitzaion, eta baita Riccardori ere.

—Utz ezazue bakean maistra gaixo hori –esan zuen atsoak.

—Zergatik? Ez diogu ezer txarrik egin nahi. On egin nahi diogu –eta Pincok barre egin zuen.

—Ikusiko duzue –esan zuen atsoak–, ikusiko duzue zertan amaitzen diren gauza hauek.

—Zuk zahartzaroaz hitz egiten diguzu –esan zion Riccardok–, eta zahartzaroa ez da gure kontua, inola ere.

—Maistrak berriro? –esan zuen Maték–. Ba kontuz maistrekin, mutilak, faxismoa gorputzean sartuta daukan jendea da-eta. Nik ez dakit zer egin dien duceak, baina hamarretik bederatzi faxistak dira. Kontatuko nizueke maistra baten istorioa, denentzat balio duen bat.

—Kontatu.

—Faxista burutik hanka-puntetaraino –jarraitu zuen Maték–. Mussolinirekin seme bat izatea amesten zutenetako bat. Eta Craziani txerri hartaz ere txoratxora eginda zegoen.

—Egon pixka bat –esan zuen Pincok–. Gaztea zen, polita? Hori hasieratik bertatik jakin behar da.

—Hogeita hamarren bat urte zituen –zehaztu zuen Maték–, eta itxura oneko emakumea zen. Sendo samarra, gizon-itxurako samarra, baina jaikia eta haragia ongi banatua zuena. Aurpegiko azala, batez ere, apartekoa zuen, zeta hutsa.

—Eskerrak –esan zuen Pincok–, zaharra eta itsusia izanez gero, bazenuen historia isilik uztea, munduko interesgarriena izanda ere.

—Gure aurkako propaganda egiten zuela jakin genuenean… Egon. Ahaztu egin zait esatea orduan Izar Gorrian nengoela ni. Mombarcaroko muinoetan geunden, mendiak esan liteke. Komisarioak Max zuen izena, eta haren borrero-laguntzailea Alonzo delako bat zen, Espainiako gerra egina; ordezkari militarra zela esaten zuen. Ez dakit zer militar-maila den hori, baina Espainiakoa egin zuela seguru, hiru hitzetik bat gaztelaniaz esaten zuen-eta, eta hango hizkuntza jakin gabe ere argi ikusten zen ez zela ahoberokeria hutsa. Baina, Espainiakoa egin izanak ez zion axola, jendea hiltzen bazekiela, hori zen garrantzitsuena. Neuk ikusi nuen egiten, baina ikusi ez banu ere, garbi sumatzen nuen jendea hil nahi zuten eta hiltzen bazekiten horietakoa zela. Begietan antzematen zaie, eskuetan eta baita ahoan ere.

Onespenezko marmario bat izan zen inguruan eta gero Maték jarraitu zuen:

—Esaten ari naizen maistra hori Belvederen bizi zen eta han zen irakasle, gure basetik hamar kilometrora. Gure kontrako propaganda egiten zuelako hotsa iritsi zitzaigunean –ergel gaixo hark hitz erdi esan orduko kontatzera etortzen zitzaizkigun–, Max komisarioak lehenengo ohartarazpena egin zion. Ohartarazpena eraman zion gure kideari –mutil jator zentzudun bat– aurpegian barre egin eta irainez bete zuen, maistra

batek zertan ezaguturik izan beharko ez lituzkeen hitzak bota zizkion. Mutilak ez zion erantzun, emakume bat zelako azken finean ere. Gero jakinarazi ziguten jendaurrean esan zuela faxistek mendira igo eta gu guztiok metrailadoreaz suntsitu beharko gintuzketela. Ez genion kasurik egin. Hurrengoan esan zuen faxistek gar-jaurtigailuekin igo beharko luketela, eta bera pozik hilko litzatekeela gu guztiok kiskalita ikusi ondoren. Orduan Maxek beste ohartarazpen bat bidali zion. Bigarren hau lehenengoa eraman ziona baino gogorrago batek eraman zion, baina harrera berbera egin zion hari ere eta, emakumea bertan ez hiltzeagatik, biraoka alde egin zuen. Ohartzen zarete, maistra hori fenomeno bitxia zen, dibertigarria ere bai beharbada, baina bihotza oraindik pozoituta ez zuenarentzat dibertigarria. Lehen bezala jarraitu zuen, hobeto esanda, okerrago, eta gau batean lautadatik bueltan gentozela hotzak eta goseak geunden, eta ez genuen erregai-tantarik aurkitu –horixe zen irtenaldiaren helburua–, Maxek kamioia Belvederen geldiarazi zuen. Maistraren aitak zabaldu zigun, eta hark hegan harrapatu zuen. Hegan harrapatu zuen eta bere burua lurrera bota, eta iraulka hasi zen. Haren gainetik pasatuz sartu ginen, eta bera, behetik, guri hankak heltzen ahalegintzen zen. Emaztea ere etorri zen eta aurrean belaunikatu zitzaigun. Arrazoi oso-osoa ematen zigun, baina ez hiltzeko, mesedez.

Atsoa zutitu eta bilobari esan zion:

—Gora, ohera joateko ordua da.

—Ez eta ez, hemen geratu nahi dut entzutera.

—Lotara oraintxe bertan! –eta ardatzaren kirtenaz sukaldeko aterantz bultzatzen zuen. Eta partisanoei gabon esan zien:– Espero dezagun bihar bizirik esnatuko garela.

Maték haiek irten arte itxaron zuen eta jarraitu zuen:

—Baina ez hiltzeko. Alaba bakarra zuten, eta sakrifizio asko egin zuten hari maistra titulua emateko. Bera arduratuko zen aurrerantzean; beste ezer, ezta sukaldeko lana ere, egin ezin bazuen ere, berak zainduko zuen, haur bati bezala tapatuko zion ahoa. Aitak ere ahotsa berreskuratu zuen, hiritar ona eta Gerra Handiko borrokalari ona zela esan zuen, Italiak berari eman baino Italiari askoz gehiago emana. Gainera, bere ospe guztia eskaintzen zien konpentsaziotan, bere alabaren ideia okerren ordainez. Baina Maxek erantzun zion ezinezkoa zela, beranduegi; ia traizio kiratsa zerion pazientzia izan zutela bere alabarekin, esan zion Maxek. Une hartan han agertu zen bera, maistra. Etxeko zuloren batean ezkutatuta zegoen, nonbait, baina ezin izan zituen jasan bere gurasoen lantuak. Gizon asko baino ausartagoa zen, bestalde. Agertuz batera, irainak botatzen hasi zen, eta Max izan zen haiek jasotzen lehena. Tu ere egiten zien, baina, ia emakume gehienek bezala, ez zekien tu egiten, eta blusa gainean erortzen zitzaion listua. Alonzo, espainiarra, nire ondoan zegoen, Maxen atzean, eta ahapeka hasi zaio: «Fusilatu, fusilatu, fusilatu», beti neurri berean, erloju bat bezala. Alonzok Maxen lepoan xuxurlatzen zuen eta Maxek ia konbentzituta balego bezala kulunkatzen zuen burua. «Atrebitu zaitezte fusilatzera, gaizkile nazkagarri horiek!» oihukatu zuen maistrak. Etortzen zait ondora kide bat, batere odolzalea ez zen tipo bat eta esaten dit: «Maté, fusilatu egingo dute, benetan fusilatuko dutela. Niri ez zait ongi iruditzen. Gehiegi da, funtsean gehiegi da arrazoiak burutik atera ordez erraietatik ateratzen dituen emakume batentzat». «Bai, esaten diot nik–, eta espainiar madarikatu hori ez da isiltzen, eta azkenean

guztioi berotuko digu burua». «Begiratu Maxi –esaten dit kideak–, eta ikusi ea dagoeneko burua ondo berotuta ez daukan». Bien bitartean, partisano inozo bat Maxen aurretik pasatu, maistrarengana joan eta esaten dio: «Oso gaizki egin duzu gar-jaurtigailuez hil gaitzaten nahi izatea. Gar-jaurtigailuez hiltzerik ez zenukeen nahi izan behar», eta maistrak aurpegira barre egiten zionez, pauso bat aurreratu eta eskua jasotzen du zaplazteko bat emateko, irri gaizto hura beira bat bailitzan txikitzeko. Baina Maxek eskua airean gelditu eta esan zion: «Geldi. Bere bizitzako lezioa emango diogu. Erdizkako lezioek gauzak lardaskatu besterik lituzkete egingo». Eta «fusilatu, fusilatu», jarraitzen zuen Alonzok xuxurlaka, dagoeneko seguru. Eta nire kideak niregana jotzen du berriro: «Maté, nik ezin dut ikusi nola fusilatzen duten. Egin dezagun zerbait, Jaungoikoarren!» Orduan, Alonzorengandik babesteko esaten diot, aurreratzen naiz eta eskua jasota hitza eskatzen dut. «Zer nahi duk hik?» galdetzen dit Maxek izerdiz blai eginda. «Nire iritzia eman nahi dut. Demokratikoki. Ba, nik ez nuke fusilatuko, komisario jauna. Funtsean arrazoiak burutik atera ordez erraietatik ateratzen dituen emakume bat besterik ez da. Zigor gisa, zigortu egin behar baita, Titoren jarraitzaileek faxistekin ibiltzen diren emakume eslabiarrei egiten dietena egitea proposatuko nuke nik. Ilea larru-arras moztu». Maxek ingurura begiratzen du, gehienak nire alde daudela ikusten du, eta lasaitasunez eta esker onez begiratzen dit; Alonzo, ordea, amorruz zuri-zuri bihurtu zen, zapata baten gainera tu egin zidan eta «Ratero!» oihukatu zidan.

—Zer esan nahi du *ratero* horrek? –galdetu zuen Pincok.

—Ez dakit, eta inoiz ez dut eskatu itzultzeko. Baina amorruak sutan jarri nintzen, ez hainbeste izenagatik, nire zapata gaineko birika-puska nazkagarri harengatik baizik. Burukada bat eman nion bularrean, eta Alonzo zetazko paperezkoa balitz bezalaxe erori zen. Gainera salto egin eta haren aurpegiaren kontra garbitu nuen zapata. Berriro jaiki nintzenean, Max isilik zegoen eta maistrak burlaizez barre egiten zuen. Ohartzen zarete? Burlaizez. Baina Maxek esan zuenean: «Ados, ez dugu fusilatuko; egia esan, ez du merezi rafaga bat gastatzea ere; ilea larru-arras moztuko diogu, Maték dioen bezala», orduan barre egiteari utzi zion, eskuak burura eraman zituen eta kendu egin zituen segituan, ile-mozketaren hotzikara sentituko balu bezala. Polo izeneko bat arduratuko zen hori egiteaz, eta maistraren amari guraizeak eskatu zizkion. Atsoa zoratzen zegoen, fusilatu behar ez genuelako pozik, baina, aldi berean, egin behar genion laidoaren berritasunak txundituta, eta horregatik ez zion kasurik egiten Polok esaten zionari. «Mugitu, amona –esaten zion Polok aldakak ukituz–, ilea hazi egiten da, larrua ez». Bitartean, maistra hartu eta aulki batean galkatu zuten, zangalatrau. Gona igo egin zitzaion eta izterren erdia agerian zuen. Zuri gustatuko litzaizkizuke, Pinco, sustantziaren eta sakontasunaren alde zaudenez. Indartsuak zituen, txirrindulari batenak bezala. Polok guraizeak hartu zituen, baina maistrak batera eta bestera astintzen zuen burua Polok bere lana egin ez zezan, eta Polok beste biri deitu behar izan zien geldirik eduki zezaten. Guraizeak handiak eta kamutsak ziren, gaizki ebakitzen zuten eta kosta egiten zen. Hala eta guztiz ere, Polok moztu egiten zuen eta burezurra agertzen hasi zen. Mutilak, ez begiratu inoiz emakume bati ilea larru-arras mozten diotenean; ez ikusi kaskoa; ez saiatu imajinatzen ere. Inon den patatarik itsusiena

da, eta inpresio bera hedatzen da gorputz-itxura osora. Baina, izugarria bada ere, badu iltzatuta uzten zaituen gauza bat. Geldi geunden denak, hipnotizatuta bezala, eta dagoeneko maistra ez zen erreboltatzen, baina guri irainka eta madarikatzen jarraitzen zuen, are zirrara handiagoa eragiten zigun ahots lakartu batez. Gutako batzuk isil-gordeka atera eta kamioira itzuli ziren. Maistrak sufrimenduzko edo larritasunezko astindu batzuk egiten zituen oraindik, eta gona are gorago igo zitzaion; ligetak agerian zituen orain. Maxek izerdia xukatzen zuen eta bizkor bukatzeko esaten zion Polori. Polo kexu zen guraizeengatik, ilea mozteko ardura hartu izana madarikatzen zuen eta hatzak more zeuzkan metalaren presioagatik. Maistra leher eginda zegoen, orain intzirika baizik ez zuen egiten, neskato batek bezala. Maistraren aita sofan kuzkurturik zegoen, burua eskuen artean zuela, eta atzamarren artetik, adierazi gabe, lurrera erortzen ziren alabaren ile-xerloei begiratzen zien. Ama Birjinaren koadrotxo baten aurrean belaunikatu eta otoitz egiten zuen, ikararik gabe eta dagoeneko negar egin gabe. Maistrari ezin zenion burura begiratu. Gutako ia denak alde eginak ziren. Ni ere atera egin nintzen eta badakizue nola aurkitu nituen? Errepide bazterrean lerrokatuta zeuden, herriari bizkarra emanez, bailarara begira. Dagoeneko ilunduta zegoen, baina ederki ikusi nuen zer ari ziren egiten.

—Zer ari ziren egiten? –galdetu zuen Pincok.

Riccardok koskorreko bat eman zion, eta Maték begiak zabal-zabalik zituela begiratu zion Pincori.

—Esadazu zer ari ziren egiten –errepikatu zuen Pincok.

—Putzak hartuta habil, Pinco, baina hori da dena, putzak. Egidak kasu, Pinco; jan ezak ogia.

Isilune luze bat izan zen. Beroa hozten eta barreiatzen ari zen dagoeneko; abere gehienak lotan zeuden eta geldiro hartzen zuten arnasa. Gero Riccardok Pincori begiratuz hitz egin zuen, xuxurlatu ozta-ozta:

—Nik erlijio bat-bakarra daukat, guduan ez bada inor ez hiltzea. Odol hotzean hilko banu, modu berean hilda bukatuko nuke nik ere. Horixe da nire erlijio bakarra.

Gero kanpoko munduaren dardara luze bat sentitu zen, eta berehalaxe teilatuan danbolin-joka hasi zen euria. Luze gabe errepikatzen hasi zen, eta, pozaren pozez, Maték eskuak igurtzi zituen aguretxo baten antzera. Lotarakoan begiratu bat egin zion Miltoni; ahuspez zetzan lasto gainean. Lo zegoen inondik ere, giltzadura guztiak dardaratan bazituen eta eskuak eta oinak lastoa aztarrikatzen ari bazitzaizkion ere.

Baina Milton ez zegoen lotan. Fulviareneko etxezaina zerabilen berriro gogoan, eta garuna lehertu behar zitzaiola sentitzen zuen. «Ez naiz, bada, denean oker ibiliko? Ez nuen esajeratuko? Ongi ulertu dut, ongi interpretatu dut? Burua lehertzeko zorian daukat, baina kontzentratu egin behar dut. Zer esan zuen etxezainak? Hitz horiek esan zituen benetan Fulviari eta Giorgiori buruz? Ez nituen, bada, ametsetan entzungo? Baina bai, esan egin zituen. «…» eta gero «…» esan zuen. Ikusten ari naiz oraindik ere haren ahoko zimurrak hori esaten ari zenean. Baina, ezinezkoa ote da gaizki ulertu izana? Zentzu bat eman izana beste baten ordez? Ez, zentzua hori zen, horixe zen izan zezakeen zentzu bakarra. Harreman… intimo… berezi… bat. Egon, egon. Etxezainak horraino iritsi nahi izan zuen, ala nik iritsi arazi nion? Ez dut esajeratu izango? Ez, ez, argi hitz egin zuen eta nik oso ongi ulertu nuen. Baina zergatik nahi zuen nik jakitea? Gauza horiek norma-

lean ez zaizkie kontatzen interesatuei. Hark bazekien Fulviaz maiteminduta nengoela eta nagoela. Ezin zen ezjakinean egon, nor eta hura. Bazekiten etxea zaintzen zuen txakurrak, etxeko hormek, gereziondoen hostoek ere, Fulviaz maiteminduta nengoela. Pentsa hark, gure solasen erdiak ere entzuten zituen-eta. Eta hortaz zergatik desengainatu nahi izan ninduen, nire bihotza baretu, begiak zabaldu? Sinpatia zidalako? Egia da sinpatia pixka bat bazidala. Baina nahikoa al da sinpatia horrelako gauza bat egiteko? Jakinean egon behar zuen baionetak bailiran zulatzen nindutela hitz haiek. Zer behar izan zuen, horrela bat-batean, ni alderik alde sastatzeko? Baliteke pentsatu izana huraxe zela niretzat unerik egokiena, arrisku gutxien zuena. Ez zidan esan nahi izan mutiko soila nintzen bitartean. Baina berriro ikusi ninduenean orain gizon betea nintzela pentsatuko zuen beharbada, gerrak gizon bihurtu ninduela eta jasan nezakeela… Bai, uste dut onez eutsi diodala, benetan; alderik alde zulatu ninduen, ume biluzi, babesgabe bat bezala. Seriotan hitz egingo zuela espero dut, egia esateko gogoz, eta ez zidala zalantza eta sufrikariozko mundu bat eraikiaraziko, esateagatik, ero-eroan esandako hitz batzuen gainean. Baina gerta liteke, baita ere, Fulviak eraikiarazi izana maitasunezko mundu oso bat, horrela, esateagatik besterik gabe, esandako hitz batzuen gainean… Aski da, aski da, aski da. Gaizki sentitzen nintzen, ez nekielako zer egin, nora joan, zer erabaki hartu bihar. Baina orain badakit zer egingo dudan bihar. Fulviaren etxera itzuliko naiz, berriz ikusiko dut emakumea, errepika diezadala dena zehatz-mehatz. Begietara begiratuko diot denbora guztian, betileak mugitu ere gabe. Dena kontatu beharko dit berriro, eta aurrekoan kontatu ez zidana ere kontatu».

12

Goizeko bederatziak puntuan ziren. Zerua axuri zuriz beteta zegoen, kolore gris metalikoko soilgune batzuekin, eta haietako batean ilargia ageri zen, luzaro miazkatutako gozoki bat bezain birrindu eta gardena. Euria zeruko azken geruzaren kontra bultzaka ari zen nabarmen, baina, beharbada, edo hori uste zuen tenienteak, lehenengo zaparrada erori baino lehen bukatuko zen kontua.

Tenientea, Alarico Rozzoni sarjentuarentzako hil-kapera bihurtzen ari ziren ofizialordeen gela igarota, patioaren erdian kokatu zen; handik keinu bat egin zion guardiako sarjentuari.

—Bellini eta Riccio patiora –esan zion aurkezpena egin zionean.

—Bellini kanpoan dago, hiltegira bidali dute.

Beraz, Riccio izango zen lehena, pentsatu zuen tenienteak, hain zuzen ere Ricciok, bietan gazteenak, Belliniren hamabost urteak ez zituen oraindik.

—Atera Riccio.

—Sukaldean edo sotoetan egongo da. Orain galdetuko dut ea ikusi duten –esan zuen sarjentuak.

—Ez dezagun luzatu. Bilatu zeuk. Eta esaiozu patioan… materiala dagoela deskargatzeko.

Sarjentuak kopeta zimurtu eta modu berezian begiratu zion ofizialari. Gutxieneko konfiantza bat izan zezakeen, Marketakoak zirelako biak. Tenienteak begiez erantzun zion. Orduan sarjentuak saiheska komandantziako leihoetara begiratu eta esan zuen:

—Ados nago Rozzoni mendekatzearekin. Nola ez dut, bada, mendekatu nahiko. Baina muinoetan aske eta harro dabiltzan putakume horietako baten bidez mendekatu nahiko nuke…

—Ez dago zer eginik.

—Bi horiek umeak dira, mandatariak ziren, jolasean ari zirela uste zuten mutikoak…

—Ez dago zer eginik –errepikatu zuen tenienteak–. Komandanteak agindu du.

Sarjentua sukaldeetarantz abiatu zen, eta tenienteak eskularruak tiraka kendu eta berriro astiro jantzi zituen. Berak ez zuen ahoa zabaldu, baina sardiniar kapitainak ere ez zuelako hitz egin. Biek orpoak kliskatu zituzten.

—Urdanga batengatik hil da –esan zuen komandanteak–. Ez dut sentitzen, baina mendekatu egingo dut. Eta oraintxe mendekatuko dut, eskura ditudan etsaien bidez. Nire soldaduetatik, berdin dio nola erori den, batek ere ez du geratu behar mendekurik gabe.

Orpoak kliskatu zituzten.

Baina eginkizuna berari egokitu zitzaion gero, eta sardiniar kapitaina arratsalde hartan, herritarrek jakin zezaten, Canelli osoko hormetan zintzilikatuko zen manifestua prestatzen geratu zen.

Maskota zuten otso zakurrak muturra lur-arrasean zuela igaro zuen patioa. Tenienteak ez zion haren

ibilbideari jarraitu, Riccioren eskalapoiek lokatzetan egiten zuten hotsa entzunda. Kamuflajezko galtzak eta kamiseta hautsi bat, arrantxo eta izerdi lehorrez zikindua, zeuzkan jantzita. Hain ile luzea zuen, non atzeko aldean mototsa eratzen baitzion, eta minutu bat ere ez zen joaten buruan amorruz hazka egin gabe.

—Jarri irmo –esan zion sarjentuak Ricciori.

—Utzi –xuxurlatu zion tenienteak eta Ricciori–. Buelta bat egingo dugu patioan.

—Baina, teniente jauna, non dago deskargatu beharrekoa? –galdetu zuen mutikoak, esku-ahurretan tu eginez.

—Ez dago ezer –murmurikatu zuen tenienteak.

Pauso batzuk eman ondoren, Ricciok masail bat puztuta zeukala konturatu zen.

—Jo egin zaituzte?

Oinaze eta jostaketazko errainu bat igaro zen Riccioren begi maltzur eta otzanetatik.

—Bai zera, jo! –erantzun zuen–. Egurra eman didatela dirudi, baina haginetako mina besterik ez da. Ez, ez naute jo, piramidoi bat ere eman didate.

—Min ematen dizu?

—Gutxi, piramidoiaren eragina hasi zait.

Patioa hutsik zegoen, haiek biak eta orain berriro, muturra lurrean zuela, uharkaren aldeko hormaren kontra itzulika ari zen txakur maskota izan ezik. Tenienteak bazekien horma haren atzetik… sarjentua iristen ari zela, iritsia ez bazen.

—Baina non dago deskargatu behar den materiala? –galdetu zuen berriro Ricciok.

—Ez dago materialik –erantzun zion tenienteak, oraingoan argi eta garbi.

Arkupetik, Riccioren atzetik, hiru soldadu atera ziren bat-batean, mosketoia eskuan zeharka zutela.

—Ez ni, ez Bellini, inoiz ez gaituzue atera zerbaitetarako ez bada –esan zuen Ricciok bekokia igurtziz.

—Entzun egin behar didazu –esan zion tenienteak.

Ricciok arreta jarri nahi izan zuen, baina gero bat-batean biratu zen bere atzean geldituta ko hiruenganantz.

—Eta hauek…? –hasi zen galdetzen Riccio agure keinu batez.

—Bai, utzi egin behar gaituzu –esan zuen tenienteak zakar.

—Hil?

—Bai.

Mutikoak esku bat bularrera eraman zuen.

—Fusilatu egin behar nauzue. Zergatik?

—Gogoan izan heriotza-zigorra ezarri zizutela. Gogoan izango duzu, seguru. Bada, gaur iritsi da epaia betearazteko agindua.

Ricciok listua irentsi zuen.

—Baina nik uste nuen kondena hartaz dagoeneko ahaztuta zeundetela. Orain dela lau hilabete izan zen.

—Zoritxarrez horiek ez dira ezeztatzen diren gauzak –esan zuen tenienteak.

—Baina orduan bete ez bazenuten, zergatik bete nahi duzue orain? Kondena hark dagoeneko balioko ez balu bezala da. Orduan bete ez bazenuten, deuseztatu izan bazenute bezala da.

—Deuseztatu ez! –esan zuen tenienteak gero eta leunago–. Geroratuta zegoen.

Eta Riccioren buruaren gainetik hiru soldaduen aurpegiak ikusi zituen, bera hainbeste luzatzea eta arrazoitzea ongi iruditzen ote zitzaien ala gogaitzen zituen jakiteko, eta haietako bat, deseroso eta ironiko samar, komandantziako leihoetara begiratzen ari zela ikusi zuen.

—Baina nik uste nuen ondo ari nintzela portatzen. Lau hilabeteotan ondo portatu naiz.

—Ongi portatu zara. Bai horixe.

—Eta hortaz? Zergatik hiltzen nauzue hortaz? –bi malko hasi zitzaizkion agertzen begi-ertzetatik eta, erori gabe, neurriz goitik ari ziren hazten–. Hamalau urte baino ez ditut. Zuek badakizue hamalau urte baino ez ditudala, eta kontuan hartu behar duzue hori. Ala lehenagoko zerbait aurkitu duzue niri buruz? Ezer aurkitu baduzue, ez da egia. Nik ez dut inoiz ezer txarrik egin. Eta ezer txarrik egiten ikusi ere ez. Postaria nintzen, besterik ez.

—Esan behar dizut –azaldu zion tenienteak– gutako bat hil dutela. Rozzoni sarjentua, ezagutzen zenuen. Zuetako batek hil du, hor aurreko muino horretan.

—Madarikatua! –xuxurlatu zuen Ricciok.

—Bai horixe –esan zuen tenienteak–. Hura bageneuka.

Riccio listua ateratzen saiatu zen, etsi-etsian, mingaina lehor-lehorra baitzuen eta ezin zuen hitzik egin, eta bazekien berehala hitz egiten ez bazuen abiatzeko seinalea emango zuela tenienteak. Garaiz oneratu zen eta esan zuen:

—Sentitzen dut, sentitzen dut sarjentu horrengatik. Baina hemen barruan nagoenez gero beste batzuetan ere izan dituzue hildakoak eta ez zarete nire kontra hasi.

—Oraingoan horrela da.

—Gogoratzen zara Polacci soldadua hil zenekoa? –presakatu zen Riccio–. Ni laguntzen aritu nintzen beste zera hura, katafalkoa, egiten eta orduan ez zenidaten begi txarrez begiratu.

—Oraingoan horrela da.

Ricciok bi eskuez estutzen zuen elastikoa.

—Baina nik ez dut zerikusirik horrekin. Hamalau urte besterik ez ditut, eta postaria nintzen. Egia esan, bigarren aldian harrapatu ninduzuen, zin degizuet. Nik ez dut zerikusirik. Baina agindua, niretzako agindua, norengandik etorri da?

—Eman dezakeen bakarrarengandik.

—Komandantearengandik? –galdetu zuen Ricciok–. Askotan ikusi dut zuen komandantea, baita hementxe bertan ere patioan, eta ez dit inoiz gaizki begiratu. Behin zaharoa erakutsi zidan, baina barrez ari zen.

—Oraingoan honela da – tenienteak hasperen egin zuen, hiru soldaduei begiratzeko indarrik gabe.

—Komandantearekin hitz egin nahi dut –esan zuen Ricciok.

—Ezin da. Eta alferrik da.

—Berak nahi du hau?

—Bai. Hemen hark nahi duen guztia egiten da, eta hark nahi ez duenik, ezer ez.

Riccio negarrez hasi zen isil-isilik, musuzapi baten bila patrika alferrik haztatzen zuen bitartean.

—Baina ni –esan zuen behatz bat begi azpitik pasatuz–, ni ondo portatu naiz beti, agindu didazuen guztia egin dut beti. Erratza pasatu dut, botak garbitu ditut, zaborra atera dut, kargatu eta deskargatu dut… eta noiz izango da?

—Oraintxe bertan.

—Orain? –galdetu zuen Ricciok, bi eskuak bularrera eramanez–. Ez, ez, gehiegitxo da. Itxaron pixka bat. Niri bakarrik egin behar didazue? Belliniri ez?

—Belliniri ere bai –erantzun zion tenienteak–. Aginduak Bellini ere barnean hartzen du. Oraintxe joan dira hiltegira haren bila.

13

—Bellini gaixoa –esan zuen Ricciok–. Eta ez diogu itxarongo? Zergatik ez itxaron? Horrela elkarrekin egongo gara, behintzat.

—Aginduak –esan zuen tenienteak–. Ezin dugu itxaron. Ez dago besterik… animo, Riccio, goazen.

—Ez –esan zuen Ricciok soseguz.

—Aurrera, Riccio, izan kemena.

–Ez. Hamalau urte baino ez ditut. Eta ama ikusi nahi dut. Ai, ama! Ez, hau gehiegizkoa da.

Ofizialak hiru soldaduei begiratu zien. Konturatu zen haietako bik lehenbailehen bukatu nahi zutela, errukiz, eta besteak tinko begiratzen zion, sarkastiko eta suminez, eta bazirudien esaten ziola:

«Guri ez digute honenbeste zeremonia egiten; guri, asko jota, sarkasmoz betetako hitzaurre bat botatzen digute, eta honi errukiz betetako hitzaurrea botatzen diok. Ederra ofiziala. Oker gaudela eta gureak egin duela uste duten horietakoa haiz, ikusten denez. Baina, eta gu? Gu, Duce-aren soldaduok, zer?, harrietatik edo landareetatik jaiotzen gara, ala?»

—Aurrera, izan kemena –errepikatu zuen tenienteak, ama baten guztiz bestela eta aldi berean berdin-berdin, Ricciori harrera egiteko bezala besoak zabaldu zizkion hirugarren soldaduari begiratuz.

—Ez –erantzun zion Ricciok gero eta sosegatuago–. Nik hamalau urte baino…

Orduan tenienteak begiak itxi eta indarrez jo zuen bizkarrean, eta Riccio soldaduaren besoetan erori zen, eta beste biek estalki baten antzera estutu zitzaizkion gainean. Horrela haren oihuak ere ito egiten zituzten eta mutikoaren hankak baizik ez ziren ateratzen, zintzilik eta zirimolaka.

Horrela joan ziren garajeko ateraino, eta tenienteak berunezko oinez jarraitzen zien.

—Hiltzaileak! Ama! Hauek hil egingo naute! Ama! –argi eta garbi entzuten zitzaion Ricciori garrasika.

Ez ziren behingoan iristen garajeko ate madarikatu hartara; sarjentua han egongo zen nonbait ezkutatuta atea kanpotiko bultzada batekin zabal zedin.

Bat-batean, nahaste hura desegin egin zen, bonba apurtzaile bat erdian lehertu balitz bezala, eta hutsunean Riccio agertu zen, erdi biluzik, ofizialari tinko begira eta behatzaz seinalatuz.

—Ez ukitu niri! –egin zien garrasi estututa zeukaten soldaduei–. Bakarrik joango naiz. Baina ez ukitu. Bakarrik joango naiz. Bellini ere fusilatzen baduzue, norekin egongo nintzateke ni zuen kuartel madarikatu honetan? Ezingo nuke eraman, minutu bat gehiago ere ez nuke jasango, fusilatzeko erregutuko nizueke. Ez daitezela hurbildu soldaduak! Bakarrik joango naiz.

Tenienteak keinuak egin zizkien soldaduei ez hurbiltzeko.

Eta Ricciok urrats batzuk atzera egin zituen, hain zuzen, garajeko aterantz, ia ukitzeraino.

—Beste gauza bat –esan zuen Ricciok–. Ziegan badut amak bidalitako opil bat. Probatu ozta-ozta egin dut, azal puska bat ozta-ozta kendu diot. Belliniri utziko nioke, baina Belliniri nire ondoren dator. Emaiozue zuen espetxe madarikatuan sartzen den lehenengo partisanoari. Madarikatua zuetakoren batek jaten badu!

Errekara atera zen eta soldaduek atea itxi zuten. Tenientea bakarrik gelditu egin zen une batez, eta bizkor-bizkor patio erdira joan zen. Baina han ere ez zuen geratu nahi izan, rafagak harresia igarota bera ere hil ahal izango balu bezala. Pauso luzez babesera bideratu zen, ofizialen jangelara. Kantoira iristean, rafagak eztanda egin zuen.

Kuartelean jakinean eta prest zeuden nonbait denak, ez baitzen inolako mugimendurik izan: ez jakin-minik, ez deirik, ez inor leihotik begira. Canelliko hotsak kolpetik eten ziren.

Tenienteak eskua buruan tentetu zitzaion ilera eraman zuen eta geldiro, neke handiz, guardiako kideengana joan zen Belliniri itxarotera.

Une hartan Milton Fulviaren txaleterantz zihoan, Albara iritsi aurreko azkeneko muinoan. Bidearen gehiena egina zuen ordurako, aspaldi utzia zuen atzean etxea ikusi zuen lehenengo tontorra. Mamu-itxurakoa iruditu zitzaion, euri-errezelek lausoturik baitzegoen. Inoiz ez bezala ari zuen euria, goian-behean, basati. Errepidea amaigabeko putzu bat zen; erreka batean bezala ibili behar zen hartan denbora guztian; soroak eta landareak hondatuta eta suntsituta zeuden, euriak bortxatuta bezala. Euriak burrunba egiten zuen. Tontorretik ibarrerantz oldartu zen, galgarik gabe, areago, irristatu nahian. Pare bat aldiz bizkar gainean irristaka joan zen, aldiko hamabi metro malda puztu eta uhintsuan, pistola, bi eskuez helduta, lema gisa erabiliz. Gero tontorretik Fulviaren etxea berriro ikusi ahal izango zuen muinotxoa igotzen hasi zen. Ahal zuen indar guztiaz pausoa bizkortu nahiz, haur baten pausotxoak egiten zituen. Eta bitartean eztulka eta intzirika ari zen. «Baina zer egingo dut han? Bart erotuta nengoen, sukarrak eldarnioak eragiten zizkidan, seguru. Ez dago zer argitu, zer ikertu, zer salbatu. Ez dago zalantzarik. Andrearen hitzak, banan-banan, eta haien zentzua, haien zentzu bakarra…» Gailurrera iritsi zen, eta, begirada zuzendu baino lehen, euriak lehenik itsatsi eta gero astindu egiten zion ilea bekokitik kendu zuen. Han zegoen txaleta, bere muino gainean garai, berrehunen bat metrora zuzenean. Euri-errezel lodiek are gehiago desitxuratzen zuten, baina oso itsusia iruditu zitzaion, larriki hondatua eta usteldua, lau egunetan mende bat gainbehera egin izan balu bezala. Hormen kolorea grisaxka zen; teilatuak lizunduta zeuden, inguruko landareak zimelduta eta birrinduta.

«Banoa, berdin dio, banoa. Ez nuke asmatuko beste zer egin, eta ezin naiz ezer egin gabe egon. Ba-

ratzezainaren semea bidaliko dut hirira, haren berri jakiteko. Poltsikoan, nire ustez, geratzen zaizkidan hamar lirak emango dizkiot».

Maldan behera jo zuen; segituan galdu zuen bistatik etxea, eta irristaka iritsi zen errekaren ertzeraino, zubitik mendi alderago. Urak arrabetez gainditzen zituen ibia eratzeko jarritako harriak. Ur izoztu, lodia orkatiletaraino iristen zitzaiola igaro zen harritzarrez harritzar. Gero lau egun lehenago itzuleran Ivanekin ibilitako errepidetxotik jo zuen. Zelaian, amorru bizian ekin zion oinez, euriaren amorruari erantzunez. «Hauxe egoera. Lokatza goitik behera, barrutik eta kanpotik. Amak ere ez ninduke ezagutuko. Fulvia, ez zenidan hau egin behar. Aurrerantzean zer zetorkidan pentsatuz batez ere. Baina zuk ezin zenuen jakin zer zetorkigun aurrerantzean, ez niri, ez hari, ez mutil guztioi. Zuk ez duzu ezer jakin behar, maite zaitudala bakarrik. Nik, berriz, jakin egin behar dut, baina zure arima badaukat bakarrik. Zugan pentsatzen dut, orain-txe bertan ere, egoera honetan ere zugan pentsatzen dut. Badakizu zugan pentsatzeari utziko banio, hilko zinatekeela une horretan bertan? Baina ez izan beldurrik, beti pentsatuko dut zugan».

Azken-aurreko gailurra igotzen ari zen, begiak itxita eta makur-makur eginda. Gailurrean zegoela ohartzen zenean, zutitu eta ongi zabalduko zituen begiak, Fulviaren etxeaz bete zitezen. Tantek berunezko balinak balira bezala jotzen zuten buruan, eta haiek jasan ezinez oihu egiteko gogoa pizten zitzaion une batzuetan. Eta, nahaste hartan, ez zuen ikusi landarehesi baten atzean, beregandik hogeita hamarren bat pausora, ezkerrean, soro batean bereganantz zetorren giza irudia. Nekazari gazte bat zen, lokatz hartan oinpuntetan ibiliz, makurtuta, tximino bat bezain zalu,

edozein unetan lasterka hasi behar baina ausartuko ez balitz bezala. Irudia bat-batean desagertu zen euritan.

Gailurrera iritsi zen, eta etxera begiratu zuen segituan; ia estropezu egin zuen lehenengo jaitsieran. Oreka berreskuratu zuenean, begiak maila berean berdindu zituen eta soldaduak ikusi zituen aurrean. Kolpetik gelditu zen errepidearen erdian, bi eskuak sabelaren kontra estuturik zituela.

Berrogeita hamarren bat ziren, soroetan, alde guztietan sakabanatuak, bat bakarra errepidean, ez denak armak prest, denak kamuflajez jantzita; euria haien kasko distiratsuetan xehatzen zen. Hurbilenekoa errepidean zegoena zen, beregandik hogeita hamar metrora; mosketoia sorbaldaren eta besoaren artean zeraman, kulunkatu nahiko balu bezala.

Artean inork ez zuen ikusi; makalaldiak jota ziruditen denek, baita berak ere.

Hatz lodiaren mugimendu batez pistola-zorroa askatu zuen, baina ez zuen atera. Hurbileneko soldaduak urak lausotutako begiak beregana zuzendu zituen unean, Milton atzera biratu zen kolpetik. Ez zitzaion alarma-oihua iritsi, harridura-korroka bat baizik.

Pauso luze, soraioz zihoan gailurrerantz; bihotza hainbat lekutan, denak zentzurik gabeak, ari zitzaion taupadaka, eta bizkarra zabaltzen ari zitzaiola sentitzen zuen, ia errepidetik kanpora ateratzeraino. «Hilda nago. Garondoan emango balidate behintzat. Baina, noiz iritsiko da hori?»

—Errenditu!

Erraiak izoztu egin zitzaizkion eta ezkerreko belaunak huts egin zion, baina berehala oneratu eta bide bazterrera oldartu zen. Tiroka ari zitzaizkion, mosketoiz eta metrailetaz; Miltoni iruditzen zitzaion ez zela lurrean ari korrika, balen haizearen gainean pedalei eraginez baizik. «Buruan, buruan!» oihukatzen zuen

bere baitan eta jauzi batez ertza hegan igaro eta maldan lurreratu zen, ezin konta ahalako bala pila batek gailurra garbitu eta airea ebakitzen zuen bitartean. Irristada luze-luze bat egin zuen, burua luzatuta lokatzetan ildo bat eginez, begiak estututa, itsu, harrizko irtenguneak eta arantzazko sastrakak ukituz. Baina ez zuen ez zauririk ez odolik sentitzen, agian lokatzak dena estaltzen zuen, txaplataz babesten. Zutitu eta korrika hasi zen, baina astiroegi eta astunegi, atzera begiratzeko adorerik gabe, haiek orain gailurrean ez ikusteko, ferietako tiro-etxolan ilaran jarrita bezala. Moldegabe zihoan korrika ezponda baten eta errekaren artean, eta une batez gelditzea ere bururatu zitzaion, ez baitzuen lortzen abiadura hartzerik. Tirokadaren zain beti. «Hanketara ez; bizkarrera ez!» Errekan arbola gehien zegoen tarterantz korrika jarraitu zuen. Horretan ezponda gainean begiztatu zituen, beste patruila bat seguru asko, ura turrustan zerien sasiakazien artean, berrogeita hamarren bat metrora. Oraindik ez zuten ezagutu; lokatzez estalitako mamu bat baitzirudien, baina oihuka hasi eta armez destatzen zuten.

—Errenditu!

Gelditu eta atzera egin zuen. Zubirantz jo zuen zuzenean, eta, hiru urrats eginda, kiribildu eta iraulka erori zen. Bi aldeetatik ari zitzaizkion tiroka, ezpondatik eta lubetatik, berari eta beren artean oihuka, beren artean berotzen, agintzen, agiraka, gogoberotzen. Milton zutik zegoen berriro, iraulka zihoala lurraren konkor baten kontra jo baitzuen. Bere atzean, aurrean eta inguruan lurra urratzen eta irakiten ari zen; balek erauzitako lokatz-puskak orkatiletan itsasten zitzaizkion, eta bere aurrean bazterreko zuhaixkak zarta-hots lehorrez erortzen ziren hautsita.

Zubi minaturantz jo zuen. Bestea bezalakoxe heriotza izango zen, baina azkeneko urratsetan gorputzak ezetz esan zion eta ez zuen mila puska eginda lehertu nahi izan. Garunak ezertan parte hartu gabe, bertan gelditu eta uretara salto egin zuen, tiroek ebakitako sastraketatik harago.

Zutik erori zen, eta urak belaunak zurrundu zizkion; tiroketak inausitako sastrakak bizkarrera erortzen zitzaizkion. Ez zen segundo bat baino luzatu han, baina nahikoa zela ohartu zen; begiak atzera biratzera ausartu izan balitz, garbi ikusiko zituzkeen lehenengo soldaduak ezpondaren gainean, zazpi, zortzi, hamar armaz burura destatzen ziotela. Eskua pistola-zorrora joan zitzaion, baina hutsik aurkitu zuen; lokatz pixka bat besterik ez zitzaion atera behatzen azpitik. Galduta; maldan behera buruz aurrera egin zuen irristada luze hartan erori zitzaion, seguru. Etsiaren etsiz, burua jiratu eta sastraka artean begiratu zuen. Soldadu bat baino ez zeukan gertuan, hogei bat pausora, mosketoia eskuen artean dantzan eta begiak zubiaren arkuan finko zituela. Palasta gorgarri batez sabelez murgildu zen uretan eta eskutada bakar batez beste aldeko ezpondari heldu zion. Atzean oihuak eta tiroak lehertu ziren berriro. Erreka-bazterra sabel gainean arrastaka gainditu, eta belardi amaigabe, hutsean zehar abiatu zen. Baina belaunek huts egin zioten abiadura handitzen saiatzeko ahalegin jasanezinean. Zerraldo erori zen. Marru batean hasi ziren oihuka. Ahots izugarri batek soldaduak madarikatzen zituen. Bi bala, leunki, adiskidetsu, iltzatu ziren lurrean bere ondoan. Jaiki eta lasterka abiatu zen, behartu gabe, etsita, sigi-saga ere egin gabe. Balak ezin konta ahala zetozen, samaldaka, katean. Zeharka ere iristen ziren, batzuek ezkerrera jo zuten zeharka harrapatzeko, aurrea hartuz ere egiten

zioten tiro, txoriei bezala. Zeharkako horiek mila aldiz gehiago izutzen zuten; zuzenek seko uzteko aukera guztiak zituzten. «Buruan, buruaaan!»

Dagoeneko ez zeukan pistola, bere buruari tiro egiteko, ez zuen enborrik ikusten burua haren kontra hausteko, eta itsu-itsuan lasterka zihoala bi eskuak lepora eraman zituen bere burua itotzeko.

Lasterka zihoan, gero eta bizkorrago, arinago, bihotza taupadaka, baina kanpotik barrurantz, bere lekua berriro konkistatu nahiko balu bezala. Lasterka zihoan, sekula lasterka egin ez zuen bezala, inork inoiz lasterka egin ez zuen bezala, eta aurreko muinoen gailurrek, uholdeak belzturik eta berdindurik, altzairu biziak bezala distiratzen zuten begi zabal, erdi itsuetan. Lasterka zihoan, eta tiroak eta oihuak apalduz zihoazen, bere eta etsaien arteko aintzira neurrigabe, igaroezin batean.

Lasterka jarraitzen zuen, baina lurra ukitu gabe, gorputza, mugimenduak, arnasa, nekea alferrikako bihurturik. Gero, artean leku berrietan edo bere ikusmen galduak ezagutu ezin zituen lekuetan zehar lasterka zihoala, burua martxan jarri zitzaion berriro. Baina kanpotik zetozkion pentsamenduak, kopetan jotzen zuten, habaila batek jaurtitako harrikozkorrak bailiran. «Bizirik nago. Fulvia. Bakarrik nago. Fulvia, iaia hil nauzu!»

Lasterka eta lasterka jarraitzen zuen. Aldapa gora pikoa zen, baina berari laua iruditzen zitzaion, zelai lehor, elastikoa, abegikorra. Gero, bat-batean errebal bat paratu zitzaion aurrean. Uluka, Miltonek saihestu egin zuen, eginahalean lasterka inguratu zuen. Baina atzean utzi bezain laster, bat-batean ezkerrerantz biratu eta kontrako norabidean inguratu zuen. Jendea ikusteko eta jendeak bera ikusteko premia zuen, bizirik zegoela kon-

bentzitzeko, eta ez zela airean jirabiran hegan zebilen izpiritu bat aingeruen sareetan noiz eroriko. Lasterketa-martxa berean, herrixkako sarrerara itzuli eta erdi-erditik igaro zuen. Eskolatik irteten ari ziren haurrak zeuden, eta galtzadarrien gaineko galapa haren burrunba entzunda, eskailera-mailetan gelditu ziren, zer gertatuko. Milton sartu zen, zaldi bat bezala, begiak zuri, ahoa zabal-zabal eta apartsu; oinek lurra ostikatzen zuten bakoitzean, lokatza jaurtitzen zuen alboetatik. Heldu baten oihua lehertu zen, leihoan zegoen maistrarena beharbada, baina bera urruti zegoen dagoeneko, azken etxetik hurbil, uhinetan zegoen landaren mugetan.

Lasterka zihoan, begiak zabal-zabalik, lurrik oso gutxi eta zerurik batere ez ikusiz. Guztiz kontziente zegoen bakardadeaz, isiltasunaz, bakeaz, baina lasterka jarraitzen zuen oraindik, erraz, ezin eutsirik. Baso bat sortu zitzaion aurrean eta harantz jo zuen Miltonek. Zuhaitzen azpira sartu bezain laster, itxi eta harresi bat eratzen zutela zirudien, eta harresi hartatik metro batera erori zen.

2020ko irailaren 8an hasi ginen liburu honen edizio lanekin. 77 urte lehenago, 1943an, Badoglio lehen ministroak AEBekin armistizioa sinatu zuen. Horren ondorioz Renata Viganòk egunkari eta aldizkarietan idazteari utzi zion eta senarrarekin eta semearekin partisanoengana jo zuen. Sasian postari, erizain eta agerkari klandestinoetako kolaboratzaile jardun zuen. 1949an *L'Agnese va morire* eleberria argitaratu zuen, Erresistentzia literaturako lan nabarmenetako bat, dozena bat hizkuntza baino gehiagotara itzuli dute.